

Zu hemen zaude. goiena

ESKORIATZAKO UDALERRIA
MUNICIPIO DE ESKORIATZA

40 URTEREN OSTEAN, ORDEZKARITZA BARIK

Eskoriatzako zazpi elizateek ordezkaritza zuzena izan dute Eskoriatzako Udalean azken 40 urteetan; oraingoan, ez dute hautagaitzarik aurkeztuko. Arrazoa: konpromisorik eza eta nekea / 16

Eskoriatzako Elizateen Elkarteko
Leire San Vicente, Jesus San
Vicente eta Iñaki Madinabeitia,
Apotzagan, eguaztenean.

XABIER URZELAI

Azken agurra Vietnamen hildako Ekain Andres aretxabaletarrari

"Ekaini merezi duen moduko omenaldia egin nahi diogu zapatuan", adierazi dute senideek / 14



1958-2011ko aldiko gatazka armatuak Antzuolan izaniko eragina, 'Memoria josten' liburuan / 22




Hiru txirlo: eskutik eskura doan herri kirola

Idurre Eskisabeli elkarriketa (Kontseilua)

Mendi ibilaldiak, bisita gidatuak, tailerrak eta kontzertuak Oñatin, Puntaik Puntan / 2

SINADURAK



ZURE BETAURREKO
PROGRESIBOekin
LENTE OKUPAZIONALAK
OPARI

Bulegoan lan egiteko
perfektuak

www.multiópticas.com



Kontsultatu optikan konpainiarekin ezagugarriak.

Otalora Lizentziaduna, 18
Tel: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16
Tel: 943 76 15 75
BERGARA



eskatu hitzordua
WhatsApp bidez

MULTIÓPTICAS
kalitatea - konfiantza - diseinua

Puntaik Punta hartuko du Oñatik asteburuan

Debagoieneko natur ondareari balioa emateko sortu zen 2016an jaialdia, eta arratsaldean emango zaio hasiera zazpigarren edizioari; mendi ibilaldiak, bisita gidatuak, tailerrak eta kontzertuak izango dira protagonista, beste urte batez

Idoia Aranbarri Arzuaga OÑATI

Gaur hasi eta domekara bitartean egingo da Puntaik Punta Bidezidorren Jaialdiaren zazpigarren edizioa, Oñatin eta lehenengo aldiz ospatuko dute bertan festa. Aurtengo egitarauan ere ez dira faltako adin askotariko herritarrei zuzendutako ibilbide, tailer eta kontzertuak. Berrikuntzen artean dago Hartzaren Urratsa mendi-ibilbidearen aurkezpena, eta Oñati eta Bergara arteko ibilbidea egingo dute zapatuan. Aloñako Igoera izango da asteburuko beste ekintza nagusietako bat, bi ekitaldietako antolatzaileek elkarlanean antolatutako baitute domekako lasterketa.

Kulturak ere badu presentzia, eta zenbait taldek musikaz jantziko dute herriko plaza. Horietako bat izango da Nogen. Taldeak ezagutzen du jaialdia -2018ko edizioan Aretxabaletan izan zen- eta donostiar boskotearen musikak girotuko du zapatu gaua.

Plaza mugatuak

Egitarauko zenbait ekintzatan aurrez izena ematea beharrezkoa da, plazak mugatuak direlako. Debagoieneko Mankomunitate-tik adierazi dute herritarrak "ondo" erantzuten ari direla eta izen-emateak erritmo onean doazela. Horren adierazle da



Nogen taldeko bost partaideak. GOIENA

dagoeneko zenbait ekintzatan plaza guztiak bete direla. *Udaberriko zerua begi-bistaz; Helduentzako espeleoabentura; Gaztagintzaren sekretuak; Arrikruz espeleotxiki; El ladrón de rostros* bisita gidatua; eta *Bizi Pottoka esperientzia*. Hala ere, antolatzaileek adierazi dute "azken momentura arte" eman daitekeela izena; betiere, plazak baldin badaude.

Trafikoan eragina

Udaltzaingoak jakinarazi duenez, domekako Aloñako igoerak tra-

fikoan eragina izango du mozketak puntualak egingo baitituzte. 09:00ak aldera, moztuko dute Urteaga baserria eta Urriagain jatetxeen artean; 10:30 aldera, berriz, Roke Azkune auzoko biribilgunea moztuko dute. Jaialdia dela eta, ez da autobus zerbitzu berezirik egongo. Halaber, udaltzaingoaren esanetan, Ibarako MUko aparkalekuak autokarabanentzako egokituko dute. Era berean, ohi bezala, autokarabanak eta furgonetak aparkatu ahal izango dira San Martin zuhaitzian.

Puntaik Puntaren egitaraua, osorik

Honako ekintza hauek egongo dira Oñatin Puntaik Punta jaialdian:

APIRILAK 21, EGUBAKOITZA

- **17:30** *Kakaoaren bidaia eta ipuinak*, Txokolateixian, denontzat.
- **18:30** Mendifilm Festibaleko lau proiektzio, Santa Marina zinema-aretoa.
- **19:00** *Granujas a todo ritmo*: erraldoiekin, kale ikuskizuna plazan. Denontzat.
- **19:30** *Udaberriko zerua begi bistaz*, Debagoieneko astronomia elkartearen eskutik. Turismo Bulegoan tailerra eta oinez irteera.

APIRILAK 22, ZAPATUA

- **09:00** Helduentzat mendi irteera: *GR-289 Hartzaren Urratsa Oñati-Bergara*.
- **10:00** *Nordic walking-a*: helduentzat ikastaroa unibertitate aurrean eta Garagaltzako ibilbidea.
- **10:30** Helduentzat espeleoabentura Arrikruz-Oñatiko koban.
- **10:30** *Gaztagintzaren sekretuak*: Arantzazuko Parketxetik ibilbidea Gomiztegiraino eta han bisita gidatua.
- **11:00** *Kakao-zakuaren bidaia*. Bisita gidatua Txokolateixian.
- **12:00** Aurkezpenak: *Arrikruz 360º* eta ikusgai asteburuan zehar Turismo Bulegoan.
- **12:30** Aurkezpenak: *GR Hartzaren Bidea GMF Turismo Bulegoan*.
- **15:30** 6 urtetik gorakoentzat Arrikruz espeleotxiki Arrikruz-Oñatiko koban.
- **16:00** *Ladrón de rostros* bisita gidatua. Oñati-Araotz-Arantzazu-Oñati.
- **16:30** *Bizi Pottoka* esperientzia Pottokalekun. Denontzat.
- **17:00-20:00** *Urban-jump* gunea 10-15 urte bitarteko gazteentzat, skate eta parkour parkean.
- **17:30** Baso Bainua, San Martin zuhaitzian. Denontzat.
- **18:00** *Kakao-landaretik txokolatera* bisita gidatua Txokolateixian, denontzat.
- **20:30** Kontzertua: Txuletons taldea, herriko plazan.
- **22:00** Kontzertua: Nogen taldea, herriko plazan.

APIRILAK 23, DOMEKA

- **09:00** Aloñako Igoera mendi-proba. Plazan irteera eta helmuga.
- **10:00-14:00** Natur eta xendazaletasun azoka herriko plazan.
- **11:45** Rock Kanean elektrotzaranga, lasterketako parte-hartzaileei ongietorria.
- **17:00** *Oñati guztiontzat*, bisita gidatua Turismo Bulegotik.
- **18:00** *Tio Teron* kale ikuskizuna: plazan, denontzat.

Zenbait ekintzatan parte hartzeko beharrezkoa da aurrez izena ematea, eta batzuetan dagoeneko ez da plazarik geratzen. Kontsultatu informazioa Puntaik Puntaren webgunean.



bertako
igogailuak | ascensores

**IGOGAILUEN
MANTENTZE-LANEN
ESKAINTZA
ZORROTZENA**

**+2.000 bezerok gugan
dute konfiantza**

943 903 450
bertako.eus

BENETAKO DROTARIKO ZERBITZUA

100€-tik/hileko



Demokrazia da erregimen politiko onena %90entzat

EHU, MU eta Deustuko Unibertsitatearekin elkarlanean egin du Arantzazulab-ek demokraziari buruzko 'Demokraziari buruzko ulermenak gurean' ikerketa-lana- EAEko biztanleek demokraziari buruz dituzten iritzi, uste eta ulermen nagusiak ezagutzeko

Idoia Aranbarri Arzuaga OÑATI

Arantzazulabek EHUrekin, Deustuko Unibertsitatearekin eta Mondragon Unibertsitatearekin elkarlanean egindako *Demokraziari buruzko ulermenak gurean* izeneko ikerketaren lehen emaitzak aurkeztu dituzte. Gizartean demokraziari buruz dauden ulermenak eta iritziak ezagutu nahi izan dituzte, eta, horretarako, hogeitakaldera egin dizkiete 18 urtetik gorako EAEko 2.173 herritarri, otsailaren 22tik martxoaren 24ra bitartean.

Demokrazia, 10etik 9k

Demokraziaren inguruko ikerketa horretan, hamarretik bederatzik erantzun dute demokrazia beste edozein gobernu mota baino hobea dela. Arantzazulabeko zuzendari nagusi Naiara Goiak azaldu du, ordea, balorazioa jaitxi egiten dela funtzionamendu erreala galdetuta, herena baino gehiago baita pozik edo batere pozik ez dagoela adierazi duena.

Herritarrek politikan duten eraginari buruz ere galdetu da, eta hirutik bik uste dute herritar arruntek aukerarik ez dutela politikan eragiteko. Proporzio berean herritar gehienek uste dute politikariei ez zaizkiela axola herritarren iritziak.

Sentimendu eta ezaugarriak

Herenak baino gehiagok iritzi du axolagabekeria, mesfidantza eta haserrea direla *demokrazia* hitzak sortzen dizkien sentimenduak. Alabaina, %51,8rentzat konpromisoa sorrarazten du. "Maila baxuagoko garrantzia ematen diete alderdi politikoei, hauteskunde sistemari eta alternantzia aukerei".

%75ek lehenesten dute gobernuek balio eta printzipioak izatea. Hori horrela izan arren, eskarmentua eta prestakuntza eduki dezaten ere eskatzen die-

te. Parte hartzeko eredu demokratikoaz galdetuta, %58,6k diote arazoak konpontzeko herritarren izenean jarduten duten ordezkariak boto bidez hautatzea dela parte hartzeko eredu demokratikoa.

Aurkezpenean Goiak azaldu zuenez, datuen irakurketa soila egin dute. Behin landa-lana egin da, datuak sakonago aztertzeko eta gogoetarako jardun behar dutela gaineratu zuen. Lanketa hori Arantzazulaben Ikerketa Elkargunean egingo dute datozen hilabeteetan.



Erkizia, Goia, Ipiña eta Riezu, eguaztenean, txostenaren aurkezpenean. IRINA ALVAREZ



Aitor Montes, Aramaioko kontsultategiaren aurrean, martitzenean. TXOMIN MADINA

Aitor Montesek salaketa jarri du bere aurkako difamazioagatik

Mediku batek paziente baten informean haren aurkako mezuak idatzi ditu jardunean euskara erabiltzeagatik

I.A.A. ARAMAIO

Aramaioko anbulatorioko mediku Aitor Montesek salaketa jarri zuen zapatuan Bergarako Ertzaintzaren polizia-etxean, pertsonalki ezagutzen ez duen Debagoieneko Ospitaleko anestesista batek Montesek berak euskaraz idatzitako Aramaioko paziente baten historia klinikoan hiru mezu ingelesez idazteagatik. "Ez du pazientearen ohar edo gertakari klinikorik idatzi, niri zuzendutako oharak dira, aginduz euskaraz ezin dudala idatzi eta derrigorrez ingelesez idatzi behar dudala", dio Montes medikuak.

Difamazioa eta derrigortzea jaso dira salaketan: "Lankide eta pazienteen aurrean mezuak diote euskaraz idazteagatik gatzelania gorroto dudala, eta gatzelania-ingelesa erabiltzera behartzen nau". Azaldu du pazienteak eta erakunde pribatu

edota gizarteak salaketa jar dezakeela, beste delitu batzuk badaudelako—historia klinikoaren erabilera okerra, herritarren eta anestesistaren arteko harreman klinikorik ez badago—.

Eskaerak zuzendaritzari

Debagoieneko ESiko zuzendaritzari eskatu dio Osakidetzako langileen jarduna arautzen duen kode etikoa aldatzeko egiteko, Osakidetzako profesional berriendako euskara eta euskaldunekiko errespetua jasotzen duen harrera protokoloa egiteko eta zuzendaritzak adierazpen publikoa egiteko Montes babes-teko eta aitortzeko bere lanean euskaraz jarduteko eskubide osoa duela. Argi du Debagoieneko ESitik erantzun egokia eta bizkorra jasoko duela, baina gaineratu du bi astean arazoa konpondu ezean gose greba hasiko duela maiatzaren 2an.

ai arizmendi ikastola

PRO

LAN BIDE HEZIKETA

ZATOZ ATE IREKIETARA!

Apirilak 26
18:00etan
Ferixalekuan
(Arrasate)

Gizarte eta kirol animazioaren irakaskuntza

Osasun larrialdiak

Mikroinformatika sistemak eta sareak

Erizaintzako zaintza osagarriak

Zerrendak aurkeztuta, alderdiak lehiarako gertu

Hauteskundeetarako zerrendak osatzeko lanean jardun dute hilabeteotan alderdi politikoei eta hautesleen elkarteek. EH Bilduk eta EAJk aurkeztuko dituzte gehien: eskualdeko bederatzi herrietan. Eskoriatzan elizateek ez dute ordezkartzarik izango

Eneko Azkarate Laspiur ARRASATE
Astelehenean amaitzen da udal eta foru hauteskundeetarako zerrendak aurkezteko epea. Maiatzaren 28an da botatzeko eguna. Debagoieneko bederatzi herrietan 113 zinegotzi aukeratu dira. Debagoienean nagusi diren bi alderdiek dituzte, gaur egun, zinegotzi guztien %90: EH Bilduk 57 eta EAJk 44.

Aurpegi berriak

Hauteskundeen ostean, bost herritan, gutxienez, alkate berriak izango dituzte. Unai Elkoro (Aretxabaleta), Beñardo Kortabarria (Antzuola), Iraitz Lazkano (Antzuola) eta Lierni Altuna (Aramaio) ez dira berriro aurkeztuko; ezta otsailean zendu zen Eugenio Otsa ere (Leintz Gatzaga). Gainerako lau herrietan egungo alkateak aurkeztuko dira: Maria Ubarretxena (Arrasate), Gorka Artola (Bergara), Izaro Elorza (Oñati) eta Joserra Zubizarreta (Eskoriatza).

40 urteren ostean...

Eskoriatzako Elizateen Elkarteak ez du hautagaitzarik aurkeztuko. 40 urteren ostean, Eskoriatzako auzoek ez dute zuzeneko ordezkariarik izango, ez dutelako aurkitu zinegotzi izateko gertu dagoenik. Leintz Gatzagako Hautesleen Elkarteak, berriz, bai aurkeztuko da. Dorleta Elkorbarrutia izango da alkategaia. 2019ko udal hauteskundeetan ez zuten zerrenda osatzerik izan, eta, herrian hautagaitzarik aurkeztu ez zenez, ez zen bozketarik egin. Urte bereko azaroan egin zituzten hauteskundeak. Hautagaitza bakarrik aurkeztu zen, Leintz Gatzagako Hautesleen Elkarteak, eta Eugenio Otsa aukeratu zuten alkate.

Albaitaritza Fakultatea

PPk herri bakarrean iragarri du zerrendaburua: Oñatin. Ricardo Guisado Balanzategi ma-



Hainbat alderditako alkategairen aurpegiak. GOIENA

drildarra. Aurkezpen agerraldiak ere egin ditu Oñatin bertan. Besteak beste, Albaitaritza ikasketak egiteko fakultatea proposatu du Oñatirako. Oñatin zinegotzi bat lortzea du helburu. Eskualdeko beste herri handienetan eta Aramaion ere

HAUTESKUNDEEN OSTEAN, BOST HERRITAN, GUTXIENEZ, ALKATE BERRIAK IZANGO DITUZTE

ESKORIATZAKO ELIZATEEN ELKARTEAK EZ DU HAUTAGAITZARIK AURKEZTU

PP-K ALKATEGAIA AURKEZTU DU OÑATIN ETA ZINEGOTZIA ATERATZEA DU HELBURU

hautagaitzak aurkeztuko ditu PPK, herritik kanpokoek osatuta bada ere.

Ordezkaritzari eustera

PSE-EEK herri guztietan aurkeztuko ditu zerrendak. Gaur egun, Arrasaten hiru zinegotzi ditu eta Bergaran eta Antzuolan bana. Hiru herri horietako gaur egungo bozeramaileak izango dira alkategaia: Aritz Murua Arrasaten, Alberto Alonso oñatiarra Bergaran eta Miren Gallastegi eibartarra Antzuolan. Oñatin Aitziber Fernandez oñatiarra doa zerrendaburu eta Aramaion, berriz, Daniel Solana, gasteiztarra, Basquetur erakunde publikoko zuzendaria. Aretxabaletan, Eskoriatzan eta Elgetan ere aurkeztuko dituzte zerrendak, baina ez dute aurreratu nahi izan buru nor joango den.

Elkarrekin indartsuago

Ezker Anitza eta Podemos-Ahal Dugu elkarrekin aurkeztu ziren duela lau urte, Bergaran izan ezik, eta Arrasaten lortu zuten zinegotzi bakarra: Eva Abuin. Aurten ere, hasieran kontrakoa iragarri zuten arren, batera aurkeztuko dira Elkarrekin marka-

pean -Podemos, Ezker Anitza, Alianza Verde eta Equo-, eta Eva Abuinek errepikatuko du zerrendaburu. Bergaran -Andres Diez izango da zerrendaburu-, Aretxabaletan -Rafa Bernal- eta Eskoriatzan -Juan Luis Merino- ere aurkeztuko ditu hautagaitzak. Hiru horiek lehenik ere zinegotzi edo zerrendaburu izan dira Ezker Anitzarekin.

Arrasate ikur

EAJk Arrasaten eta Eskoriatzan errepikatuko ditu alkategaia, azken bi agintaldietan alkate izan direnekin irabazteko helburuarekin: Maria Ubarretxena eta Joserra Zubizarreta. Gainerako herrietan, berriro egin ditu zerrendaburuak. Bergaran, Mikel Lete jeltzede historikoa izango da; Oñatin, Amaia Erostarbe, gaur egun zinegotzi dena; Aretxabaletan, Mikel Uribeberria, 2011n ere jeltzaleen zerrendaren egunean aurkeztu zena eta gaur egun Kudeaketa eta Plangintza zuzendaria dena Foru Aldundia- ren Bide Azpiegituretako Departamentuan; Antzuolan, Josu Xabier Aranguren izango da aspaldiko partez herriko kidez

osatu duten zerrendako burua; Aramaion, Alberto Amenabar otxandiarra, Arabako foru suhiltzaileen zuzendari-kudeatzailea; eta Elgetan, Iker Laka 28 urteko eibartarra.

Alkate ohia, alkategai

EH Bilduko bi alkatek errepikatu egingo dute: Bergarako Gorka Artola eta Oñatiko Izaro Elorzak. Bestalde, gaur egun Arrasateko Udalean oposizioko buru den Maider Morrasede ere errepikatu egingo du alkategai; Aretxabaletan Gari Iturbe izango da zerrendaburu; Eskoriatzan, Edorta Zubizarreta, 1999tik 2003ra bitarteko agintaldian alkate izan zena -Euskal Herriarrok-; Antzuolan, Olatz Lete aukeratu dute EH Bilduko zerrendaburu izateko, eta Elgetan, Ibon Unzetabarrenetxea. Aramaion zailtasunekin ibili dira zerrenda osatzeko eta gaur itxiko dute. Azken hiru herrietan, erronka izango da alderdikide izan dituzten Beñardo Kortabarriak, Iraitz Lazkanok eta Lierni Altunak azken bi agintaldietan alkate izan egindako lanari segida ematea, horretarako, lehenbizi, hauteskundeak irabaziz.



OHIKO BATZAR NAGUSIA



DATA: 2023ko apirilaren 29a

ORDUA: 10:30, bigarren deialdian (10:00, lehen deialdian)
LEKUA: Juan Arzamendi Musika Etxea - Zerrojara kalea, Arrasate

GAI-ZERRENDA

1. Bileraren akta onartzeko bi bazkide hautatzea
2. 2022ko kudeaketa-txostena
3. 2022ko urteko kontuak irakurtzea eta onartzea
4. 2022ko txosten aktuariala
5. Auditoriekin egindako hitzarmena onartzea
6. Diru-sarreraren eta gastuen aurrekontua 2023rako
7. 2024rako kuota eta diru-sarrerak zehaztea
8. Prestazio ekonomikoaren definizioa eta prestazioengatik gehieneko zenbatekoak zehaztea
9. Gobernu Batzordeko karguak berritzea
10. Galderak eta eskaerak

San Felipe Elkarteak Elkarteak Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeak (BGAE), Araubide Bereziarekin bereizi gabeak, aseguru-jarduerarik egin ez duenak, ikuspegi lasaigarria eskaintzen du, 2022rako kontuen formulazioak, auditoriak eta eskatutako homidura teknikoei adierazten dutenaren arabera. Informazio hori azaltzeko eta, hala badagokio, onartzeko, San Felipeko bazkide titularrei dei egingo diegu Oñati Batzar Nagusirako. Batzar hori goian adierazitako egunean, orduan eta lekuan egingo da.

Deialdi hau, gai zerrenda eta ordezkariak eskudatzeko inprimakia -familia- talde bereko titularideari edo onuradunari edo beste familia- talde batetako bazkide titularri- gure webgunean daude eskuragarri: www.sanfelipe.eus, baita gure egoitzan eta bulegoan ere -Alfonso X Jakintsua 3, Grupo San Juan-.

Gobernu Batzordea

Oharra: nortasun agiria edo bazkidearen txartela eskatuko da asanbladara sartzeko

Autobusen mantentze falta salatu dute gidariek

Avanza Movilidad Gipuzkoa SA konpainiako autobus-flotaren egoera "tamalgarria" dela iritzita, gidarien batzordea hainbat aldiz kexatu da Osalanen, Lan-ikuskaritzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrean. Erabiltzaileei berdin jokatzeke eskatu diete

Hasier Larrea DEBAGOIENA

Gipuzkoako Foru Aldundiak kontratatutako Grupo Avanza konpainiak du gaur egun lurraldeko lineetako autobusen zerbitzua emateko eskumena. Autobus gidarien batzordetik adierazi dutenez, 2018a ezkerro dihardute salatzeko autobusek "egoera tamalgarria" zirkulatzen dutela, gidari eta erabiltzaileen segurtasunean "arriskua" eraginez. Batzordeko LABeko ordezkarri Fermin Iregik zehaztu duenez, "autobus flota osoa hondatzen ari da apurka-apurka, geroz eta gehiago".

Azkenaldian ugaritu egin dituzte Osalani, Aldundiari eta Lan Inspektzioari bidalitako kexak, baina erantzun argirik jaso ez dutela aipatu du. Avanza enpresako arduradunek autobus berriak ekarriko dituztela erantzuten dietela adierazi du: "Esan ziguten Gabonetarako egongo zirela batzuk; gero, martxorako... Demagun urrirako ekartzen dituztela; bada, azken egunera arte ibili beharko dugu gaur egun dauzkagun ibilgailu hauekin, mantentze egokirik egin gabe; izan ere, mekanikariek ez dute horretarako astirik, autobusak ez direlako gelditzen inoiz".

Askotariko akatsak

Dioenez, Kataideko garajetik egunero irteten diren 30 ibilgailuri baino gehiagori atzeman dizkiete akatsak; gurpiletan, balaztetan, maletategietan, klimatizazioan eta lurrin kontrakoetan, besteak beste: "Gurpilek zulu eta airea galtzen badute, legediak BLJIA sistema erabiltzea derrigorrez du; autobusek fabrikatik dakarten segurtasun neurria da, eta automatikoki presioa sartzen dio gurpilari; bada, apurtzen direnean konpondu baino gehiago, enpresak kendu egiten ditu". Gidariak alboan duten ordenagailuek ere kezka asko sortzen dizkiete: "Sarri piz-



Iregi, gurpilek VIGIA sistema falta dutela seinalatzen. H.L.

AUTOBUS BERRIAK IRITSI ARTE ZAIN EGOTEAK "ZERBAIT LARRIA GERTATZEA" ERAGIN DEZAKE

ten da *Stop* abisua, balazta-forruak higadura daukalako, aldaketa-kutxako sistemaren kontrolak akatsa duelako eta abar. Kontua da akats guztiak lehen orduan eza-batzen dituztela ordenagailu bidez, gidariok lanera irten gaitzen; baina martxan jarri eta ordu erdira berriz agertzen dira akatsak".

Dio "sarri" gertatzen dela halako kontuengatik errepide erdian geratu behar izatea, beste autobus bat etorri arte. Eta erabiltzaileak maletategira doazenean, eskumako atea apurtuta baldin badago, ezkerreko atetik hartu behar izaten dituzte euren gauzak: "Pentsa autobidean gaudela; zeharo arrisku-tsua da".

Baja eskaerak, gora

Horrek guztiak gidariak "oso errete egotea" ekarri du, "zerbait

larria gertatuko den beldur", eta baja eskaerak gora egin dute nabarmen. Avanzako arduradunak kexu dira gidarien artean laneko abinentzia areagotu egin delako, eta neurriak hartzen hasi dira: "Mutua bat kontratatu dute, Osakidetza baje txostenak eskatu eta langileei baje osagarria kenduko dietela mehatxu egin, lanera bidaltzeko berriz; enpresak ez du arazoa konpontzeko inolako borondaterik".

Erabiltzaileei eskaera

Aldundiak ere aferan lehenbait lehen esku hartu beharko lukeela uste du batzordeak, "hura delako zerbitzuaren segurtasuna bermatzeko arduradun nagusia". Kexak indar handiagoz bideratze aldera, erabiltzaileei honako dei hau egin diete: "Edozein matxura edo itogin atzeman gero, errepide erdian autobus aldaketa egin behar izanez gero, ez egin zalantzarik, bidali kexa Aldundira, zer gertatu den azalduz". Gogoratu baitute arriskua ez dela bakarrik barruan joan daitezkeen 60 bidaiariendako, baita zirkulatzen dabilzan gainontzekoendako ere.

GARAIA

IKTen alorreko Nesken Nazioarteko Eguna apirilaren 27an

Garaia Parke Teknologikoan



Garaia Parke Teknologikoak eta Mondragon Eskola Politeknikoak Euskal Herriko DBH eta batxilergoko ikasleei bideratutako jardunaldi bat antolatu dute, ZTIMak (Zientzia, Teknologia, Ingeniaritza eta Matematikak) sustatzeko eta genero arrakala digitala murrizteko helburuarekin.

Apirilaren 27an, Garaia Parke Teknologikoan
10:00-11:00
Presentzialki edo online

IKTen alorreko profesionalak beren egunerokotasuna gazteei gertutik azaldu eta esperientzia partekatzeke prest.

- **Onenpro** enpresatik, **Esti Iturbe**, software testing arloan jarduten du eta Matematikan graduatua da EHU.
- **Roganet** enpresatik, **Gorka Leceta**, software garatzailea da eta Sareko Informatika Sistemaren Administrazioako goi-maila ikasi zuen MGEpn.
- **MVEtik**, **Diego Andres**, IKT zerbitzuak eta soluzioak ematen dituzte eta bigarren mailako Informatikako Lanbide Heziketa ikasi zuen.
- **MGEptik**, **Leire Etxeberria**, ikerlari eta irakaslea, Ingeniaritza Informatikoan graduatua eta doktoretza IKTetan.

- **Huhezik**, **Ainara Bilbao**, Mondragon Unibetsitateko Huheziko KoLaborategiko langilea da. Elektronika eta Komunikaziotan doktoretza eta Automatika eta Elektronika Industrialean ingeniaritza du.

Bukatzean, Kahoot lehiaketa eta sari banaketa izango dute.

Presentzialki ekitakdira bertaratuko direnek aukera izango dute mahai-inguruaren ostean MGEpk antolatutako IKTen tailer batera joateko.



IZENA
EMAN
HEMEN





ZABALIK

JON ETXEBERRIA

Gerra 'hotz' berria

XX. mendeko Gerra Hotza, Sobietar Batasunaren eta AEBen arteko gerra ideologikoa ez ezik, teknologikoa ere izan zen –nuklearra, espaziala, armamentistika...–. Sobietar Batasunaren desegitearen ondoren, AEBak munduko superpotentzia bakar moduan gelditu ziren, eta, beraz, lehia teknologikoa ere bertan behera gelditu zen. Azken urteetan, ordea, Txina bere lekua eskatzen ari da munduan, eta, ondorioz, beste gerra teknologiko batean murgildu da mundua. Norgehiagoka horren lehen urratsak 2015ean egin ziren, Txinak mundu mailako lidergo teknologikoa lortzeko helburuarekin *Made in China* egitasmoa aditzera eman zuenean.

Amerikarrek beraien lidergo teknologiko eta militarren mehatxu moduan ikusi zuten plan hura. Horregatik, AEBetako Gobernuak gerra teknologikoa deklaratu zion Txinari, hiru neurri nagusi martxan jarritz lidergoa sendotzeko asmoz. Lehena, Txinari blokeo


BI SUPERPOTENTZIEN ARTEKO ESPIRAL BERRI BATEAN SARTZEN ARI DA MUNDUA

teknologikoa ezartzea – bereziki, mikrotxipen, adimen artifizialaren eta superkonputagailuen arloan–, txinatarrek beraien teknologia garapenetan inolako laguntzarik izan ez dezaten. Bigarrena, espioitzarako erabilia izan daitekeen edozein teknologia txinatarren erabilpena debekatzea. AEBetako Gobernuaren arabera, teknologia txinatarrean oinarritutako gailu guztiak susmagarriak izango lirarteke, Gobernuaren mesederako espioitza egiteko erabiliak izan daitezkeelako –hori izan da Huaweiren teknologia eta Tiktok baztertzeko argudioa–. Hirugarren eta azken neurri moduan, teknologia amerikarrari bultzakada nabarmena emateko asmoz, AEBetako Gobernuak dirulaguntza eta inbertsio itzelak bideratzen ari da industria amerikarrera.

Ondorio ezezagunak izan ditzakeen bi superpotentzien arteko espiral berri batean sartzen ari da mundua, eta ez dago jakiterik noiz eta nola amaituko den gerra hotz berri hori. Norgehiagoka larriagotzen ez den bitartean eta modu hotzean gertatzen den bitartean, gaitz erdi...

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



HANDIK ETA HEMENDIK

Klubak

ONINTZA ENBEITA

'BERRIA'-N ARGITARATUA

[HTTPS://LABUR.EUS/KL3HG](https://labur.eus/kl3hg)

Aita da futbol taldeko presidentea, eta semea entrenatzailea.

Jokalari zenbaitek salatu dute entrenatzaileak komentario matxistak egiten dituela haien kontra eta tratu umiliagarria ematen diela.

Orain klubak dio ez dela egia: ez dagoela salaketa ofizialik eta ez dakit zer.

Ezer berririk ez halako notiziak ikustean

asaldatzen jarraitzen dugunontzat.

Ez da kasu bakarra.

Azkena izan dadin amets egiten dugu, baina urrun gaude amesten dugun mundua lortzetik.

Halakoetan normal bihurtu denez, erasotzaileak badauka babes moduko bat.

Klubak esan du ez dela ezer txarrik gertatu, eta aitak semea defendatu du.

Herrian ez dakit ze iritziz izango duen jendeak, baina beti dago erasotzaileak zuzenean defendatu ez arren, erasotuei galderak egiten dizkien jendea.

Galdera asko.

Azkenean batek ateratzen duen ondorioa da tentela izan dela salaketa jartzeko itxaron egin duelako.

Erraza baita, mundu matxista honetan, salatzea.

Seguru, salaketa hirugarren erasoan jarri ordez lehenengoan jartzen baduzu, aitak, semeak eta espiritu santuak ere arrazoia ematen dizutela.

Bereziki nazka handia ematen didate nerabeengana kirolaren izenean hurbildu eta haien gorputzez abusatzen dutenek.

Murtziaraino joango nintzateke klubaren egoitza mailu handi batekin txikitzea, baina hurbilago ere gertatu dira.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantxabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna

Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak

Xabier Urzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano,
Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza.
Publizitatea
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X
Tirada: 18.500 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:

Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

BERBAGAI

"Historialariek bi bertsio izango dituzte aurrerantzean"

PAKO ARISTI IDAZLEA ETA KAZETARIA

Hasier Larrea DEBAGOIENA
Irunberri, 1990. Arroilaren negarra ikerketa-liburua kaleratu berri du Pako Aristik (Urrestilla, 1963), Oñatiko Gure Bazterrak fundazioak bultzatu eta babestuta eta Erein argitaletxearen eskutik. Donostian egingo dute lehen aurkezpena gaur, eta Oñatiko Santa Ana antzokian hurrengo, hilaren 26an, 19:00etan. Liburua 1990eko ekainaren 25 eta 26 artean Irunberriko (Nafarroa) arroilan gertatutakoaren berrirakurketan datza. Han, etakideak ziren Susana Arregi oñatiarra eta Jon Lizarralde andoaindarra hilda eta German Rubenach bilbotarra larri zaurituta azaldu ziren, Guardia Zibilarengandik ihes egiten saiatu ostean. Era berean, Jose Luis Hervás sarjentua ere hilda agertu zen. **Espainiako Barne Ministerioaren arabera, Arregi eta Lizarralde suizidatu egin ziren.** Suizidioaren ideia bertan behera utzi zuen Auzitegi Nazionalak handik bost urtera, froga bakar ez zegoela esanez. Guk liburuan ongi arrazoitu dugu harrapatu egin zituztela, torturatu eta erail. Gure zalantza hau da: Estatuak krimena burutu ondoren babestu beharra izan



Pako Aristi eta Enkarna Maiztegi, Susana Arregiren ama. PAKO ARISTI

zuen, ala hark agindu zuen krimena? Lehen kasuan, babeslea litzateke; bigarrenean, eragilea. Aldea handia da. **Diozuenez, ezinezkoa zirudien egia frogatzeko argiren bat aurkitzea, baina lortu duzue. Nagusiki ze faktorek, taldek eta pertsonak eragin dute hori?** Batetik, lekuko berriak aurkitu ditugu: arroilan zeuden Gasteizko ume eta begiraleak; Marian Husken kazetari herbeheretarra, Irunberriko kasua liburu

batean jasoia daukana, nederlanderaz; eta bi lekuko klabe, Xabier Goldaraz eta Juanjo Zubieta. Nafarroa komandoaren laguntzaileak ziren: haiek eraman zituzten Irunberriera, eta haiek jaso behar zituzten gertaeren biharamunean. Bestetik, sumarioa pistaz beterik dago, baina 600 orri artean gorderik zeuden, eta luparekin aztertu dugu dena goitik beheraino. **Eta ze beste faktorek zaildu dizuete egia jakiteko bidea?**

Kasu horren zailtasun nagusia da luzea izan zela, hogei ordu iraun baitzuen operazioak. Gainera, Irunberriko arroila leku opakoa da, bi tunel baino ez daude sartu-irtenak egiteko; poliziak itxi egin zituen, eta hark nahi zuen informazioa filtratu zuen, egia ezkutatu. Horma hori jo eta apurtu egin dugu osorik, egia bistan utziz. **Labur-labur, sumarioan jasotako ze deklarazio jotzen dituzte faltsutat, eta zergatik?** Sumarioan bi gauza bereizi behar dira: datuak eta kontakizunak. Kontakizun guztiak daude manipulatu, bai agenteen deklarazioak, bai atestatuak, bertsio ofiziala babesteko. Baina datuak objektiboak dira, eta horiek geurtatzen dute bertsio ofiziala. Adibidez, esan zen German Rubenach tiroketan zauritu zutela eta odol asko isuri zuela, baina sumarioak dio odol tanta bat dagoela haitz batean eta bizpahiru tanta aurrerago. Odol hori ez da Germanena, ez da belauneko zauri batena. Jon Lizarralderena da, irrist egin eta kopeta jo zuelako harrien kontra. Marian Husken herbeheretarrek German korrika ikusi zuen. Hortik ondorioztatu daiteke belauna arratsaldean zulatu ziotela, tortura prozesuan. Horrelako datu asko daude liburuan xehatuta. **Ze ibilbide izan dezake egin duzuen lanak?** Hau lehen pauso bat da. Beharrezkoa zen gure historia garaikidearen pasarterik latzenetako bat argitzea, eta

lortu dugu Corcuera, orduko Espainiako Barne ministroak, eman zuen bertsio ofizialari beste bertsio bat gaineratzea. Aurrerantzeko historialariek bi bertsio izango dituzte historia egiteko orduan, eta aztertu beharko dituzte biak. Bestalde, material guztia Aranzadi Zientzia Elkartearen esku utzi dugu, aurrerago txosten bat argitaratuko du, eta, agian, justizia egitera iritsiko dira. **Idazle bezala, nola baloratzen duzu esperientzia guztia? Lehendik ere jarraitu izan dituzu Irunberri eta horren ondoren gertatutakoak?** Niretzat erronka handia izan da. Oñatiko Gure Bazterrak fundazioa nirekin harremanetan jarri zenean ardura sentitu nuen, eta erantzun behar niola. Euskal herria maite dut, eta, ahal bada, ezin dira horrelako estatu-krimenak bertsio ofizialaren itzalpean usteltzen utzi. Hau dei bat da kazetari, idazle eta historialariei, ikertzen jarrai dezaten.

"ONGI ARRAZOITU DUGU LIZARRALDE ETA ARREGI GUARDIA ZIBILAK TORTURATU ETA ERAIL ZITUELA"

"EZIN DIRA HORRELAKO KRIMENAK BERTSIO OFIZIALAREN PEAN USTELTZEN UTZI"

HAUXE BAI JENEROA!

GARBINE UBEDA





Iaz Amaia antzokian egin behar izan zuten desfilea, eguraldiak baldintzatuta. IMANOL SORIANO

Ibai-arteren desfilean 65 modelo ariko dira bihar

Iazko arrakasta ikusita, aurten ere desfilea egingo du Ibai-arte merkatarien elkarteak, herria girotzeaz gain, udaberri-uda sasoiko produktuak herritarrei erakusteko asmoz; bihar izango da, 19:00etan, Herriko Plazan, iaz baino bi establezimendu gehiagorekin

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE Ibai-artek iaz egin zuen lehenengo moda-desfilea, eta, eguraldiak baldintzatuta Amaia antzokian egin behar izan bazuten ere, arrakastaz beterikoa izan zen eta aretoa lepo bete zen. Hori ikusita, aurten ere errepikatu egingo dute eta zapatuan izango da, apirilak 22, Herriko Plazan, 19:00etan hasita. "Iaz Bilbotik etorri ziren modelo batzuk eta berandu etorri ziren, elurraren ondorioz. Oso eguraldi txarra zegoen, eta, hala ere, arrakastatsua izan zen. Hori gure alde dugu eta espero dugu aurtengoa ere halakoa izatea", adierazi du Jon Apraizek, elkarteko kideak. Aurten ere zalantzak izan dituzte, eguraldiagatik, baina plazan egingo dute azkenean. "Oso ezberdina da kalean egin edo Amaia antzokian egin. Antzokira espresuki joan behar dute herritarrek eta, kalean eginez gero, paseoan dabilen bat ere gelditu daiteke desfilea ikusten". Hori dela eta,

Ibai-arte kideek garbi daukate Herriko Plazan egitea funtsezkoa dela. "Herriko ekintza bat da, herritarrei begira egingakoa, eta, beraz, kalean izan behar da. Horri garrantzi handia ematen diogu guk, antolatzen ditugun ekintzekin lortu nahi dugulako herriko kaleak girotzea. Helburua da arrasatearrek ikustea Ibai-arte bizirik dagoen elkarte bat dela eta gu hor gaudela edozertarako", dio Apraizek.

Modeloei dagokienez, 65 ariko dira aurten pasarelan, eta guztiak debagoiendarrak izango dira. "Ez da erraza lentzeria jantzita pasarelara irtezea, eta horregatik etorri ziren Bilbotik modelo batzuk. Aurten, hala ere, hemengoak izango dira guztiak".

UDABERRIKO ETA UDAKO PRODUKTUAK ERAKUTSIKO DITUZTE, HERRIKO PLAZA GIROTZEAZ GAIN

Horien profila ere zaindu egin dute eta askotarikoak izango dira. "Gizonezkoak faltako zitzaizkigula uste genuen eta, azkenean, hamalau izango dira. Egia da gehiagorekin orekatuago geratuko litzatekeela, baina ez da kopuru txikia".

Ibai-arte 21 establezimendu 21 establezimendutako produktuak egongo dira ikusgai zapatuko desfilean; izan ere, hamasei saltokik, hiru ile-apaindegik eta bi estetika-zentrok hartuko dute parte: Allure Estilistak, Angela Estetika Zentroa, Bea Lentzeria, E&G, Elkorro Osagarriak, Ennea, Intersport Loramendi, Itxaso, Josle, Kapikua, Kili-Kolo, Lirain, Markiegi, Oskarbi, Peluqueria Xarma, Portaloi Optika, Resusta Karrikiri, Sikol, Tipi-Tapa eta Troko. Iaz baino bi gehiago dira, iaz hemeretzi establezimendu izan baitziren.

Artgazki elkarteko kideen laguntza ere izango du Ibai-artek, argazkiak ateratzeko.

400 proposamenetik gora jaso ditu EAJk entzute-ariketan

Maria Ubarretxenak eta Eider Mendozak eman zuten horren berri, astelehenean egindako prentsaurrekoan

E.A.B. ARRASATE

Gipuzkoako diputatu nagusi izateko hautagai Eider Mendozarekin batera eman du Arrasateko EAJk proposamenen berri, eta honako hauek aipatu ditu Maria Ubarretxena alkategaiak: "Tokiko merkataritza sustatzea; txakurren gorotzekiko sentsibilizazio kanpaina; kirol instalazio berriak; TAOren baitan koloreak erraztea; zaborrei dagokienez, txartel gabe ireki ahal izatea edukiontzia; terrazen gaineko ordenantza bat; enplegua bultzatzea, bere-

ziki gazteena; autobus geltoki estali bat, droga-mendekotasunaren arloan lanean jarraitzea; artxibo historikoa Arrasatera ekartzea; adineko pertsonen gaineko hainbat eskaera; Udaltzaingoaren presentzia areagotzea herrian; eta ibilgailuen abiadura kontrolatzea herrigunean.

Era berean, hauteskunde bulegoa ireki dute, Iturriotz kaleko 21. zenbakian. Astelehenean, eguaztenetan eta egubakoitzetan egongo da irekita, 17:00etatik 19:00etara, posta bidezko botoa eman ahal izateko.

Hizkuntza eskubideen aldeko protokoloa aurkeztuko dute

Apirilaren 26an, eguaztena, *Euskaldunon hizkuntza eskubideen aldeko Arrasateko protokoloa* aurkeztuko dute Kulturateko Loramendi gelan, 19:00etan. Horren helburua da Arrasaten euskararen normalizazioaren eta erabileraren alde egitea, "euskaldunon hizkuntza eskubideak oinarritzat hartuta, horien inguruko kontzientziazioa, aldarrikapena eta mobilizazioa sustatuz", diote egileek. AEDko bazkideek egindako mintegi batetik sortu da protokoloa eta honako eragile hauek ari dira elkarlanean: AED elkartea, Arrasateko EHE, Debagoieneko AEK, Ekin Emakumeak Elkartea eta Txatxilipurdi Elkartea.

Union Cerrajerako arku konponduko dute datozen asteetan

Korrosio-puntuak hauteman dituzte; batez ere, kanpoko portikoetan. "Barruko arkupea hobeto kontserbatuta dago, baina korrosio-puntu batzuk ditu. Beraz, narriadura progresiboa saihesteko, egitura konpondu behar da", diote Udaletik. Obrak iraun bitartean, inguruko espalo bat itxita egongo da. Lehenik, ibairantz doana itxiko dute eta Zerrajera kaleko ibilgailuen trafikoa ere eragingo dio noizean behin. Errei bat itxiko dute, eta semaforo bidez txandakako trafikoa bideratu. Trabajos Especiales ZUT SA enpresak egingo ditu lanak 30.136 eurokoko aurrekontuarekin -BEZa barne-, bost bat astez.

Josle, komunikatzeko zailtasunak dituztenekin bat

Josle dendak bat egin du komunikazio-zailtasunak dituzten pertsonak gizartean barneratzea bideratzen duen ekimen batekin. Autismoa duten haurren guraso talde batek hasi du ekimena, "adimen-urritasuna dutenei laguntzeko eta bizitza errazteko". Hala, dendan irudiak jarritz, zailtasun horiek dituztenak identifikatzen dituzte.



Ereiaroko kideak bueltan dira euren produktuekin

Aita Menni Ospitalearen eta Ekoudalatzen elkarlanetik sortutako Ereiaro proiektu integratzaileko kideak itzuli dira bertako produktuen azokara; 2017ko martxoan sortu zuten proiektua, baina, pandemiaren ondorioz, utzi egin zioten azokara joateari

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE Hileko hirugarren zapatuan egin ohi dute bertako produktuen azoka, eta, apirilekoa ohi baino tristeagoa eta apalagoa izan bada ere, berritasun nabarmen bat izan du; izan ere, Aita Menni Ospitalearen eta Ekoudalatzen elkarlanetik sortutako Ereiaro proiektu integratzaileko kideak azokara itzuli dira, hiru urteren ostean. 2017ko martxoan sortu zuten proiektua, baina, pandemiaren ondorioz, joateari utzi zioten, eta Pazko Asteko zapatua aukeratu zuten Seber Altube plazara itzultzeko.

Askotariko produktuak dituzte Ereiaroko kideek baratzezaintza baliatzen dute gaixotasun mentala eta desgaitasun intelektuala duten Aita Menniko 70 pazienteen euren errehabilitazio prozesuak garatzeko. Ekoudalatxeko profesionalek gidatuta, produktu ekologikoak ereiten dituzte; landatu, jaso eta saldu

arteko prozesuan parte aktibo dira. Bittor Zubelzu da Ereiaroko kideetako bat, eta, hark azaldu duenez, ortuak emandako askotariko produktuak eraman zituzten azokara joan den zapatuan. "Porruak, urazak, zerbak eta abar. Gainera, bestelako produktuak landatzen ere ari gara orain. Izan ere, oraintxe da sasoi landaketak egiteko, eta talde handia daukagu horretarako", nabarmendu du.

Baratzeko produktuez gain, halaber, badituzte bestelakoak ere; artisautzan oinarritutakoak, hain zuzen. "Aromatikoak, koardernoak, panpinak, orri-markatzaileak, poltsak eta abar", azaldu du Zubelzuek.

Aurrerantzean ere bai

Adierazi dutenez, geratzeko itzuli dira, eta, beraz, aurrerantzeko azoketan ere Seber Altube plazara aterako dituzte haien produktuak. Ondo bidean, maiztaren 20an izango da hurrena.



Ereiaro proiektuko hainbat ordezkari, baserritarren azokan. IMANOL SORIANO

32. urteurrena ospatuko du asteburuan AGAKOK

Gaur, bertso afari autogestionatua egingo dute, 21:00etan, gaztetxean. Peru Abarrategi, Saioa Alkaiza, Aitor Bizkarra eta Sarai Robles ariko dira bertsoan, Olatz Zuazubiskarrek jarritako gaiei erantzunez. Bihar, 12:00etan, Berlingo okupazio mugimenduz hitzaldia egingo du Dirk Morenweiserrek -gaztelaraz-. Ondoren, 14:30ean, herri bazkaria izango da; 19:00etan, Broken Brothers Bass Band kalez kale ariko da, Taupatik hasita. 23:00etan, Zaunka eta Occhi Fi Farfalla taldeen kontzertuez gozatzeko aukera egongo da. Domekan, garbiketa kolektiboa egingo dute, 18:00etan hasita, *Herriak zikindu*, *herriak garbitu* lelopean.

OHARRAK

Altamirako jaiak

Gaur eta bihar ospatuko dituzte (Egitarau osoa, Goiena.eus-en).

Ludoteka ibiltaria

Erguingo Itxaropena plazan egongo da datozen lau zapatuetan, 11:30etik 13:30era.

Jose Antonio Villar

Escuchando a mi alma liburua aurkeztuko du gaur, Kulturateko Jokin Zaitegi gelan, 18:30ean.

Rakel Gamito

Internet, pantailak, bideojokoak, sare sozialak... onurak eta gatazkak hitzaldia egingo du apirilaren 26an, 18:00etan, Kulturateko areto nagusian.



Apirilak
21
ostirala

Apirilak
22
larunbata

GUZTIAREN BEZ^a

oparituko dizugu

bitxigintza izan ezik.

*EROSKI clubeko bazkidea bazara, EROSKI Supermerkatuetan egindako 60 €-tik gorako erosketetan, eta EROSKI Hipermerkatuetan egindako 90 €-tik gorako erosketetan, erosketaren BEZari dagokion zerbatekoa sartuko dizugu zure EROSKI club bartelean, EROSKI club bartelean sar dartekeen gehieneko zerbatekoa: 250 €. Kontsultatu gainerako baldintzak zure ohiko dendan. Baita supermercado.eroski.es/eu webgunean ere.

EROSKI

ARRASATE

Musakola z/g ARRASATE,
Tel.: 943 71 10 30

"Errugbian gaztetatik hasteak abantailak ditu"

ANE RINCON ART-KO JOKALARIA

Arrasateko jokalaria Espainiako selekzioarekin astebetean egon da Valentzian egonaldia egiten, uztailen Pragan jokatu duten Europako Txapelketara begira

Xabier Urzelai ARRASATE

Ane Rinconek (Arrasate, 2006) 18 urtez azpiko Espainiako selekzioarekin astebeteko lan-saioa egin du Valentzian. Hautatzailearen mezuak ezustean harriatu zuen, nahiz eta iaz ere egon zen, Valladoliden, halako *training camp* edo egonaldi batean. Orain, baina, uztailaren 14an eta 15ean Pragan jokatu duten Europako Txapelketarako txartelak daude jokoan.

Zer moduzko egonaldia izan da?

Esperientzia ona izan da, azken batean, zure ondoan oso maila oneko jokalaria izaten dituzulako. Zoritxarrez, bigarren entrenamendu saioan plakaketa bat egiterakoan, taldekide batek ukondoarekin ezipainean jo eta hiru puntu eman behar izan zizkidaten. Eta handik aurrerako entrenamenduetan ezin izan nuen kontaktuzko ariketetan parte hartu. Halako egonaldiak oso emankorrak izaten dira, baina, astebete pasa eta gero, etxerako bidea ere gustura hartzen dugu [Barre].

Hautatzaileak nondik nora egiten dizue jokalariei jarraipena? Zuen partiduetara joaten dira?

Egia esan, ni ere ezustean harriatu ninduen hautatzaileak bidalitako mezuak. Ez dakit zelan izaten duen gure berri: entrenatzaileen bidez, Euskadiko selekzioaren ere parte hartzen dudalako...

Baina ez da izan lehenengo aldia...

Ez; azaroan ere Valladoliden lau egun egin genituen Espainiako selekzioarekin entrenatzen.

Uztailen Europako Txapelketa izango da. Espainiako selekzioarekin egoteko itxaropenik bai?

Egia esan, ez dut uste deituko nautenik. Azken batean, 18 urtez azpiko selekzioa da, eta nik 17 urte ditut. Hau da, ni baino urtebete nagusiagoak diren jokalaria izan ditut egonaldian ondoan, eta haiek aukera han-



Ane Rincon, Aste Santuan Valentzian egin duen egonaldian. ART

"URTEBETE NAGUSIAGOAK AUKERA GEHIAGO DUTE PRAGARA JOATEKO"

diagoa dute txapelketara joateko. Ikusiko dugu.

Badakizue noiz jasoko duzuen deia?

Ez; zain egon behar...

Zain egon, eta sasoiaren amaitu. Eta ligak amaitu diren honetan...

Bai, baina orain hasiko ditugu Euskadiko selekzioarekin entrenamendu saioak. Haizea Zabala taldekidea eta biok ibiliko gara, ekainean Valentzian izango den txapelketa prestatzeko helburuarekin. Baina entrenamendu saioetan euskal selekzioarekin egoteak ez du esan gura txapelketan izango garenik; aurrerago jakingo dugu hori.

Arrasateko taldearen lehenengo urtea egin duzu seniorrekin. Zer moduz?

Oso esperientzia ona izan da nagusiekin batera taldean egotea, eta, Eibarko taldekideekin egon garenez, ederto. Entrenamendu-saio batzuetan goiko kategorietako jokalaria izan ditugu

ondoan, eta halakoengandik asko ikasten da.

laz, gazte mailan, mutilekin batera talde mistoak osatzen zenituzten. Igarri duzu alderik senior mailara pasa eta emakumezkoekin bakarrik jarduterakoan?

Ez dut uste gogortasunean edo abiaduran alde handirik igarri dudarik. Azken batean, gazte mailako mutilek gorpuzkera handia izaten dute, eta ohituta geunden eurekin jokatzera.

Oso gazte hasi zinen Arrasateko harrobien errugbian jokatzeko...

Bai, duela zazpi urte hasi nintzen.

Zelakoak izan ziren hastapen haiek?

Gogoan dut multikirolean geundela bi astez-edo errugbia egitea egokitu zitzaigula, eta kirol hura gertutik ezagutzeko aukera eman zidan. Ordura arte egindako kirol jarduerekin alderatuta errugbia izan zen gehien gustatu zitzaidana, eta halaxe hasi ginen lagun bat eta biok.

Gazte hasteak baditu abantailak?

Bai, zalantza barik. Kirol jarduera hori gaztetatik praktikatuta errazagoa da gero ondo ibiltzea. Araudia hobeto ezagutzen da eta jokoa ere hobeto menperatzen da.



Duela hilabete, Muren eta Valladoliden arteko partidua. GOIENA

Zapatuan agurtuko du MUK liga, etxeko zaleen aurrean, Iturripen

Arrasateko taldeak beherakada izan du, eta igoera faserako sailkatzeko aukerak galdu egin ziren

X.U ARRASATE

Ezohiko ordutegian agurtuko du Mondragon Unibertsitateak liga txapelketa, Barrocalen mutilek zapatu arratsaldean hartuko dute-eta (19:00, Iturripen) bederatzigarren postuan dagoen Grupo Inmapa Filipenses. Bi taldeak ondo-ondoan daude sailkapenean, eta ligan erdialdeko postuetan egoteak ematen duen lasaitasunarekin egingo dute kantxara salto; alegia, ez dagoela askorik jokoan.

Etxekoek azken urteotan ez dute halako denboraldi amaierarik izan, igoera faserako sail-

katzeko lehian ibili izan dira eta. Baina otsaitetik hona egingo bide gorabeheratsuak –zortzi partidutatik sei porrot batu dituzte– errotik moztu du gora begira egoteko esperantza.

Neskak, kanpoan

Emakumezkoen nazional mailako Mondragon Unibertsitateari hiru jardunaldi geratzen zaizkio liga amaitzeko, eta bihar Iruñean jokatu dute (20:00). Hain zuzen, San Ignacio kontrario zuzena da sailkapenean; bi puntu gehiago dituen taldea da Iruñekoa.



SAIOA

Carlos Sanchez, beterano onena

Apiril hasieran jokatu zuten Astilleroko saria, Kantabrian. Arrasateko Saioa taldeak txapelketara aurkeztu ziren Irati Izurrategi, Xavier Varteniuc, Danel Izurrategi, Iosu Madinabeitia eta Carlos Sanchez. Eta, hain zuzen, azken hori nabarmendu zen beterano mailan, txapelketa irabazita. Hurrengo hitzordua Valentzian egingo duten Espainiako Kyokushinkai Txapelketan izango dute.

0 Km-ko eta aukerako
AUTOEN I. AZOKA



Arrasate

Apirilak 20, 21 eta 22 10:00etatik 20:00etara



Ford FIESTA
13.900 €-tik aurrera



Hyundai KONA
16.490 €-tik aurrera



Ford ECOSPORT
13.900 €-tik aurrera



Hyundai TUCSON
23.990 €-tik aurrera



Ford TOURNEO CONNECT
26.900 €-tik aurrera



Ford KUGA
20.900 €-tik aurrera

San Andres, 6 · 20500 Arrasate

📞 673 802 884

**GRUPO
EASO
MOTOR**

www.grupoeasomotor.com



Easo Motor



HYUNDAI
Oarso Car

Literaturaz gozatzeko egunak izango dira

Liburuaren Egunaren harira, Arrasateko Bibliotekak 'Ipuina engainua da' irakurraldi musikatua egingo du gaur, 19:00etan, Kulturaten, doan. Apirilaren 26an, eguaztena, 'Musika familian' tailerra egingo dute, Santa Marinako bibliotekan

Arantzazu Ezkibel Galdos ARRASATE Etzi, domeka, Liburuaren Eguna da, eta Arrasateko Udal Bibliotekak askotariko ekintzak antolatu ditu egun berezi hori ospatzeko. Liburuak lehen lerroa eroan eta literaturaz beste modu batera gozatzeko aukera ematen duten ekitaldiak izango dira.

Atzo, eguena, umeei zuzendutako txotxongilo emanaldia egin zuten Kulturaten. Gaur, aldiz, helduek irakurraldi musikatua izango dute Kulturaten bertan. *Ipuina engainua da* izenarekin, Iban Zaldua idazlea eta Miren Narbaiza musikaria igoko dira taula gainera, 19:00etan.

'Ipuina engainua da'

Iban Zaldua idazle donostiarraren azken liburuak ematen dio izenburua ikuskizunari. Ipuin edo pasarte horiei Miren Narbaizak jartzen die musika. Horrelako eskaintzak "ondo" ikusten ditu Zalduak, literatura beste modu batera gozatzeko aukera ematen dutela iritzita: "Industriaren parte izanda, eskaintza horiek beti datoz ondo. Ematen du literatura bigarren plano baten geratu dela, eta literatura bultzatzeko ekitaldiak egitea ondo dago. Bestalde, horrelako egunak ospatu beharrak

adierazten du badagoela ahulezia bat gure munduan". Gaineratu du "pozarren" dagoela agertokian Miren Narbaizarekin partekatzeagatik.

Nagusiendako ipuinak dira *Ipuina engainua da* liburuan Zalduak jaso dituenak; eta, hain zuzen, ipuin horietako bat da, *Festibala* izenekoa,

Arrasateko agertokira eroango dutena. Miren Narbaizak dio eroso sentitu dela, ipuinak berak jasotzen duena haren "eremukoa" delako, musikarekin oso erlazonatuta dagoelako.

Musikari eibartarra: "Gustura nago ekitaldiarekin. Beti dator ondo zure ohiko *planetatik* irten

Aran Santamariaren erakusketa

Gaur inauguratuko dute eta maiatzaren 19ra arte egongo da zabalik Aran Santamaria artista zumaiarraren *Hostoz hosto erantzi* erakusketa Kulturaten –informazio gehiago, *Puntua* aldizkarian–. Arrasateko Udal Bibliotekak antolatu du, Liburuaren Egunaren harira. Santamaria: "Pandemia garaian sortutako erakusketa bi nahastuko ditut: batetik, *Hostoz hosto erantzi*; eta, bestetik, *Zenbat jende kabitzen da bihotz batean?* Pandemiarekin erlazio zuzena du azken horrek; eta, era berean, erreferentzia egiten dio beste artista batzuetatik zenbat daukadan nik".

Liburuekin egiten du lan Santamariak, baina ez da idazlea. Alde batera utzitako liburuak berreskuratzen ditu, eta *pop-up* teknikari esker bigarren bizitza bat ematen die. Liburu zaharrei dien maitasunetik sortu zen ideia, liburu beste bizitza bat emateko ideia. Erakusketan Julio Cortazarri buruzko pieza bat dago; hura da abiapuntua, eta ondoren azaltzen du zer sentitzen duen Cortazarrekin. Horrez gain, Joseba Sarrionaindiaren *Ez gara gure baitakoak* liburuaren pieza bat dago. Poema txiki batzuk, braillez idatzita. Nabarmendu du erakusketari titulua ematen dion *Lili bat hartu* kantua ere braillez dagoela. Liburuez gain, bestelako materiala ere erabiltzen du Santamariak erakusketan; adibidez, erroskillak, erroskillaren masarekin egindako letrak.



Miren Narbaiza eta Iban Zaldua. PAMPLONAESCULTURA.ES

eta beste gauza eta saltsa batzuetan muturra sartzea".

Musikarekin erlazioa

Festibala izeneko ipuina da irakurraldiaren oinarria. Musika-ekin erlazio zuzena du; eta ez hori bakarrik: ipuineko pertsonaietako bat Narbaiza bera da. "Ipuin horrek ematen du aukera Mirenen bertsioak sartzeko", dio Zalduak. Ikuskizunak, baina, eboluzionatu egin duela dio idazleak, eta ipuin berri bat sortu dutela, liburuan ez dagoena: hain zuzen, Narbaizaren *Lautada* azken diskoan oinarrituta.

Arteak hainbat norabide izan ditzakeela nabarmendu du Narbaizak: "Diskoa entzun eta hor inspiratuta ipuina sortu du... Izan ere, ikusten da nola artistek topatzen duten amankomunean dutena".

Donostian, Bilbon, Gasteizen... egin dituzte orain arteko irakurraldi musikatuak. Publikoari dagokionez, askotariko ikusle moten aurrean egon direla dio Zalduak: "Donostia nire jaioterria da, eta, agian, gertukoagoa dudana

jendea etorri zen ikuskizunera; Bilbon literatur jaialdi baten testuinguruan izan zen, handiago zen dimentsioa, eta halako ikuskizunetara etortzen ez den jendea izan genuen agertokiaren aurrean".

Beste ekitaldi batzuk

Liburuaren Egunaren eskaintza osatzeko, apirilaren 26an, eguaztena, *Musika familian* tailerra egingo dute. 2-3 urteko umeei zuzendutako eskaintza izango da eta tailerra Susana Cencillok egingo du. Santa Marina auzoko haur bibliotekan izango da, 17:30ean. Aurrez izena eman beharko da, bibliotekara deituta.

Susana Cencillo akordeoilaria da. Musikarekiko maitasuna modu dibertigarri eta ludikoan sortzea du xede, eta, era berean,

'FESTIBALA' IPUINA DA IKUSKIZUNAREN OINARRIA; MUSIKAREKIN ERLAZIO ZUZENA DU

Inoizko parte-hartzerik handiena literatur lehiaketan

AEDk 36. aldiz antolatu du sariketa; 388 lan aurkeztu dituzte. LHn izan da parte-hartze handiena

A.E.G. ARRASATE

AED elkarteak irakurzaletasuna eta euskarazko sorkuntza sustatzeko asmoz antolatzen duen Arrasate literatur lehiaketako parte-hartzea gora egiten ari da azkeneko urteetan;

eta aurtengo datuek ere hori erakusten dute. Lehiaketaren 36. edizioan 388 lan aurkeztu dituzte; antolatzaileen esanetan, "inoizko parte-hartzerik handiena". Lehen Hezkuntzako 5. mailatik DBHko 2. mailara bi-

tarteko gaztetxoek hiru atal izan dituzte aukeran: narrazioa, ilustrazioa eta bertso-paperak. DBHko 3. mailatik batxilergoko bigarren ikasturtera arteko gazteek, aldiz, mikro-ipuina, poesia eta komikia.

Parte-hartzea Lehen Hezkuntzako zirkloan izan da handiagoa. "Halere, aurreko edizioekin alderatuta, nagusitxoeren lan kopuruak gora egin du. DBH eta batxilergo artean proposatzen diren lehiaketa guztietan igo da parte-hartzea".

Oinarrizko txalaparta ikastaroa egingo du Ttakunek, maiatzean

30. urteurrena ospatzen dabilta Ttakun txalaparta taldean. Gaur, Txotxparta izango dute Aramaioko Iturrieta sagardotegian. Gainera, txalaparta ikastaroa antolatu dute maiatzarako; zehazki, 6an, 13an eta 20an egingo dute, Kulturolan. 11:00etatik 13:00etara izango da, 15 euroren truke –ikasleek eta langabeek 10 euro–.

Zeramika prozesuak ezagutzeko aukera, udan eta udaberrian

Loixe taldeak zeramika ikastaroak antolatu ditu. Maiatzaren 2tik ekainaren 15 era izango dira. Bi maila egongo dira: hastapena eta trebatzea, eta maila bakoitzak bi ordutegi izango ditu aukeran. Informazio gehiago nahi duenak 685 79 61 27 telefonora dei dezala. Uztailaren 3tik 13ra hastapen mailako ikastaro trinkoa ere emango dute.

"Hilekoa pribatutik publikora atera behar da"

UXUE URZELAI ANTROPOLOGOA, ETA GENEROAN ETA FEMINISMOAN ADITUA
'Hilekoaren zikloa eta oihalezko konpresen sorkuntza' tailerra egingo du Uxue Urzelaik Sastiñan. Plaza mugatuak dira; interesa duenak, deitu: 688 69 57 63

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO
Lorabari Astearen barruan, maiatzaren 11n hilekoari buruzko tailerra egingo du Uxue Urzelaik (Ordizia, 1.988). Oihalezko konpresak eta diskoak egiten ditu; hain zuzen, oihalezko konpresa bat egiteko aukera izango du parte-hartzaile bakoitzak tailerrean.

Gizarteko tabuak eta sinismen faltsuak hautsiko dituzu tailerrean?

Nire proiektua da Urzelaik proiektua. Hilekoaren zikloaren inguruan eta amatasunaren akonpainamenduan aritzen naiz. Izan ere, ikusi nuen bazegoela beharra hilekoaren zikloaren inguruan hitz egiteko; oihalezko konpresak egiten ditut, eta horiek erostera zetorrenaren galderak ziren orain dela 20 urte nik nituen galderak. Tabu eta sinismen faltsu asko daude, eta nerabeek mezu horiek jasotzen dituzte.

Hilekoaren zikloa. Zer azaltzen duzu?

Nabarmendu nahi dudana da hilekoa ez dela bakarrik odola botatzea; ziklo baten baitan gertatzen den guztia da. Gainera, ez du erreproduzioarekin bakarrik zerikusia; osasuna da eta gorputzeko atal guztiekin du zerikusia. Ikasketaz antropologoa naiz, eta generoan eta feminismoan aditua; bada, antropologia ikuspegitik ikusten nuen hilekoaren kudeaketak erantzuten diola sistema patriarkal eta matxista bati. Hilekoa bizitzeko dugun modua da; zikina da, usaina du, hilekoarekin sexua bai edo ez dikoikia... Sistema biomedikoa sinismen horiek sustengatzen duen instituzioa da. Esan daitere bazterrak nahastera natorrela.

Diuzu garai bateko galderak errepikatzen direla. Zeintzuk, adibidez?

Galderak dira, usteak... Hilekoa zerbait zikina dela uste izatea, adibidez. Bestalde, min eman behar duela sinistea, eta horren



Uxue Urzelaik, eskuetan konpresak dituela. MARIA DE JUAN

"TABU ETA SINISMEN FALTSU ASKO DAUDE ETA NERABEEK MEZU HORIEK JASOTZEN DITUZTE"

aurrean alternatiba bakarra farmakoak dira. Odola erakusteari lotsa ere badago; eta gaur egungo gizartean odola ikustera oso ohituta gaude, baina biolentziari lotutako odola. Emakumeari lotutako odola, aldiz, gorde egin nahi da.

Zein da tailerraren helburua?

Hilekoa bizi dugu zerbait intimoa bezala, eta nahi dudana da toki pribatutik atera eta leku publikora eraman.

Oihalezko konpresak egingo dituzte?

Bai, hala da. Parte-hartzaile bakoitzak oihalezko konpresa bat egingo du eta etxera eramateko aukera izango du. Nik eramango ditut oihalak eta azalduko dut nolako oihalak erabiltzen ditudan. Horrez gain, odola jasotzeko dauden metodoak ikusiko ditugu, eta haiek duten ondorio ekologikoak, ekonomikoak, sozialak... Josteko makina

bi eramango ditut eta haiekin egingo ditugu konpresak; hala ere, tailerrera etorriko den norbaitek makina baldin badauka, ekar dezala.

Gero eta gehiagok erabiltzen dituzte oihalezko konpresak?

Bai, gero eta gehiago erabiltzen dira. Kontua da kapitalismoak dena hartzen duela eta gaur egun horrelako produktuak ere eskaintzen dituztela saltoki handiek.

Hilekoa duten emakumeei zuzendutako tailerra da?

Orain arte etorri izan dira zisgenero emakumeak. Egia da etorri izan direla oraindik hilekorik ez duten gaztetxoak, euren amekin; eta esperientzia oso polita izaten da.

Nabaritzen duzu alderik 20 urteko neskek edo 40 urtekoek hilekoari buruz dituzten sinismenen artean?

Esango nuke orokorrean berdin pentsatzen dutela. Lotsa ematen digu hilekoa dugula esateak, edo odola erakustea, eta zikina dela uste dugu. Baina egia da badaudela 30 bat urte inguruko emakumeak hilekoari buruz gehiago ikasi dutenak eta esaten zaigun hori baino harago mundua dagoela uste dutenak.



NIRE USTEZ

BEÑAT ARREGI

Harea mugikorretan

Aurrera joan nahi eta ezin. Zenbat eta gehiago mugitu, are eta okerrago. Ondora eramaten du harea mugikorrek, ito arte.

Hareatzen gerriraino sartuta gaude eta jada modu desesperatuan ari gara edozeri heldu nahian egoera honetatik irten ahal izateko. Honen adibide dira Aramaion, Euskal Herrian eta munduan garatzen ari diren landa eta naturguneak industrializatzeko proiektuak. Gizarteak dituen eta izango dituen arazoak konponbide omen dira. Baina kontuz! Gehiago mugituz gero hondorago sartuko baikara, eta azkarrago, gainera.

Analogia honekin zera esan nahi dut, harrizko oinarri sendo gabe ezin dela ezer eraiki, ezin garela ginetik lasai ibili eta gaur egungo sistema harea oso mugikorra da. Beraz goazen hemendik irten eta lurzoru egonkor baten bila, bertan ito aurretik. Bidea zaila da, baina helburua argia: sistema irauli behar da!

EAJk eta PSE-EEK aurkeztu dituzte Aramaioko hautagaiak

Alberto Amenabar otxandiarra izango da zerrendaburu jeltzalea eta Daniel Solana gasteiztarra sozialista

A.E.G. ARAMAIO

Maiatzaren 28ko udal hauteskundeetarako zerrendak ixteko egun gutxi geratzen dira. Azken egunotan bada ere, EAJk eta PSE-EEK adierazi dute zeintzuk izango diren euren zerrendaburuak Aramaion. EAJren Aramaioko hautagaia Alberto Amenabar otxandiarra izango da, gaur egun Arabako foru suhiltzaileen zuzendari-kudeatzailea dena. PSE-EEko zerrendaburua, aldiz, Daniel Solana gasteiztarra, Basquetur erakunde publikoko zuzendaria dena.

Alderdi Popularrak ere esan du aurkeztuko duela zerrenda Aramaion, nahiz eta oraindik ez duen aurreratu nor izango den zerrendaburua; eta EH Bilduk ere oraindik lotu barik du maiatzeko hauteskundeetara aurkeztuko duen zerrenda osoa. Kontuak kontu, argi dagoen bakarra da ekainetik aurrera alkate berria izango duela Aramaiok; izan ere, egungo alkate Lierni Altunak esan du ez dela berriro ere aurkeztuko. Bi agintaldi egin ditu alkate eta beste bat zinegotzi.

Bigarren eskuko azokarako materiala jasotzen hasi dira

Lorabari Astearen barruan, bigarren eskuko azoka egingo dute maiatzaren 13an, eta dagoeneko hasi dira materiala jasotzen. Ekonomatua bilduko dute: martitzen eta eguen arratsaldeetan eta zapatu goizetan. Adin eta neurri guztietako arropak, umeendako patineteak, bizikletak, motxilak... eta etxerako tresnak jasoko dituzte.

Urteko batzarra egingo dute gaur Itur-Zurikoek

Itur-Zuri emakume taldeak urteko batzarra egingo du gaur, Aramaioko kultura etxean, 17:00etan. Horrez gain, bihar, zapatua, kantu afaria egingo dute emakumeek, Añai tabernan. Kantuek lagunduta bazkalorru ederra pasatzea izango dute helburu elkarteko kideek. Bazkaria 28 euro kostako da, eta aurrez izena eman beharra zegoen.



Ekain Andres, bidaiaren une batean, Asiako bi lagunekin. ARGAZKIAK: ANDRES IGLESIAS FAMILIA



Kudrillakoekin batera, San Migel jaietan.

Hutsune handia utzi duen Ekain Andres agurtuko dute bihar

Vietnamen hil zen 25 urteko gaztea gogoan, agur-ekitaldia antolatu dute zaturako; Ojala Zelain izango da, 17:00etan, eta musikak, dantzak, bertsoek eta argazkiek bat egingo dute han, senideen eta lagunuen kontakizunekin batera

Mirari Altube ARETXABALETA

Martitzenean iritsi ziren Ekain Andres Iglesiasen errautsak Vietnamdik, eta bihar, zapatua, hura agurtzeko ekitaldia egingo dute Ojala Zelain. Senideek eta lagunak dihardute hori antolatzen, AZ Gaubelak-ek gidatuta, eta edonori irekia izango da; baldintza bakarra da familiari gordetako lekua errespetatzea eta hara oinez igotzea, ahal den

neurrian. "Ekainek merezi du halako agur-omenaldi bat, hark zuen izaera horregatik", adierazi dute senideek; eta hainbatek hartuko dute parte: Aramaioko The Clayton taldeak abesti batzuk joko ditu eta Peru Abarrategik bertso bat egin du; *El Bille* musikariak ere prestatu du abestiren bat –senidea da– eta Ointxe saskibaloi klubeko lagunak ere egingo diote keinuren bat. Horrez

gain, senideek, kudrillakoek eta bidaiaren ezagututako hainbat lagunak harekin izandako bizi-penen kontakizunak egingo dituzte.

Bidaiarekin "gozatzen"

Urtarrilaren 20an abiatu zen Aretxabaletatik. Ibone arreba-rekin joatea zen asmoa, hasiera batean, Asiara zihoalako praktikak egitera azken hori. Baina

atzeratu egin zizkioten praktika horiek arrebari, eta bakarrik joatea erabaki zuen. "Beti izan zuen gustuko bidaiatzea eta jendea ezagutzea", adierazi dute arreba eta Elena Iglesias amak.

Greziar, Atenasen egin zituen egun batzuk, eta handik Asiara egin zuen salto: Singapurra, Balira, Thailandiara eta Vietnamera. Egunero zeuden hartu-ema-tean harekin: "Egunean bizitakoa kontatzen zigun eta milaka argazki bidali zizkigun", dio amak, eta arreba berretsi egin du: "Egunero igotzen zuen historiaren bat Instagramera; eguneko anekdotaren bat kontatzen zuen; hortaz, bidaiako kontu guztien jakitun geunden".

Bakarrik abiatu arren beti izan zuela alboan norbait azaldu dute: "Bakarrik egon zen egun bakarrean, goiz erdian, Realaren kamiseta jantzi zuela esan zigun, eta Lekeitioko bizilagun batekin elkartu zela. Lekeitioko harekin hamabi egun egin zituen gero". Fidel Andres aitak gaineratu du lagun mordoa egin zituela, eta

askorekin, gainera, harreman estua izan zuela: "Bidaiaren elkar-tu den askoren mezuak jaso ditugu. Eta horietako batzuk zapatuko agur ekitaldira ere etorriko dira; Sevillako lagunak, esaterako. Harekin bizitakoaren berri emango dute. Eivissan bizi diren errumaniar batzuk ere berria jakindakoan segituan jarri ziren gurekin harreman-tan eta laguntza eskaini ziguten edozertarako. Apenas hamar eguneko harremana izan zuten, baina Ekainek arrasto handia uzten zuen".

Motor istripua

Heriotzaren berri emateko, Vietnamdik deitu ziren Espainiako enbaxadako kontsulak apirilaren 7an. Motor istripua izan zuela esan zien; bidegurutze batean furgoneta bat gurutzatu zitzaion eta Aretxabaletako gazteak ez zuen ezer egiterik izan. "Bideo batean ere badago jasota hori", dio aitak. Ondorengo prozesua oso korapilatsua izan dela gaineratu du. Fidel Andresen anaia



RPS: 83/19





INPLANTOLOGIAKO ESPEZIALISTAK 3D TEKNOLOGIA BERRIENAREKIN

DURANA HORTZ KLINIKAN BERRIKUNTZAREN ALDEKO APUSTUA EGITEN DUGU.

DURANA KALEA 22 • ARETXABALETA • TEL.: 943 79 93 55

bat joan zen Vietnamera, prozesua bizkortzeko eta bertatik bertara jarraitzeko: "Gorpua ezagutu behar izan zuen, poliziarekin egon eta kontsularekin eta kontsulordearekin elkartu, besteak beste. Gogorra izan zen harendako ere. Baina hara joan izanak bizkortu egin du prozesu guztia".

Ildo horretatik, amak argitu gura izan du kanpoko laguntza handia izan dutela esan arren senideek egin dituztela gestioak: "Izugarrizko lana egin dute hara joan den Fidelen anaiak eta hemendik nire anaia batek; pisu osoa hartu dute eurek. Haiez gain, Espainiako enbaxadako kontsula eta kontsulordea ere gaiaren gainean egon dira une oro. Eta Aretxabaletako alkatearekin ere eskertuta gaude; lehenbailehen behar genituen dokumentuak lortzen lagundu digu, Aste Santuko egunetan itxita zegoelako erregistroa".

Aseguru-etxearekin, ostera, izan dute gorabeherarik: "Lagun Arok esan zigun ez zuela ezer estaltzen. Eskerrak Iati aseguru-etxearekin aseguruia egin geniola; hark bere gain hartu ditu hango gestioak eta erraustea. Etxeratzearen gastua, hau da, Vietnamera joandako osabaren gastuak, ikusi egin behar; oraingoz, guk ordaindu ditugu".

Laguntza eskaera

Azken egunotan kontsulak deitu die galdetzeko istripuaren gaineko prozesu zibil edo penalik zabaldu gura duten senideek. Erabakia hartzeko aholkularitza gurako luketela adierazi dute: "Uste dugu enbaxadak abiaraziko duela prozesu judizial bat, eta kontsulordeak galdetu digu ea familiak agertu gura duen akusazio gisa. Gu, baina, ez gara halako kontuetan jakitun, eta,



Bere arreba Ibonerekin.

Vietnamgo abokatu-zerrenda bat izan arren, ez dakigu zer egin horrekin. Benetan eskertuko genuke baten batek laguntzea, aholkularitza ematea. Agian, badago halako kasuetan laguntza ematen duen erakunderen bat, baina ez dakigu, eta astelehenerako erantzun behar dugu".

"Alaia eta azkarra"

Lagunen, ezagunen eta herritarren "babes handia" jaso dute:

"EDOZEIN FESTATAKO ARIMA ZEN, BAINA IKASLE AZKARRA ERE BAI"

IBONE ANDRES

"EKAINEN MEREZI DUEN MODUKO AGURRA EGIN NAHI DIOGU ZAPATUAN"

ELENA IGLESIAS

"Gure lagunen zein Ekainen laguneren aldetik berotasun handia iritsi zaigu; ehunka mezu, dozenaka dei, besarkadak, hitz goxoak... Haiengandik ari gara indarra jasotzen".

Badakite gaztearen lagunendako ere kolpe latza izan dela. "Egunero egon gara haiekin harremanetan, gestioak zelan zihoazen berri eman diegu eta animoak eman dizkiogu elkarri", adierazi du amak, eta arrebak gaineratu: "Kuadrillako zutabea joan zaiela esan digute. Izugarri igarriko dutela haren hutsunea". Baina barre egiteko aitzakiak ere eman dizkie Ekainek egunotan: "Eguztenean haren postal bat iritsi zen Arlutz tabernara. Bertan zioen kafe benetan txarra hartu zuela egun hartan, eta, Arlutzeko Salvarekin akordatu, etxean moduan sentitu zela".

Senideek haren bizipoza nabarmendu dute, lagunak egiteko erraztasuna, edonor animatzeko eta alaitzeko gaitasuna eta ekitaldiak antolatu eta girotzeko dohaina. "Parrandazalea zen, bai, baina ikasle azkarra ere bai. Publizitate ikasketak egiten ziharduen, urrunetik, eta ordenagailua eraman zuen lanak eta azterketak egiteko. Benetan argia zen, denetik jakiten zuen eta guk *giza entziklopedia* deitzen genion", azaldu du arrebak.

"Bidaian egindako lagunek bideo asko bidali dizkigute eta guztietan dago alai eta barrezka. Umetako edozein album zabaldua, beti dago irribarre batekin, pozik, pailazokeriaren bat egiten... Festetako protagonista eta arima beti zen hura, bizitza ematen ziguna etxekeko artean, kuadrillan eta zihoan leku guztietan". Eta halaxe agurtu gura dute biharko agur-ekitaldian ere, "hark merezi zuen moduan".

Azken lanak aurkeztuko dituzte hainbat idazlek domekan

Jon Sarasuak, Josune Murgoiotik eta Judit Ruiz de Munainek idatzitako azken liburuen berri emango dute

Mirari Altube ARETXABALETA

Aretxabaletako eta inguruko idazleek azken lanak ezagutzera emateko aukera izango dute apirilaren 23an, domekan, Liburuaren Egunean. Lau idazlek onartu dute Udalak egindako gonbidapena, eta liburuen aurkezpenak Arkupen egingo dituzte, 12:00etan hasita.

Jon Sarasuak *Harizko zubiak. Haiti, Pernambuco, Mexiko eta Tangerreko jasokinak* izenburua duen lana aurkeztuko du. Latinoamerikan eta Afrikan egindako lan-bidaietako testu laburrek osatutako liburua da; ibilbidean jasotako puskak dira, eta lehen pertsonan idatzitako gogoetak.

Judit Ruiz de Munainek *Perdiendo la cabeza* lehen eleberriaz jardungo du; senarra galdu eta hamaika burukomin topatu dituen emakume baten istorioa jaso du. Josune Murgoiotik,

osterat, *Lo que sucedió en Turquía* hirugarren eleberriaren eta bosgarren liburuen gaineko argibideak emango ditu; *Destino Estambul* sailaren bigarren atala da.

Bestetik, Bergarako Idazle Eskolako zuzendari Tere Irastortzak *Poesia bizitzeko eta sentitzeko modua da* liburua aurkeztuko du. Karmele Igartua aretxabaletarraren olerkien bilduma da.

Azoka Herriko Plazan

Ondoren, literatura azoka irekiko dute Herriko Plazan (13:00). Idazleekin hitz egiteko eta liburuen erosteko aukera izango da. Hala, Gema Iñiguez arrasatearrak, Jaione Fernandez de Jauregi eta Xabier Oyanguren *Ari-Valia* eskoriatzarrek eta Bergarako Idazle Eskolako hainbat ikasle ere parte hartuko dute.

Rafa Bernal Elkarrekin koalizioaren alkategaia izango da

Elkarrekin Aretxabaleta koalizioaren zerrendaburua Rafa Bernal aretxabaletarra izango da. Equo Berdeak taldeko militantea da eta aurreko agintaldian ere hura izan zen hautagaia, nahiz eta ordezkariarik lortu ez orduan. Dena den, badu eskarmentua udal jardunean; izan ere, 2015 eta 2019 artean Eskoriatzako zinegotzia izan zen.



Rafa Bernal. GOIENA

EAJk osatu du zerrenda

Aretxabaletako EAJk eguaztenean aurkeztu zuen udal hauteskundeetarako zerrenda. Mikel Uribetxebarria Barrena alkategaiarekin batera, hauek dira lehen hamarrak: Conchi Muñoz, Javier Mar, Karmele Uribarri, Unai Elkoro, Maider Triviño, Jose Miguel Uribarren, Nerea Garcia, Koldo Zubillaga eta Mari Carmen Hermosa.



ARETXABALETAKO EAJ

Imanol Beloki Unamuno ESKORIATZA
Marin, Zarimutz, Mazmela, Apotzaga, Bolibar eta Mendiola, Gellaorekin zazpi adar eta bakarra arbola; lor ditzagun Forruak, eman zuen botuak, herria berrituz hola, Eskoriatza elkartutzeaz ahaztu gabarik inola. (Doinua: *Iparragirren bozian*).
 Eskoriatzako zazpi elizateetako ordezkarien talde argazki batekin elizateak ere herrigunearen parte direla adieraziz eta bertso horrekin egin zituen lehen urratsak Eskoriatzako Elizateen Elkartea (EEE). Lehenengoz, 1983an aurkeztu zuen hautagaitza Eskoriatzako udal hauteskundeetara, hamabi laguneko zerrendarekin, eta, sorrera urtean bezala, 40 urtean landa inguruko jardueretan gehiago eragiteko asmoz aritu da taldea; orain arte. Hala ere, aurtengo udal hauteskundeetarako lantaldea osatzeko arazoak tarteko, ez da aurkeztuko maiatzaren 28ko hauteskundeetara.

Udal hauteskundeetara aurkeztearen arrazoi nagusia elizateak Udalean ordezkari izatea izan da urte hauetan guztietan, baina ez indar politiko gisa, baizik eta baserriek azpiegitura eta zerbitzuei dagokienez izan ohi dituzten beharrak asetzeko. Elizateen elkarteak ez da alderdi politiko bat, hauteskunde-elkarte bat baizik. Taldeko ordezkariak ez dira Udalera joaten politika egitera, elizateek dituzten behar batzuk asetzera baizik. Bizimodua hobetzeko, baliabide gehiagoz hornitzeko eta baserri eta nekazari giroko beharren alde lan egiteko aurkezten dira. Hori da eta izan da taldearen helburu nagusia, eta, hortik aurrera, elizateek lankidetzara ere eskaintzen diote Udala gobernatu duenari, korporazioan egonkortasuna ahalbi-



EEEko Leire San Vicente, Jesus San Vicente eta Iñaki Madinabeitia, Apotzagan, asteen. XABIER URTZELAI ATXA

Konpromisorik gabe, gainbehera

Eskoriatzako Elizateen Elkarteak ez da aurkeztuko udal hauteskundeetara. Indar politiko gisa izan gabe, landa inguruko baserrien azpiegiturak eta zerbitzuen beharrak asetzeko aurkeztu izan da 1983a ezker, agintaldi guztietan ordezkari izanda

detuz. Hala izan da, behintzat, orain arte.

Elizateen beharrak Udalera
 XIV. mendearen erdialdean, Leintz bailara elizatez osaturik zegoen. Elizate haiek indepen-

denteak ziren elkarren artean eta bakoitzak bere kontzejua, alkatea, lur komunalak eta abar zituen. Antolaketa berezi haren arrastoak gaurdaino iritsi dira, eta horren adibide dira auzotarrak euren elizatearekiko erakusten duten atxikimendua eta herriaren gaur egungo antolaketa: Eskoriatzak zazpi elizate ditu –Apotzaga, Bolibar, Gellao, Marin, Mazmela, Mendiola eta Zarimutz– eta horietako bakoitzak bere auzo-alkatea dauka, eta, haiez gain, Bolibarko Lete auzoa ere kontuan hartzen da, elizate multzoari beste bat gaineratuz. Elizate bakoitzak bere auzo-alkatea du, eta bilerak egiten dituzte sarri, euren elizateek dituzten beharrak mahai-gaineratzeko, eta horiek Udalari aurkezteko ardura du Eskoriatzako Elizateen Elkartearen bozeramaileak. 40 urtean beti izan du or-

dezkaritza Eskoriatzako Elizateen Elkartea Udalean; bi agintalditan, gainera, bi lagun ere izan dira udalbatza osatzen.

Aurkeztu, eta bi zinegotzi
 Eskoriatzako Elizateen Elkarteak udal hauteskundeetara aurkeztu zen lehenengo aldian (1983) bi zinegotzi lortu zituen, eta 2011n ere berdina gertatu zen. Lehenengo agintaldian, Apotzagako Jesus San Vicente eta Bolibarko David Zabala izan ziren udalbatzako parte. Garai haiek gogoan ditu Jesus San Vicentek: "Elkartea nola sortu zen azaltzea ez da erraza. Taldea eratu aurretik elizateetako bizilagun ugari lanean ari ziren, genituen beharrak Udalari transmititu nahian. Niri zinegotzi gisa joateko planteatu, eta bi ordezkari atera genituen. Garai hartan, Julian Urtzelai (EA) izan zen alkatea, eta, eliza-



EEEren logoa.

teen beharra ere zuten, ondo konpondu ginen. Hala, lehen urteetan gauza asko egiteko aukera izan genuen. Baserrietarako bideak konpondu ziren, urak ere zenbait lekutara eraman genituen... Hala ere, politikan gauza nahasiak zeuden, eta traba bakarra, agian, hori izan zen. Orduetik hona, izan da bilakaera bat, eta Udalean egotea oso garrantzitsua izan da; bere pisua du udalbatzako kide izateak, eta bertan dagoena gertatzen denaren jakitun da. Gauzak lortzeko ezinbestekoa. Oraingoan ez gara udal hauteskundeetara aurkeztuko, eta, gu ez egon arren, aintzat hartu beharko gaituzte udalbatza osatzen dutenek. Gu ere herriaren parte gara, arazoak ere baditugu, eta badago zer egin...".

Beharrak aldatu diren ustea
 1987an, hau da, EEE hauteskunde lokaletan aurkeztu zen bigarren aldian, ordezkari bakarra lortu zuten landagunee-tako bizilagunek. Kasu hartan, Mendiolako Iñaki Madinabeitia izan zen zinegotzia –1987tik 1991ra zinegotzi izan zen; 2011-2015eko agintaldian ere hura izan zen EEEko ordezkaria, baina agintaldia amaitu aurretik utzi zuen kargua–. Gogoan du hasierako helburuak zeintzuk ziren, baina urteen poderioz beharrak aldatu egin direla uste du: "Behar handiak zeuden garai hartan. Urbanismoko proiektu ugari izan ziren Apotzaga eta Mendiolan, etxeak egiteko, eta atzera bota zenez, Eskoriatzako Elizateen Elkarteak sortu genuen, beste hainbat

"UDALEAN EZ EGON ARREN, AINTZAT HARTU BEHARKO GAITUZTE"

JESUS SAN VICENTE





Lehenengo taldearen hautagaitza

1983an, Eustaquio Arrese, Elisio Beitia, David Zabala, Iñaki Iñurrategi, Jose Ramon Beitia, Jose Ramon Okaranza, Tomas Beitia, Juan Carlos Beloki, Felix Ugarte, Felipe Arrese, Jesus San Vicente eta Luis Mari Iriarte aurkeztu ziren udal hauteskundeetara.

behar ere bagenuela kontuan izanda. 40 urte hauetan, hormigoiarekin lan asko egin da, bideak utzita zeudelako; aipatzekoa da autobideak eta trenbideak ekarri dituzten arazoei aurre egiteko gestio-lan asko egin direla EEEtik... Etorkezuna, berriz, ezjakina da; kultura aldatu da, baita balioak ere. Momentu batean, landa ingurua eta baserri bidezko errealitate bat zen, eta ia desagertu egin da. Lehen, baserri guztiak konektatuta geunden baserri-bideekin, elizak ere batzen gintuen, domekero... Urte hauetan, egon dira saiakera batzuk elkarteak sortuz elizateen nortasuna mantentzeko, eta oso garrantzitsuak dira, baina uste dut nortasun hori galduta dagoela. Horrekin batera, errealitate guztiei aurre egiteko konpromisoa ere falta da; nor bere arazoak konpondu nahi ditu soilik. Tendentzia hori ez da elizateetan bakarrik gertatzen, gizarte osoan ere berdina gertatzen ari da", dio Madinabeitia.

Auzo-alkateen babespean

San Vicente eta Madinabeitia EEEko zinegotzi izateaz batera,

"ESKORIATZAKO ELIZATEEN NORTASUNA GALDUTA DAGOELA USTE DUT"

IÑAKI MADINABEITIA

40 urte hauetan zenbait zinegotzi izan dituzte Udalean. Esaterako, 2004-2007ko agintaldian, Javier Villar izan zen zinegotzia; 2007tik 2011ra artean, Apotzagako Leire Okarantza, baina, agintaldia amaitu aurretik, Unai Salaberriak ordezkatu zuen. Iker Aquizu eta Rosi Arcarazo ere izan ziren ondoren, Iñaki Kerejeta... "Haiek Udalean egotearen arrazoiak izan da elizateetako bizilagunen babesa izan dutela, auzo-alkateen laguntza...", dio Leire San Vicentek, gaur egungo EEEko bozeramaileak.

Uzta berriaren ametsarekin

Eskoriatzako Elizateen Elkartea berpizteko eta misio eta bisio berria birdefinitzeko aukera irekita egonda, Eskoriatzako Udalean elizateen ordezkaritza ez izateak asko eragin dezakeela uste du Leire San Vicentek, gaur egungo EEEko bozeramaileak: "Pena handiz, alde batetik, baina harrotasunez ere itxi dugu 40 urteko etapa. Lan ugari egin da, eta interes kultural, ekonomiko eta natural handidunak ditugu, babestu beharrekoak. Hala, Udalak elizateetako bizilagunekin lankidetzan jarraituko beharko lukeela uste dugu".

"AUZO-ALKATEEKIN LANKIDETZAN JARRAITU BEHARKO LUKE UDALAK"

LEIRE SAN VICENTE

Juan Luis Merino izango da Elkarrekin koalizioako alkategaia

Juan Luis Merino (Eskoriatza, 1964) izango da Elkarrekin Eskoriatza koalizioaren alkategaia. Honako siglak batzen ditu koalizioak: Ezker Anitza-IU, Podemos, Aliantza Berdea eta Equo Berdea. Tasen eta zergen fiskalitatea familien diru-sarrerekin bat etortzea, liberatuen soldatak murriztea eta adinekoentzako arreta; horietan jarriko dituzte indarrak.



Juan Luis Merino. GOIENA

Irakurzaletasuna sustatzeko ekintzak asteburuan

Gaur, 18:30ean, musika eskolako emanaldia izango da, Zaldibar antzokian, eta, ondoren, *Ezagutuz ulertu eta ulertuz maillatu*, aitona-amonen biografien lehiaketaren sari banaketa eta irabazleen irakurketa egingo dute herriko ikastetxeetako haurrek. Domekan, berriz, 12:30ean, Literatura Juntaixe izango da Zaldibar antzokian.

Ferixa egunean egiteko, larrain dantza saioak berriro

Iaz izandako arrakastaren ostean, aurten ere larrain dantza ikasteko saioak egingo dituzte maiatzean, ekainaren 3an ospatuko den Ferixa egunean guztiak elkarrekin larrain dantza egiteko. Oihane Vicente irakaslearen gidaritzapean, maiatzaren 8an, 15ean, 22an eta 29an izango dira saioak, 20:00etatik 21:00etara bitartean, frontoian.



Dorleta Elkorobarrutia, D2030i emandako elkarrizketa batean. D2030

Dorleta Elkorobarrutia izango da Hautesle Elkarteko alkategaia

Bost laguneko zerrenda osatu dute Leintz Gatzagan; errepikatzen duen bakarra Juanito Bengoa da

Imanol Beloki Unamuno GATZAGA

Dorleta Elkorobarrutia Pagoaga (Leintz Gatzaga, 1975) izango da Leintz Gatzagako Hautesle Elkarteen alkategaia. Elkorobarrutiak 48 urte ditu eta Laboral Kutxako Marketin Departamentuan egiten du lan, Arrasaten. Ez da haren lehenengo esperientzia izango Gatzagako Udalean; izan ere, 24 urte zituela han ibili zen -1999-2003 agintaldian-, Eugenio Otsoa eta Joxerra Agirreurreta alkate izan zirenean.

Dorleta Elkorobarrutiak Leintz Gatzagako udal-jarduna ezagutzen duen arren, herrian egin diren auzolanetan eta bestelako ekintzetan parte-hartze aktiboa duen eta izan duen pertsona da. Besteak beste, Leintz Lotzen herri egitasmoko kidea da eta Eskoriatzatik Gatzagarako Gatz Bidea berreskuratzeko eta mantentzeko lanetan aritu izan da.

Makila Korta Fest jaiko bazkarirako txartelak salgai

Maiatzaren 6an ospatuko dute Makila Korta Fest jaiaren hirugarren edizioa, Leintz Gatzagan. Gatz City Krew gazte taldeak egitarau xume baina osatua antolatu du, eta eguna aurreko edizioetan bezain arrakastatsua izatea espero dute.

Mendi ibilaldiarekin hasiko dute eguna; hain zuzen, Maki-korta mendira igo eta han jola-

Talde gaztea eta berria

Maiatzaren 28ko udal hauteskundeetarako aurkeztu duten zerrendako bost kideetatik lau emakumezkoak dira, taldearen %80. Hala, Dorleta Elkorobarrutiarekin batera Leintz Gatzagako Hautesle Elkarteen zerrendan honako herritar hauek joango dira: Idoia Armendariz, Eneka Zankada -Leintz Gatzagako alkatea izan zen 2015etik 2018ra-, Aiora Elkorobarrutia eta Juanito Bengoa -azken horrek errepikatu egingo du zinegotzi-.

Aurkeztutako talde bakarra

Oraingoz, udal hauteskundera begira Leintz Gatzagako Udalerako ezagutarazi den zerrenda bakarra da. Hala ere, domekara arte -apirilaren 23a- dago aukera zerrendak aurkezteko, Eskualdeko Hauteskunde Batzordean.

sak egingo dituzte. Hamarretakoa hartuko dute gero, eta, herrigunera jaisten direnean, poteo musikatuari ekingo diote. Ondoren, herri bazkaria izango dute, plazan, eta, amaitzeko, bola-txapelketa eta kontzertuak. Herri bazkariak catering bat arduratuko da, eta apirilaren 11 ezkerreko salgai daude bazkari-rako txartelak, Labidean, 15 eurotan. Menua hau izango da: paella, postrea eta edatekoa. Txartelak erosteko azken eguna apirilaren 25a izango da.



Mayra Jimenez, Rosa Errazkin, Ekaitz Aranberri, Nagore Narbaiza eta Iñaki Ugarteburu, udako eskaintzaren berri ematen. J.B.L.

Udako aisian, denerako lekua

Asteon aurkeztu du Udalak ume eta gaztetxoendako udako eskaintza "zabala", herriko hainbat eragilerekin elkarlanean. Ohiko jarduera arrakastatsuz gain, nobedade aipagarri batzuk ere badaude aurten; tartean, Beart-ek gidatuko dituen lau asteko arte udalekuak

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA Udarako ume eta gaztetxoendako aisialdirako eskaintza prestatu du aurten ere Udalak. Udaleko Herritarren arloko arduradun-zinegotzi Ekaitz Aranberriren arabera, "askotarikoak" dira ekintzak: "Eskaintza zabala da, dena Bergaran eta dena euskaraz. Kalitatezko eskaintza osatzen ahalegindu gara; umeek eta gaztetxoek hori behar eta merezi dute. Egunerokoan ezagutzen ez dituzten pertsonekin harremanak lantzeko aukera izango dute, jolasaren, kirolaren edo bestelako jardueren bitartez".

Udaleku irekiak, errotuta Udaleku irekien kasuan, Udaleko Gazteria, Kultura eta Partaidetza teknikari Nagore Narbaizak gogoratu duenez, iaz 500 bat umek hartu zuten parte: "Bergaran tradizio handia duen eskaintza da udaleku irekiena, oso errotuta daude. Aurtengoak ere Jardunek kudeatuko ditu, euskaraz eta modu hezitzailean. Udalekuek, gainera, badute beste helburu bat: ikastetxe ezberdinetako ikasleek elkar ezagutzea; horregatik, taldeak adinaren arabera eratzen ditugu". Harago ere badoa Narbaiza, familien kontziliaziorako "ezinbesteko"

direla azpimarratuta: "Ezin dugu ahaztu familien kontziliaziorako ezinbesteko jarduera bat ere badela, eta, horregatik, hiru edo lau asteko udalekuak eskainiko ditugu; ekainaren 26tik uztailaren 14ra edo ekainaren 26tik uztailaren 21era". Narbaizak gaineratu du astez asteko udalekuak ezin dituztela eskaini, antolaketa aldetik ezinezkoa delako.

Kirol campusa, urtez urte gora Arrakasta handia duen beste jarduera kirol campusa izan ohi da, Udaleko Kirol teknikariburu Iñaki Ugartebururen arabe-

"ESKAINZA ZABALA DA, DENA BERGANAN ETA DENA EUSKARAZ"

EKAITZ ARANBERRI, UDALEKO HERRITARREN ARLOKO ZINEGOTZIA

"JARDUNEK GIDATZEN DITUEN UDALEKUAK ERROTUTA DAUDE"

NAGORE NARBAIZA, UDALEKO GAZTERIA, KULTURA ETA PARTAIDETZA TEKNIKARIA

"KIROL CAMPUSAK ARRAKASTA DU; GUNE ESTALIAK DIRA MUGA"

IÑAKI UGARTEBURU, UDALEKO KIROL TEKNIKARIBURUA

Izena eman, "ahalik eta azkarren"

Izen-ematea zabalik dago ekintza gehienetan. Udaleku irekietan maiatzaren 7ra arte eman daiteke izena, www.bergara.eus-en, BAZen edo liburutegian. Kirol Campuserako izen-ematea, berriz, maiatzaren 2ra arte egongo da zabalik, www.bergara.eus-en, www.bergarakirola.eus-en edo Agorrosinen; izena ematen dutenen artean maiatzaren 4an egingo da zozketa, behin betiko zerrenda osatzeko, eta ordainketa orduan egin beharko da. Udaleku irekietarako eta kirol campuserako tarifa sozialerako aukera eskaini du Udalak familia zaurgarrienei begira; prezioaren erdia inguru ordaindu beharko dute.

Udako eskaintzaren barruan, igeriketa kanpaina ere antolatu dute. 2011 eta 2019 urteen artean edo 2005 eta 2011 urteen artean jaiotakoei begira, izen-ematea apirilaren 28tik maiatzaren 9ra izango da, eta, gehienezko kopurua gaindituz gero, behin betiko zerrendak maiatzaren 15ean jakinaraziko dira, zozketa egin ostean.

Laboratorium museoaren bederatzi jardueretako baten izena emateko aukera egongo da maiatzaren 1etik 19ra (943 76 90 03 edo www.laboratorium.eus); campus teknologikoa da ordaindu beharreko bakarra. Azkenik, maiatzaren 2ra arte eman daiteke izena aurtengo nobedade diren arte udalekuetan, www.bergara.eus-en. Gutxienez, zortzi ikasle beharko dituzte, eta, gehienez, 28. Bestalde, Agorrosingo igerilekua ekainaren 27tik uztailaren 27ra egongo da martxan.

ra: "Kirol campusa eskaini genuen lehen urtean 100 lagun baino gehiago animatu ziren, eta urtez urte joango gara eskaintza zabaltzen... Iaz 18 talde izan genituen, 300 ume eta gaztetxo baino gehiago; gaur egun ez ditugu plaza gehiago eskaintzen, zozketa egin behar izaten dugulako. Espazio estali nahikorik ez izatea da muga guretzat. Hala ere, inportanteena da arrakastatsua dela; ume eta gaztetxoak oso gustura etortzen dira".

Laboratorium: bederatzi ekintza Laboratorium museoak bederatzi jarduera eskainiko ditu. *Fosilen erreplikak* tailerrean naturak ezkutuan dituen altxorak ezagutuko dituzte, Aranzadi Zientzia Elkarteko gidaritzapean; *Kamishibaiaren hegaldia*. *Baduzu ikusterik?* ikastaroan, ingurunean gertatzen dena "beste begirada batekin" aztertuko dute; *Zientziaren sukaldea*. *Kimikako esperimenduak* tailerrean kimikaren alde dibertigarria ezagutuko dute; *Ur azpiko indusketa arkeologikoa* jardueran ur azpiko objektu bitxiak aurkitu, berreskuratu, aztertu eta sailkatuko dituzte; *Gure bizila-*

gun onenak tailerrean saguzarrak hobeto ezagutuko dituzte; *Astronomia: udako zerua ezagutzen* ikastaroan konstelazio nagusiez gehiago jakingo dute Ilatargi taldearen eskutik; ilustrazio zientifikoko tailerrean polinizatzaileen garrantziaz jabetuko dira; ornitologiaren gaineko hastapen tailerra ere izango dute; eta, amaitzeko, Miguel Altunak gidatuko duen campus teknologikoa hiru dimentsioko inprimaketa ezagutuko dute, besteak beste. Campus teknologikoa izan ezik, gainerako zortzi tailerrak doakoak izango dira. Museoko arduradun Rosa Errazkinek elkarlanean jarri du arreta: "Zientzia arloko lagun gehiago batu dira aurtengo eskaintzara; oso pozgarria da hori".

Arte udalekuak, nobedade Aurtengo nobedade nagusia Beart elkarrekin eskainiko dituen arte udalekuak dira. "Lau astez marrazketaren teknikak landuko ditugu, eta asmoa da kalean marraztea. Mural bat ere egingo dugu Agorrosinen, kanpoko igerilekuetako pareta baten", adierazi du Bearteko irakasle Mayra Jimenezek.

"ZIENTZIA ARLOKO LAGUN GEHIAGO BATU DIRA AURTENGORA"

ROSA ERRAZKIN, LABORATORIUM MUSEOKO ARDURADUNA

"KALEAN MARRAZTEA DA ASMOA, MURAL HANDI BAT BARNE"

MAYRA JIMENEZ, BEART ELKARTEKO IRAKASLEA ETA ZUZENDARITZAKO KIDEA

Berener: ekainerako 250 bazkide izan nahi dituzte

Energia berriztagarrien komunitateak sortutako Berener kooperatibak bazkide berriak behar ditu, egitasmoari bultzada eman eta ahalik eta proiektu gehien garatu ahal izateko; egun 67 bazkide dira, eta kopurua laukoiztea espero dute Pentekoste jaien osterako

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA 2022ko urrian aurkeztu zuten Berener energia berriztagarrien komunitatea, eta, diotenez, bazkide berriak erakartzeko prozesuan dihardute orain buru-belarri: "Berener kooperatiba herritarra da, Bergarar guztientzat pentsatutakoa. Herritarrez osatutako talde motorra deitu dugun taldea sarri elkartu eta lanean aritu gara bai energia komunitatea bera eratzeko beharrezkoak ziren lanak egiten eta baita eguzki-plaka bidezko energia sorkuntzako proiektuak diseinatzen eta harremanak lantzen. Egitasmoari bultzada emateko eta ahalik eta proiektu gehien garatzeko, bazkideak behar ditugu. Herritar, dendari, taberna, enpresa eta eragilean atxikimendua behar dugu proiektua aurrera ateratzeko".

Ekarpina behin, kuota barik

Berener kooperatiban sartzeko ekarpina 100 eurokoa da norbanakoentzat eta 200 eurokoa eragileentzat edo enpresentzat; ordainketa bakarria egin behar da, kuota barik. "Bazkideak izango dira oinarria, eta helburutzat markatuta ditugunak betetzen lagunduko digute: trantsizio energetikoa bultzatzea, herritarrek ahaldundutzea, burujabetzaren



2022ko urrian aurkeztu zuten Berener kooperatiba, UNEDen. GOIENA

bidean urratsak egitea eta pobrezia energetikoari aurre egitea", gaineratu dute. Gogora ekarri dute irabazi asmorik gabeko kooperatiba integratzailea izango dela eta, beraz, etekinik lortuko balitz energia berriztagarrien komunitatearen barruan martxan jarriko diren beste proiektu batzuetara bideratuko direla.

Bazkide egiteko postuak

Erramu-zapatuan abiatu zuten bazkidetza-kanpaina, eta, oraingoz, 67 lagun batu dira. Pentekosten ostean deituko dute lehen

batzar orokorra eta espero dute ordurako 250 bazkide izatea. Helburu hori lortzeko, postuak jarriko dituzte datozen egunotan: atzo iluntzean, Irala kalean izan ziren; apirilaren 26an, Mizpildi kaleko bigarren zenbakian kokatuta dagoen Ehunduren bulegoan egongo dira, 18:00etatik 19:00etara –aholkularitza zerbitzua ere badute–; maiatzaren 17an, San Joxepe elkartearen jarriko dute postua, 18:30etik 19:30era; eta maiatzaren 18an, Iralan egongo dira, 19:00etatik 20:30era. Argibide gehiago: www.berener.eus.

EH Bildu: apirilaren 27an aurkeztuko dute zerrenda, Muniben

Bergarako EH Bilduk datorren egunean –hilak 27– aurkeztuko du maiatzaren 28ko udal hauteskundeetarako zerrenda, Munibe plazan (18:30). Atzo iluntzean egindako herri batzarrean eman zitzaion ezagutzera EH Bilduren komunitateari udal hauteskundeetara aurkeztuko den taldea. Gainera, 2023tik 2027ra EH Bilduren udal talde berria osatuko

duten herritarrek bertan aurkeztu zituzten herri programako proiektu nagusiak. "Parte-hartze saioetatik ateratako proposamenak dira, beste hainbat proiekturen artean, EH Bilduren datozen lau urteetako jarduna ezaugarrituko dutenak", adierazi dute. Bestalde, botoa posta bidez eman behar dutenei laguntzeko Irala kaleko EH Bilduren lokala zabalik egongo da, astelehenetan eta eguenetan 17:30etik 19:30era eta martitzegunetan 11:00etatik 13:00etara.

EAJk apirilaren 26an egingo du zerrendaren aurkezpena, Muniben

Bergarako EAJk apirilaren 26an aurkeztuko du maiatzaren 28ko udal hauteskundeetarako zerrenda, Munibe plazan (19:00). "Entzute-ariketa" egiten aritu dira herritarrekin, eta ariketa hori datorren astean amaituko dute. "Ekimena borobiltzeko asmoz, datozen urteetan Bergararen alde lan egiteko prest dauden jeltzaleen zerrendaren

aurkezpena egingo dugu; Mikel Lete Txintxurreta alkategaia aurkeztuko ditu alboan izango dituen herritarrek", gaineratu dute. Ekitaldian egongo da Deba-Urola barrutiko zerrendaburu Maria Eugenia Arrizabalaga. Bestalde, posta bidezko botoa tramitatzeko bulegoa martxan dute batzokian; astelehenetik egubakoitzera, 11:30etik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. Eskaerak egiteko azken eguna izango da maiatzaren 18a (943 76 47 00 edo 645 72 27 08).

Elkarrekin Bergara: Andres Diez izango da alkategaia

Andres Diez Timofeva (Bergara, 1957) izango da Elkarrekin Bergara koalizioako alkategaia maiatzaren 28ko udal hauteskundeetarako. Bergaran zinegotzi izandakoa, GOIENARI adierazi dio "gogotsu" aurkeztu dela zerrendaburu: "Espero dugu zinegotzi bat atera ahal izatea guxtienez, oraingoan koalizioan aurkeztu gara-eta".



Andres Diez Timofeva. GOIENA

Azuak Ala Hil Eguna Elorregin ospatuko dute, apirilaren 29an

Auzoen arteko harremanak sendotzeko Azuak Ala Hil ekimena Elorregin ospatuko da, apirilaren 29an. Egun osoko egitaraua izango dute: auzoko historiaren kontaketa, ume eta helduendako jolasak, auzoen arteko bazkaria, lekuko aldaketa... Eta, 21:30ean hasita, zuzeneko musika izango dute: Arima Galduak, Lukiek, Lizartxo eta DJ Fresa Morango.

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 034630

AROSZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 765491

BERGARA
aroztegia@ugartearoztegia.com

Proiektuak · Koltxoak
Horma-armairuak
Altzariak neurria
Ateak · Eskailerak ·
Leihoak · Tarimak ·
Egur lanak

Entzuna Registrada N°100/025

**ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...**

Fraiskozuri plaza 8.
943 76 59 54 BERGARA

ARRANDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62



Ezkerretik, Oses, Zabaleta, Agirre eta Barrocal, martitzenean. GOIENA

Bergarako pilota sailak eskuak bete lan ditu

Joan den asteburuan hasi zuten Debarro pilota txapelketa, eta aurtengoa Bergarako kluba dabil antolatzen. Ez hori bakarrik, baita martitzenean hasi zuten Bergara Hiria ere. Hori gutxi balitz, Herri Arteko txapelketan ere ordezkari izango du Bergarako

Xabier Urzelai BERGARA

Aste Santuko oporraldia amaitu berrikan, Bergarako pilota sailari lanak pilatu zaizkio: Debarro eta Bergara Hiria torneotan antolatzaile lanetan dabil, batetik; eta laster hasiko duten Herri Arteko Txapelketan ere ordezkari izango dute, bestetik.

Hiru urteko geldialdia

Martitzenean hasi zuten Bergara Hiria. Hiru urteko geldialdiaren ondoren, abian da 40 pilotariz osatutako tornea, eta finalak Pentekosteetan jokatuko dituzte. Martitzenean, emakumezkoetan bi ordezkari debagoiendar izan ziren: Maddi Barrocal bergararrak Agirrekin bikotea osatu zuen eta Uxue Oses oñatiarrak, Zabaletarekin. Garaipena Barrocal eta Agirreentzat izan zen, 22-15. Barrocal eta Agirre indartsu hasi ziren (5-1), hasieratik hartu zuten abantaila, eta, nahiz eta Uxue eta Zabaleta partiduan sartuta egoten saiatu ziren, ez ziren gorrien garaipena arriskuan jartzera iritsi (10-3, 14-7, 19-12, 21-14, 22-15).

Gizonezkoetan, berriz, Ander Etxaniz bergararra eta Manex Balerdi antzuolarra izan ziren aurrez aurre. Bergarakoak

Garmendiarekin osatu zuen bikotea eta antzuolarrak, Labakarekin. Partidu hori lehia-tuagoa izan zen; hasieran oso parean egon ziren indarrak (2-2, 4-4, 7-7), baina une hartan Balerdik eta Labakak abantaila polita hartu zuten (8-13, 10-17). Bazirudien urdinek poltsikoan zutela garaipena, baina gorrien erreakzioa etorri zen, eta aldea txikitu zuten (15-18, 17-19). Partiduaren azken txanpan, baina bolada hura eten eta Balerdik eta Labakak egin zituzten azken tantoak (18-22).

MAIATZAREN 2AN JOKATUKO DUTE OÑATIKO ETXEGARAIK ETA ARRASATEKO MURUAK

Barrocal, Oses, Balerdi eta Etxaniz debagoiendarren debutaren ondoren, Maddalen Etxegarai oñatiarra eta Ander Murua arrasatearrak izango dira hurrengoak jokatzen, maiatzaren 2an.

Debarro txapelketa ere abian da

Hasi dute Debarro txapelketaren 74. edizioa; bi hilabete iraungo du eta aurtengo edizioa Bergarari egokitu zaio antolatzea. Hain justu, nagusienekin diote torneoari: joan den astean Aretxabaleta eta Soraluze izan ziren aurrez aurre, eta Soraluzeko kluba ordezkatzeko Manex Balerdi eta Ander Muruarendako izan zen garaipena.



Ander Murua pilota astintzeko prest, Aretxabaletaren kontra. GOIENA

Arbiaskak haurrei bideratutako bi formakuntza-saio antolatu ditu

'Haurrak eta pantailak' izango da lehenengoa eta 'Haurren autonomiaren garapena' bigarrena

X.U. ARRASATE

Arbiaska Guraso Elkarteak antolatuta, bi formakuntza-saio egingo dituzte Angiozarren apirilean eta maiatzean. "Gizartean hain bizkor aldatzen doazen teknologia berriei lotuta eta gizarte ereduaren aldaketari lotuta, beste leku askotan bezala, gurasoen artean hainbat kezka sortu ohi dira pantailen erabilera egokiari lotutakoak, baita mugak nola eta noiz ipintzearen inguruan ere. Horrek guztiorrek eragin zuzena izan ohi du haur eta gazteen garapenean, baita

etxeetako egunerokotasunean ere", adierazi dute Arbiaskatik; eta, hain zuzen, zalantza horiek argitzera datoz bi saioak.

Lehenengoa apirilaren 27an izango da (18:00) eta Amaia Arroyo izango da formatzailea. Hala, Arroyok haurren eta pantailen erabilera egokiaren gainean egingo du berba. Eta bigarrena maiatzaren 25ean izango da (18:00): Alvaro Beñaranek haurren autonomiaren garapenean egingo du berba. Izena emateko, hona idatzi: angiozargurasozuzendaritza@gmail.com.

Sare sozialen gaineko jardunaldia Zubitzako Zentro Sozialistan

Bergarako Gazte Kontseilu Sozialistak sare sozialen gaineko jardunaldiak antolatu ditu apirilaren 21erako eta 28rako. Hilaren 21ean, *The Social dilemma* dokumentala ikusiko dute (18:00); eta hilaren 28an, *Zer dago sare sozialen atzean?* izeneko hitzaldia izango dute (18:00).

The Social dilemma dokufikzio bat da (2020), eta Jeff Orlowskik,

Davis Coombek eta Vickie Curtisek idatzi zuten. Lanak erakusten du azken urteotan zelan hazi diren sare sozialak, eta gizartean izan duten eragin negatiboa aztertzen du. "Gaur egun gazteen zein ez hain gazteen gehiengoak sare sozialak erabiltzen ditu egunero. Horren guztiaren atzean zer dagoen, ze helburu eta ze interes dauen azaltzeko eta hausnartzeko antolatu ditugu jardunaldi horiek", adierazi dute jardunaldietako antolatzaileek.

Jardunaldi antifaxisten barruan, punk doinuak

Angiolillo liburutegiak antolatutako jardunaldi antifaxisten barruan, zapatuan, apirilak 22, punk jaialdia izango dute Bergarako kartzela zaharrean (22:00). Aretxabaletako Neallta Fola, Vigoko Harry May eta Madrilgo Hard & Cheap taldeek joko dute; sarrera zazpi euro ordaindu beharko da. Lehenago, 17:00etan, bisita gidatua antolatu dute kartzela zaharrean zehar, bertarazten diren guztiendako.

Jardunaldi horiek ez dira kontzertu horiek amaituko. Aurrerago, Hedoi Etxartek Clara Zetkinen *Faxismoaren aurka borrokan. Nola aurre egin eta nola irabazi* liburuen aurkezpena egingo du.

Jose Miguel Berroyaren erakusketa Aroztegin

Ikusgai dago Jose Miguel Berroya ilustratzailearen erakusketa. Boligrafoz eta estilografikoz kartulina gainean egindako hainbat ilustrazio aurkeztu ditu Berroyak, gaiaren arabera argi eta garbi bereizitako hiru taldetan banatuta. Alde batetik, Euskal Herriko mitologian eta kulturaren oinarritutako eszenak dira, Basajaun, Mari eta Tartalo pertsonaiekin. Beste alde batetik, hainbat pertsona eguneroko ekintzak modu kaltegarrian egiten dituztela erakusten duten ilustrazioak daude. Eta azkenik, ertz beltz batez inguraturik, munstro barregarri eta hibridoak daude, makinaren eta gizakien artean.

Egitarau mardularekin dator Apirilean Musika

Musika-heziketa bergararren hurbilduko du Apirilean Musikaren 19. aldian. Udalaren laguntzarekin, 30 ekintza antolatu dituzte; tartean, kontzertu pedagogikoak, ipuin musikatuak, ikastaroak eta musikariek elkartrukeak

Idoia Aranbarri Arzuaga BERGARA
Erramu-zapatuan eman zitzaien hasiera Bergarako Musika eta Dantza Eskolak antolatutako Apirilean Musikaren 19. edizioari, eta jarraipena izango du gaur hasi eta maiatzaren 7ra bitartean. Ikastaroak, emanaldiak, kontzertu pedagogikoak, instrumentuekin nahiz Musika Eskolarekin lehen kontaktua, elkartrukeak eta musika kalean daude jasota, besteak beste, egitarauan. Ekimenaren asmoa da, Musika Eskolako Marije Ugalde zuzendariak azaldu duenez, herritarrei heziketa musikala eskaintzea, baina baita herriko tradizioa eta kultura zaindu nahiz transmititzea ere.

Ugaldek nabarmendu du aste hauetan "bereziki" bizitza izaten duela Musika Eskolak: "Egunero daude entsegu pila. Alde batetik, urduritasuna bizi dugu, baina, bestalde, ikusten da eskola bizirik dagoela eta gogo handiarekin gaudela hemen egiten dena herritarrekin partekatzeke".

Opera proiektzioa zapatuan

Ziklo horien baitan, bosgarren aldiz, "zinemak ematen duen aukera" aprobetxatuta, *Arratsalde bat operan* igarotzeko aukera izango dute bergararrek zapatuan,



Laskurain, Ugalde, Juaristi eta Alustiza, Apirilean Musikaren aurkezpenean. M.Z.

17:30ean, Seminarixoa: 2005ean Madrilgo Errege Antzokian "punta-puntako abeslariak" interpretatutako Mozarten *Don Giovanni*. "Operak zuzenean ikusteko aukera gutxi ditugu. Horregatik, zinemak ematen digun aukera aprobetxatu nahi izan dugu", dio Ugaldek. Emanaldian zehar, opera giroan murgiltzeko, xanpaina eta pasta batzuk banatuko dizkiete bertaratutakoak. Gaur da gonbidapena lortzeko azken eguna; horretarako, Musika Eskolara deitu edo posta elektronikoz erreserbatu behar da.

Ipuinen bidez erlazioa sortzen

Txistulari Bandako zuzendari Jose Miguel Laskurainek idatzitako *Izaro* ipuin musikatuak estreinatuko da domekan, 16:00etan. Hark sortu ditu ipuina eta musika. Marije Ugaldek azpimarratu du ez dela batere ohikoa horrelako emanaldi bat egitea Txistulari Bandarekin; izan ere, pianoa izango dute lagun, eta 5 eta 13 urte bitarteko 80 haur arituko dira kantuan eta antzeztzen.

Haurrei zuzendutako kontzertu pedagogikoek ere badute lekua

musika zikloan, eta, urteroko Bergarako Musika Bandaren kontzertu didaktikoaz gain, Musika Eskola nahiz instrumentuak gertutik ezagutu ahal izango dituzte *Zaira eta Kroko Musikarien Lapurra* ipuin musikatuari esker HH-5-6 eta LH-1eko 200 ikasle inguruk. Goiz eta arratsaldean egingo dituzte 40 minutuko zazpi saio. Zuzendariaren esanetan, "oso polita" da emanaldia; izan ere, lapurtutako musikari guztiak aurkitzen dituzte ipuinaren amaieran, eta pieza bat edo beste joko dute.

Idoia Asurmendirekin saioa

Hilaren 24an, Idoia Asurmendi aramaioar abeslariarekin saio musikatu egingo dute Musika Eskolako 10 urtetik gorako ikasleek. Ekintza "garrantzitsua" dela dio Ugaldek: "Kontuan hartu behar da Idoia ere Musika Eskola batean hasi zela, eta, ondoren, ikasketa musikala ofizialak jarraitu ditu. Haren esperientziak partekatuko ditu gure ikasleekin, eta hori da aberasgarria".

Musika zikloaren egitaraua osorik kontsultatu daiteke Musika Eskolaren webgunean.

Kontzertu didaktikoa domekan

Musika zikloaren baitan, Bergarako Musika Bandak kontzertu didaktikoa egingo du domekan frontoian, 12:30ean hasita. Urtero bezala, musikarien artean esertzeko aukera izango dute hurrek, instrumentuak nahiz musikariak gertutik ikusi eta musikarien ikuspuntua gertutik ezagutzeko. Ekitaldia "bereziki" etxeko txikienei zuzenduta badago ere, bandako zuzendari Enrike Txurrukak aurreratu duenez, bertaraten den edonork ikasiko ditu "gauza berriak" musikaz gozaten duen bitartean. Musika Bandako zuzendariorde Igor Larrañaga izango da aurkezlea, eta Bergarako Musika Eskolako hiru gazteren laguntza izango du. Sei pieza musikatuak dituzte; horietako bi, Musika Eskolako Banda Gaztearekin batera. Aipatzekoa da kantuetako bost Bergarako bandako zuzendari edo kideek sortuak edo moldatutakoak direla.

Aurrelanketa kontzertura begira

Marije Ugalde Musika Eskolako zuzendariak aurreratu duenez, LH1etik LH4ra bitarteko 600 ume bergarar gonbidatu dituzte kontzertu pedagogikora. Iaz martxan jarritako *Etorkizuneko Entzuleak* proiektua eraman dute eskoletara asteen: "Eskola bakoitzean saio txiki bat egingo dugu, non honen helburua kontzertu horretan entzungo diren piezen inguruko lanketa bat egitea den. Saio hauetan landuko dira, hala nola, entzumen aktiboa, perkusio korporala, musikaren esanahiak zeintzuk diren jakitea eta musikak kontatzen duen istorio bat ezagutzea. Behin lanketa hori egin ostean, gure helburua da umeek kontzertuaz beste modu batera gozatzea". Bestalde, 35 ikasle aukeratu beharko dute instrumentua aurtan, eta Ugaldek adierazi duenez, eskolak nahi duena da ikasleek bandako instrumentua jotzearen esperientzia bertatik bertara bizitzea.

Zure negozioa ezagutzera eman nahi duzu?
Zatoz batu-banatura!

Banaketa aukera ezberdinak

- Banaketa **masiboa**.
- Banaketa **pertsonalizatua**.
- **Kartelak** ipini.
- **Autoz auto** banatzea.

batu-banatu

www.batubanatu.eus
943 08 10 50 / 688 69 00 07
banaketak@batubanatu.eus



Ane Alberdi eta Onintza Legorburu liburuaren egileak, martitzenean, Antzuolako Olanaren etxearen kanpoaldean. A.R.K.

"Kolektibotasun batetik herri memoria eraiki beharra dago"

ANE ALBERDI ETA ONINTZA LEGORBURU 'MEMORIA JOSTEN' LIBURUAREN EGILEAK 1958-2011ko aldiko gatazka armatuak herrian izaniko eragina ikertu dute, "memoria kolektibo makrotik, mikrora" eginda. Elkarrizketak eta talde-eztabaidak egin dituzte

Amaia Ramirez de Okariz
Kortabarria ANTZUOLA

Euskal Herrian hamarkada luzez bizi izan den gatazka armatuaren inguruko "informazio urria" jaso dutela azaldu dute Onintza Legorburu eta Ane Alberdi ikertzaile antzuolarrek (Antzuola, 1993), "soilik gatazkaren azken zipriztinak" bizi izan dituztela, baina eurengan zein inguruarengan gai horrek "mamia" duela. Horretaz jabetuta, eta historia eta antropologia lagun izanik, ikerketa bat

egiteko hautua egin zuten, eta horren emaitza da *Memoria josten: gatazka armatua Antzuolan 1958-2011* liburua. Eguaztenean aurkeztu zuten, Olanaren. **2018an abiatu zenuten ikerketa. Zer dela eta?**

"ELKARBIZITZARAKO GARRANTZITSUA DA GAI HORRI BURUZ BERRIKETAN HASTEAN; HAU PAUSO BAT DA"

Bartzelonan bizi zen bat eta Madrilen bestea, baina Antzuolara itzuli eta gatazka armatuaren gaia lantzeko hautua egin genuen, historia eta antropologia diziplinen arteko elkarrizketetatik, baina modu lokalean, Antzuolako testuinguruan. Izan ere, 1990eko hamarkadan jaiotakoak gara, eta bizi izan dugu gatazka armatuaren amaiera bat, baina ez du ia-ia inolako errelatorik, transmisiorik... Etxean ere gainetik tratatutako gai bat izan da, eta sumatzen

genuen hor bazegoela zerbait lokatza.

Horretarako, elkarrizketak eta talde eztabaidak egin dituzue. Zer jaso duzue?

Batetik, erregistro numeriko bat jaso dugu; zenbat gauza eta zer gertatu den herrian, eta hori elkarrizketa bidez ez ezik, orduko prentsa kontsultatuta ere bildu dugu. Eta, bestetik, saiatu gara horren eragina modu intimoagoan-edo jasotzen: zeintzuk diren zeharkatzen gaituzten beldurrak, zein tabu sortu ziren, zer-nolako estereotipo eta aurreiritziekin bizi garen... Alegia, nola jasotzen den gatazkaren eragina.

Ikuspegi feminista ere txertatu duzue lanean.

Bai; biok gatoz mugimendu feministatik, eta garrantzitsua iruditzen zitzaigun gatazka idatziaren fokuen pean egon diren egitate eta protagonisten horietatik harago alboetan egon direnei ahotsa ematea, horko protagonistei. Alboetako gatazkan edo periferiakoz zentratu gara, eta ondorioztatu dugu bisiten antolaketan, espetxetan... emakumeek egin izan dutela lan, orain artean aitortu ez den arren.

Hala ere, ez dituzue nahi beste ahots jaso...

Ez, eta hori zen hasieratik genuen beldurretako bat. Banakako elkarrizketak 26 izan dira, hamar emakume eta hamasei gizonezko, eta horien artean izan dira atxilotuak eta euren senideak, iheslariak, bakegintzako militanteak... Eta, horrez gain, zortzi talde-eztabaida egin ditugu herriko talde eta eragileekin. Politikagintzan, adibidez, EAJ eta ezker abertzalea izan dira parte-hartzaileak. Hala ere, nolabait, mundu abertzaleatik kanpoko ahotsak falta izan zaizkigu, parte hartu duten banakako elkarrizketetako ahots batzuk PSE ingurukoak izan badira ere. **Hori ere bada zerbaiten adierazle, ezta?**

Bai, eta hori ere aipatzen da lanean. Sumatu dugu gabezia bat, baina jendea ez dago oraindik hitz egiteko prest, ez du hitz

"SUMATU DUGU GABEZIA BAT, JENDEA EZ DAGO HITZ EGITEKO PREST; BADA ITXI GABEKO ZAURI BAT"

egin nahi, eta hor sumatzen da min edo itxi gabeko zauri bat dagoela. Baina, tira, lehendabiziko lan bat da, hasierako hitz egiteko ariketa bat.

Eta, gainera, baliteke halako bat egiten den lehen aldia izatea Antzuolan...

Bai; aipatu bezala, lehen pauso bat da, eta hasieratik jaso dugu babes handia herriaren aldetik. Gainera, ikusi dugu behar handia zegoela hitz egiten hasteko, eta jendeak eskertu digu espazio hori ematea. Memoria kolektibo makrotik mikrora salto egiteko beharrak bultzatu gintuen horretara, memoriaren gaia lantzeko beharra ikusten zuen talde bat baitzegoen herrian.

Hain justu, memoria inklusiboa eta bizikidetzatza izan dituzue hizpide lan hori egiteko orduan...

Bai, kolektibotasun batetik herri memoria bat sortzeko beharra baitzegoen, ahal bezain pluralena izango zena. Euskal gatazka modernoak, 1958-2011ko aldikoak, eragina izan zezakeelako Antzuolan ere, bizikidetzan eta egunerokoan. Izan ere, memoria politizatua eta monopolizatua egon den aspektu bat izan da, Euskal Herriak naturalki ez du bake prozesu bat izan, eta, uste genuen elkarbizitzan aurrerapausoak emateko garrantzitsua zela gai horri buruz berriketan hastea.

Osterantzean, ahanzturan erortzeko arriskua al dago?

Bai, hori baita gatazka traumatiko guztietan gertatzen den prozesua, eta guk uste dugu minari eta errelato historikoari, nahiz eta gatazka bat edo debate bat izan eta seguru aski pertsona batzuentzako azkartxo izan, lekua eman behar zaiola, gatazka eragindako kalteak azalazteko. Hori gertatu zen, esate baterako, Euskal Herrian eta Espainiako Estatuan 36ko gerrarekin: diktadura frankista batek siltasuna ekarri zuen eta ahanzturara eraman zuen memoria kolektiboa, horrek dakarren sufrimenduarekin. Ezin da berriro bide beretik joan.

Bada, landutako guztia liburu batean bildu duzue orain. Eskuragarri al dago?

Inprimategian dago oraindik, baina datozen asteetan iritsiko da eta izango da eskuratzeko aukera. Gainera, herriari eskaini nahiko genioke, herriarena delako grabazio ordu guztietan jaso duguna.



Txakurrak taldea, Gasteizen, Etxebizitza Sindikatuak antolatutako kontzertu batean. DANI 'SKISITZ'

Defentsa Komunitatea sostengatzeko jaialdia

Antzuolako Gazte Asanbladarekin elkarlanean, kontzertuak eta pala txapelketa antolatu ditu hilaren 29rako, zapatua, Langile Kontrolpeko Espazioen Defentsa Komunitateak. Espazio okupatuetako gastuak estaltzeko baliatuko dituzte ekitaldiak

Hasier Larrea ANTZUOLA

Gune autogestionatuen babes-sarea da Defentsa Komunitatea, "langileen kontrolpeko espazioen, gaztetxeen, etxebizitza okupatuen eta komunitate politikoaren defentsarako gaitasuna hedatzea" helburu duena. 2019an sortutako Erraki mugimenduen jarraipena da, "urteetako saretearen emaitzaren fruitua". Besteak beste, Erresistentzia Kutxa darabilte espazio okupatuetan jasaten dituzten kostu eta isunei aurre egiteko, eta hilaren 29rako jaialdia baliabide horri ekarpena egiteko antolatu dute.

Gazte Asanbladako kide Mikel Arregik azaldu duenez, Defentsa

Komunitateak lehen aldiz antolatu du egitarau bat Antzuolako gaztetxean, baina, gogoratu duenez, bailaran egin izan dituzte antzeko ekitaldiak: "Bergarako zein Oñatiko gaztetxeetan, esaterako".

Arratsaldetik gauera

Olaldeko frontoi txikian pala txapelketa eginez hasiko dute hilaren 29ko egitaraua, 16:30ean. Izena emateko aukera dago oraindik, kartelaren QRa zabaldua. 21:30ean hasiko dira kontzertuak, eta bailarako musikariz osatutako rock estiloko lau talde igoko dira: Bat Bat Bi, Txakurrak, Berandu Baina Lehen eta Kontralde. Sarrerak salgai

daude Arin tabernan, ikasle eta langabeentzat 3 eurotan eta langileentzat 5 eurotan. Zapatu gauean zehar ere eskuratu ahal izango dira sarrerak, gaztetxera bertaratuta.

Hilaren 28an, akustikoak

Hori, Erresistentzia Kutxa hauspotzeko egunari dagokionez. Izan ere, ostiralean, hilak 28, 22:30ean hasita, bi emanaldi akustiko egongo dira gaztetxean, hango kideek antolatuta: Katarisia eta Nhil Band. Bergararrak dira lehenengoak, pop zein rock doinuak uztartzen dituztenak; bigarrena, berriz, Leintz bailarako musikariek osatzen dute. Sara Alonso abeslariak, tartean.

'Atalak' sorkuntza-lanaren lehen mokadua dastagai eguaztenean

Gorputza, dramaturgia eta proiektio digitalak uztartzen dituen obra Olanaren aurkeztuko dute, 19:00etan

H.L. ANTZUOLA

Eider Sanzek, Amaia Santamariak, Nerea Elorzak eta Ainhoa Alberdik *Atalak* antzezlan abstraktua ontzen dihardute, DAPen *Behatxulo* deialdiaren baitan. Sanzek azaldu duenez: "Besteen islek gutako bakoitzean duen eraginari buruzko hausnarketa bihurtu da obra, ikerketa teoriko batetik abiatu eta *butoh* iluntasunaren dantza jorratzen duena, *mapping*-a eta halako ikus-entzunezko teknikak erabilita". Oraindik ez dute guztiz bukatu, eta publikoaren iritzia kontuan hartu gura dute, azken ukituak emate aldera. Baina argi daukate erosotasunaren aurkako erresistentzia-lan bat egin gura dutela: "Dramaturgia idazterakoan galduta sentitu gara, eta hori oso interesgarria da, gauzak beste modu batera egiteko bidea ireki zaigulako".



Atalak proiektuko laukotea. E.S.

Adierazteko modu berriak lantzeko aukera emateagatik eskertuta agertu da Sanz Debagoieneko Antzerki Plataformarekin: "Hemen harrobia dago, eta ikusten da, batez ere, emakumeok prest eta desiratzen gaudela halako lanei heltzeko".

Udalekuetako izen-ematea apirilaren 30ean bukatuko da

Aurten uztailearen 3tik 13rarte egingo dituzte udalekuak Antzuolan, 5 urtetik LHko 6. mailara arteko haurrei bideratuta. Aste barruan 09:30etik 13:00etara egongo dira begiraleekin. Parte hartu ahal izateko izen-ematea bi modutan egin daiteke, eskuz edo Internet bidez. Lehenengo aukerari dagokionez, udaletxean edo liburutegian dagoen inprimakia

bete eta ordainketa-agiriarekin batera udaletxeko idazkaritzara edo liburutegira eraman behar da; beranduenez, apirilaren 28rako. Beste aukera da *antzuola.eus* webgunearen bidez egitea, eta apirilaren 30a da azken eguna. Bertan ageri dira diru-sarrerak egiteko kontuak. Udaletik adierazi dute norbaitek izena eman ostean baja emanez gero ez zaiola dirurik bueltatuko, "begiraleen kopuruan eta udalekuen programazioan gorabeherak ekar ditzakeelako".

Txirindulari gazteenen lasterketa egingo dute bihar

Lokatza Ziklismo Eskolako herriko kaleetan zehar jokatuko diren eskolarteko lasterketa antolatu ditu biharko, hilak 22. Benjamin, alebin eta infantil mailetakoei parte hartuko dute, nork bere kategorian, eta, Herriko Plazatik hasita, zenbait itzuli emango dituzte, ambulatortik igarota. Ekitaldia 16:30ean hasiko da eta proba

bakoitzak 20 minutu inguru iraungo du. Lokatzako kide Iñigo Larrañagak azaldu duenez, 2019an hasi ziren txapelketa hori Antzuolan antolatzen, "herriko gazte askok klubean izena ematen dutela aintzat hartuta". Pandemiako etenaren ostean, iaz berreskuratu zuten lasterketa, denboraldi bukaeran, ekain aldean. Aurten, zonako zazpi taldeko partaideak espero dituzte, 90 inguru, eta tartean izango dira Dorletako Ama eta Aloña Mendikoak ere.

LARREA
TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

MUJIKA HARATEGIA



Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrak eta oilaskoak

Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34

PATXI CASTRO

Era guztietako aukien konponketa

- Tapizatu lanak
- Zumezko eta kanaberazko artikuluen salmenta
- Bessulki, mahai, saskiak e.a

943 78 71 65
639 01 69 69

"Elgeta leku berezia da; indar handia ematen dit"

LARKIN POYNTON OLABARRIA STREET DANCE DANTZARIA ETA KOREOGRAFOA Elgetarra jaiotzez, munduan zehar dabil dantza eskolak eta koreografiak sortzen. Oporretan da egunotan, baina ametsa du Elgetan haren sorkuntzetako bat egitea

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Herrian da egunotan Larkin Poynton Olabarria (Elgeta, 1990). Nazioarte mailan dihardu dantzari eta koreografo lanetan, eta Elgetako lasaitasuna asko estimatzen du atseden hartzeko. Amarekin eta Euskal Herriko lagunekin egoteko egunak dira. **Zenbat denborarako etorri zara?** Hilabete inguru daramat hemen, eta beste aste pare bat egingo ditut. Lana dela-eta alde batetik bestera ibiltzen naiz beti; bira batetik nator eta Taiwanera noa hemendik, Asian beste bira bat egiteko. Denbora dudanean Elgetara etortzen naiz. Hemengo lasaitasuna asko gustatzen zait. Ama eta amaren familia bisitatzera etortzea ere bai.

Saiatzen zara urtero etortzen. Gustuko duzu Elgeta?

Azken lau urteotan pare bat hilabetez egon naiz geldirik, eta atseden hartzeko Elgeta asko gustatzen zait. Izan naiz mundu osoko hiri eta herri askotan, eta esan dezaket Elgeta leku oso berezia dela. Indar handia ematen dit, eta asko betetzen nau. Historia eta istorio asko daude hemen, eta nireak ere badira. Gero, familia dago, euskaraz egiten dut, bista eta txoko zoragarriak daude... Oso inspiratzailea da nire artearendako. Oso gustura egoten naiz.



Larkin Poynton Olabarria, astelehenean, Elgetan. TXOMIN MADINA

"BOST LAGUN DATOZ EGUNOTARAKO; ETA BURUAN DUT HAIEKIN BATERA ELGETAN ZERBAIT SORTZEA"

Nola ikusten duzu herria?

Beti bezain eder, baina pena apur bat ematen dit hainbeste denda itxita ikusteak. Dendak, tabernak... Antzokia ere itxita dago. Egia da mundu osoan gertatzen dela. Ikusten dut Japonian, Txinan, Italian... Dena dago

mugikorrean eta gazteek Interneten egiten dituzte erosketak. Poliki-poliki, herri txikiak husten ari dira, eta dena kontzentratzen da hiri handietan. Pena handia da!

Hemen jaiotakoa zara, baina 2 urterekin egin zenuen Coloradora gurasoekin.

Bai, txikitik joan nintzen Coloradora, baina nire pasaportearen Elgetakoa naizela jartzen du. Gero, familia handia dut hemen eta kontaktuan jarraitzen dugu. Garrantzitsua da harremanak zaintzea eta familiarekin ondo egotea.

Enpresaritzaz ikasketak egindakoa zara, baina azkar jakin zenuen gorputzak dantza eskatzen zizula. Musika izan dugu etxean beti. Amak dantza egiten du eta aitak ere bai, haren erara. Gogoan dut behin Marcel Marcearen ikuskizun bat ikustera joan nintzela aitarekin. Hil aurretik egin zuen azken ikuskizuna izan zen. Liluratuta irten nintzen. Gurasoei esan nien dantza egin nahi nuela. Eta horrela hasi nintzen. **Aitari buruz ere galdetu nahi dizut. Hainbat urtez bizi izan zen Elgetan, eta bada haren ingeleseko eskolekin akordatzen denik.**

[Barre] Aita oso ondo dago. Coloradoko Longmont hirian bizi da eta menpekotasunak tratatzeko terapeuta da. Bi master ditu eta bigarren doktoretza egiten ari da. Beti dago gauza berriak ikasten. Jarraitzen du Elgetarekin konexio handia izaten. Chicagotik etorri, eta gaztelera eta euskara ikasi zituen hemen. Elgeta hainbeste maitatzen badut, aitarengatik ere bada. **Oso ondo hitz egiten duzu euskaraz, kanpoan hainbeste denbora egoten zarela kontuan hartuta.**

Egia esan, gaztekeraz baino hobeto egiten dut euskaraz. Gehienbat, amarekin eta hemengo lagunekin egiten dut. Hizkuntza ez galtzeko, Spotifyn dauden ikastaroak egiten ditut, zesta-punta asko gustatzen zait eta euskaraz ikusten ditut partidak, eta saiatsen naiz euskarazko marrazki bizidunak ikusten. Dena den, nahiko nuke gehiago egin, baina oso zaila da klaseak aurkitzea. Frantsesa, txinera, errusiarra... Hizkuntza horiek ikasteko pila bat aplikazio daude, baina euskara ikasteko ez. **Ze asmo duzu egunotarako?** Buruan dut Elgetan zerbaite sortzea. Bost lagun datoz, eta zerbaite grabatzen saiatuko gara.

Liburutegian agenda bete dute datozen asteotarako

Gaur arratsalderako, kale-ikuskizun bat eta 'Liburuak plazara!' ekimena daude iragarrita

L.Z.L. ELGETA

Martxan da umeendako ipuin kontularitza tailerra. Maider Galarzak gidatuta, kontularitza trabatzen hasita daude bospasei ume. Liburutegiko arduradun Geaxi Ezpeletak *Gu ere kontalari* abiarazi nahi du atzera ere. "Datorren astean irekiko da izen-ematea. Lehen saioa maiatzaren 5ean izango da", esan du.

'Liburuak plazara!' gaur

Liburuaren Eguna dela-eta, *Liburuak plazara!* ekimena dago iragarrita gaurko. Ezpeletak plazara aterako ditu liburuak, 16:00etatik 18:30era, eta 17:30ean *Otsok maite* ikuskizuna izango da plazan.

Ezpeletak gogorarazi du, besetik, zabalik dela artista liburuaren erakusketa apiril amaierara arte. "Nahi duenak bere lanak ekartzeko aukera du oraindik ere".

Maiatzarako, aldiz, hezkuntza digitalaren gaineko bi saio daude iragarrita. Maiatzaren 3an, *Heziketa eta segurtasuna Interneten* hitzaldia egingo du KZguneko aditu batek; apirilaren 30erako eman behar da izena. Eta maiatzaren 17an, beste saio bat izango da gurasoen hausnarketarako.

OHARRAK

Mendi irteera

Kantsatzekek antolatuta, domekan, 08:00etan, irteera Urregarai aldera.

Odol-emateak

Astelehenean, 16:30ean hasita, odol-emateak antzokian. Txanda hartzeko: 943 00 78 84.

Xalbadorpe

Eguenerako bingoa antolatu dute, 17:00etan, Ozkarbin.



Larkin eta Isabel –ama–, Elgetan. L.Z.L.



Dantzari eta koreografo gaztea saioetako batean. LARKINPOYNTON.COM



John Poynton, aita. 'LARKINPOYNTON.COM'

Aurten, lan-batailoietara zigortutakoak gogoan

Domekan beteko dira 86 urte Elgeta bonbardatu zutela. Oroimen-ekitaldia iragarri dute Udalak eta Intxorta 1937 Kultur Elkarteak. 12:00etan izango da, eta frankistek espetxera zein lan-behartuetara bidalitako elgetarrak omenduko dituzte

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Aviazione Legionaria Italiako abiazioaren laguntzarekin suntsitu zuten frankistek Elgeta, 1937ko apirilaren 23an. Zazpi hilabeteko erresistentziaren ostean frontea jausi, eta Francoren tropak herrian sartu ziren.

Udalak eta Intxorta 1937 Kultur Elkarteak antolatuta urtero egiten dute oroimen-ekitaldia herrian. Aurten, frankismoak espetxera zein lan-behartuen batailoietara zigortutako elgetarrak omenduko dituzte –izenak, eskuman–. Zerrenda handitzen doa egunez egun.

Intxorta 1937 Kultur Elkarteko Juan Ramon Garaik gogorarazi du bonbardaketarekin Elgeta txikituta gelditu zela. "10.000 lehegailu bota zituzten Elgeta moduko herri txiki batean, eta txikitu egin zuten. Bonbardaketatik ihesi joandako zibilek suntsituta aurkitu zuten herria itzultzerakoan. Apenas zegoen etxerik zutik".

Frankisten bigarren mendekua izan zen berreraikitze-lanak urte asko atzeratzea. "Udal frankistak 1938an eskatu zuen herria berreraikitzeke, baina 1944ko apirilaren 24an jarri zuten udal-txearen lehen harria; herria txikitu eta zazpi urtera. Bada, 1946an inauguratu zuten udale-



Euzko Gudarosteko soldaduak Elgetan 1936 eta 1937 artean. INTXORTA 1937 KE

txea, eta beste lau zapabost urte behar izan ziren etxeak konpon-tzen hasteko. Zalantza barik, bigarren mendekua izan zen".

Langile-batailoiak

Dokumentatuta dago 102 preso osatutako langile-batailo bat heldu zela Elgetara 1940an. Hondakinak kentzeko lanetan aritu ziren. "Domingo Iturbe patronatua eduki zituzten. Udaltxean oraindik ere irakur dai-teke *Construido por regiones devastadas* dioen idatzia", dio Garaik.

Modu berean, hainbat elgetar bidali zituzten lan-batailoietara. Oraingoan, 72 laguneko zerrenda osatu dute Intxorta 1937 Kultur Elkarteko kideek. "Gehienak, preso hartu eta epaiketarik gabe –ez zutelako deliturik– bidali zituzten lan-batailoietara. Espainia osoan egon ziren: Kordobatik Errenteriarra, Cuelgamuros bailarako Erorien Haranetik pasata. Behartutako lana zen. Beste edozein langilek baino 40 aldiz gutxiago irabazten zuten. Horregatik diogu esklabo-lana zela".

Domekako ekitaldiko omenduak

ITURRIA: INTXORTA 1937 KULTUR ELKARTEA.

Kartzelan zein lan-batailoietan egondako elgetarrak

- Agirre Zaldubide, Luis.
- Agirreazaldegia Aranzabal, Gerardo.
- Agirreazaldegia Aranzabal, Victor.
- Alberdi Bolinaga, Antonio.
- Alberdi Bolinaga, Jose Maria.
- Alberdi Juldain, Basilio.
- Alberdi Iribecampos, Juan.
- Aldai Otadui, Eustakio.
- Aranguren Olañeta, Jose.
- Aranzabal Alberdi, Aniceto.
- Aranzabal Laskurain, Ambrosio.
- Aranzabal Laspiur, Feliciano.
- Aranzabal Laspiur, Timoteo.
- Aranzabal Markiegi, Faustino.
- Aranzabal Zubimendi, Eugenio.
- Aranzabal Zubimendi, Victor.
- Aranzeta Alberdi, Felipe.
- Aranzeta Aranzeta, Julian.
- Aranzeta Arregi, Anastasio.
- Aranzeta Arregi, Jose Maria.
- Aranzeta Iturricastillo, Eulogio.
- Aranzeta Lizarralde, Angel Alejo.
- Aranzeta Zubierrearteria, Victor.
- Arrieta Oar, Jose Martin.
- Arregi Aranzeta, Justo.
- Askasibar Aranzabal, Antonia.
- Azkarate Basauri, Juan.
- Basauri Azkarazo, Ricardo.
- Beistegi Alzuaran, Fernando.
- Belastegi Elkoroiurbe, Pedro.
- Belastegi Loidi, Julian.
- Bolinaga Belar, Alejandro.
- Elkoroi Aranburu, Angel.
- Elkoroi Aranburu, Jose.
- Elkoroi Goikoetxea, Pedro.
- Etxaniz, Francisco.
- Gallastegi Elejalde, Manuel.
- Gallastegi Elejalde, Jose Mari.
- Gallastegi Gallastegi, Emeterio.
- Gallastegi Gallastegi, Isaac.
- Gallastegi Gorosabel, Francisco.
- Gallastegi Irazabal, Johana.
- Gallastegi Irazabal, Antonio.
- Garitano Askasibar, Francisco.
- Gaztelu Larrañaga, Florencio.
- Irazabal Aranburu, Jose.
- Irazabal Olega, Francisco.
- Irazabal Telleria, Roque.
- Irazabal Telleria, Felix.
- Irazabal Telleria, Sebastian.
- Irazabal Telleria, Jose Manuel.
- Iturricastillo Aranzabal, Lorenzo.
- Iturricastillo Gurtubai, Pantaleon.
- Larrañaga Aranzabal, Juan.
- Larrañaga Elkoroiurbe, Antonio.
- Larrañaga Lamarain, Anastasio.
- Laspiur Irazabal, Apollonia.
- Laspiur Urrutia, Salvador.
- Maistegi Mugika, Antonio.
- Markiegi Olañeta, Juan.
- Mazarriaga Aranzeta, Evaristo.
- Mazarriaga Aranzeta, Dionisio.
- Olabarria Aranguren, Manuel.
- Ormazabal Agirre, Felipe.
- Sagastigutxia Etxebarria, Carlos.
- Sarasketa Egiluz, Cirilo.
- Ugarte Eguren, Demetrio.
- Unamuno Arbulu, Roman.

Lazkanok, beste pauso bat mendi lasterketetan

Espainiako Mendi Lasterketen Lineako Txapelketan izan da junior mailako Urko Lozano elgetarra – argazkian, hirugarrena–. Mendaroko proban lortu zuen euskal selekzioarekin sailkatzea, eta Kordoban lehiatu da aste bukaeran. "Bero handia zegoen eta emaitzek ez dute lagundu, baina esperientzia polita izan da", esan du. Oihana Kortazar nagusitu da emakumeetan.



URKO LOZANO

Iker Laka eibartarra izango da EAJren alkategaia

Iker Laka Barandika izango da EAJren zerrendaburua Elgetan maiatzaren 28ko hauteskundeetarako. 28 urte ditu eta eibartarra da. Politologoa da ikasketaz. Eibarko EGiko idazkari nagusi izandakoa, besteak beste. Debagoieneko EAJK alkategaia aurkeztuko ditu gaur Oñatin, eta Elgetakoa ere han zango da, gainerako herrietakoekin batera.



GOIENA



Oñatiko Kale Katuen Elkartearen osatzen duten hainbat kideren talde argazkia. OKKE

Kaleko katuen ongizatea bermatzeko jaio da OKKE

Herrian ahalik eta kaleko katu gutxien egotea eta daudenak ahalik eta baldintza onenetan egotea da elkartearen asmoa, eta katuak jaso, antzutu eta berriz euren kolonietara bueltatzeko prozesua jarri gura du martxan, Udalarekin batera

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Kalean topatutako katuak hartu, antzutu eta berriz euren kolonietara bueltatzeko prozesua jarri gura du martxan Oñatiko Kale Katuen Elkarteak. "Udalaren erantzukizuna dira kaleko katuak, txakurrak diren moduan, eta zaintza horretan laguntzeko helburua du sortu berri dugun elkarte horrek", dio elkartearen kideen izenean Aitor Alberdik.

Udalarekin batera

Orain arte lan hori herritar askok egin dutela dio Alberdik, bakoitzak bere aldetik, baina elkarrekin harremanetan jarri eta elkarte osatzea erabaki zutela, "indarrak metatu eta egiten duten lan horretan eraginkorragoak izateko". Egun, 35 bat kide dira elkartearen, eta hainbat taldetan daude banatuta: elikaduraz arduratzen direnak, Udalarekin harremanetan daudenak, adopzioan laguntzen dutenak eta antzutzeko bidea jarraitzen dutenak.

Udalarekin harremanetan daude elkartearen kideak, eta, hitzarmena sinatzeko zain dauden arren, egin dituzte hainbat bilera udal ordezkariarekin gaia lantzeko. "Eskatzen duguna da antzutu beharra duten katuak identifikatzen ditugunean Udalak hartzea haiek antzutzeko ardura. Herriko albaitariarekin ere hitz eginda, euren eramaingo genituzke katu horiek, eta, behin euren osasun egoera aztertuta eta antzutea eginda, berriz euren tokira eramango genituzke. Katuek umaldi bat baino gehiago izaten dituzte urtean, hiruzpalau, eta katakume kopurua horrenbeste ez hazten lagunduko luke horrek, adibidez. Oinarrian, gure asmoa

KATUEI JATEN EMATEKO GUNEAK JARTZEA DA ASMOA, SOILIK BAIMENA DUTEN EKIKATZEKO

da herrian ahalik eta katu kale gutxien egotea eta daudenak baldintza onetan egotea".

Izendatutako janlekuak

Arrasaten eta Legazpin badira elkartearen katu ongizatea helburu dutenak, eta orain, baita Oñatin ere. "Boluntarioak gara. Kongresuak onartutako Animalien Ongizatearen Legea irailean jarriko da indarrean eta Udala behartuta egongo da katuak zaintzera, eta laguntzeko gaude gu", dio Alberdik. Herriko mapa bat hartu eta katuendako egokiak izan daitezkeen janlekuak non jarri aztertu du taldeak dagoneko. Kartel baten bitartez egongo dira adierazita gune horiek, eta horretarako baimena duten herritarrek bakarrik eman ahal izango diete jaten katuei gune horietan.

Elkartearen kideekin harremanetan jartzeko, sare sozialak eta bi telefono-zenbaki hauek erabil ditzakete herritarrek: 677 98 54 11 eta 635 74 84 15.

Bigarren itzularazi dute Joseba Arregi kartzelara

Ettxerategi jakinarazi duenez, Martuteneko espetxera itzuli behar izan zuen Joseba Arregi astelehenean, fiskaltzak jarritako helegitearen ondorioz. Bigarren aldia da Arregi gradu erregresioa jasaten duela. Hori salatzeke, Oñatiko Sarek manifestazioa deitu du gaurko, *Gradu erregresiorik ez!* lelopean. 19:00etan abiatuko da, plazatik.

Hirugarren gradua jaso zuen Arregi 2022ko otsailean, tratamendu-batzordeak proposatuta. Zortzi hilabetera, Auzitegi Nazionalak bigarren gradura itzuli eta espetxera bidali zuen. Joan den astean hirugarren gradua lortu zuen berriz Justizia Departamentuaren aldetik, baina fiskaltzak berriz jarri zuen helegitea. Doktrina berriarekin, nahikoa kartzelara itzularazteko. 77 urte ditu; 31 kartzelan eman ditu. Espainiako zigorraren hiru laurdenak 2019an bete zituen.

Beskoitzeko eta Oñatiko ikastolek zubia eraikiko dute

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Pirinio Atlantikoetako Departamenduko Kontseiluak, lankidetzan, Ideiak 2022 egitasmoa kaleratu zuten joan den urtean, mugaz bi aldeko gizataldeak elkarrekin harremanetan jartzeko. Ordurako jada Beskoitze eta Oñatiko ikastolak harremanetan zeuden eta proiektu bateratu bat aurkeztu zuten, ekime-

na sakontzeko helburuarekin: *Beskoitze-Txantxiku: Bi ikastola, zubi bat*. Erakundeek diru babesa lortu zuen proiektuak, eta elkar hobeto ezagutzeko topaketak egingo dituzte datozen bi asteburuetan. Oraingoan, Beskoitzeko ikastolako familiak etorriko dira Oñatira, eta hurrengoan, oñatiarrak izango dira Lapurdira joango direnak. Ikastolaren astearren barruan izango da bisita. Bihar, bestalde, Pirritx, Porrotx eta Marimotots etorriko dira, 17:00etan.

Hamar mintegi ditu prest Lege Soziologia Institutuak

Astean hasi dute 2023ko bilera zientifikoaren egitaraua Lege Soziologia Institutuan. Hamar mintegi prestatu dituzte hemendik uztaila amaiera bitartean egiteko. Mintegi eta bilera horietan nazioarteko adituak elkartzeko dira, egiten ari diren ikerketen berri elkarri emateko eta lege soziologiako gaien feroetan txertatzeko.

Udaberri Astea ari dira ospatzen Pake Leku elkartearen

Martxoaren amaieran egin zuten urteko osoko bilkura Pake Leku elkartearen kideek, eta zuzendaritza berri zuten, aurreko urteko balantzea eta hurrengo proiektuak onartzearekin batera. Talde berriaren gidaritzapean ari dira orain Udaberri Astea ospatzen. Bukatzeko, gaur emaldia egingo du Aloña abesbatzak, 19:00etan, Santa Anan.

Emakumeen Etxearen oinarriaz jardungo dute martitzenean

Emakumeen Etxearen oinarriak zein izan behar duen eztabaidatzeko mahai-ingurua egingo dute datorren astean. Zeren gainean eraikiko duten eta denek proiektua berdinduz ulertzen ote duten landuko dute, batez ere. Mahai-ingurua martitzenean izango da, apirilaren 25ean, 18:00etatik 20:00etara, Eltzia hirugarren solairuan. Saio irekia da.

Gaur, egubakoitza, egingo dute apirileko odol ateratzea

Apirileko odol ateratzea egingo dute gaur, egubakoitza. 16:30etik 20:30era izango da, Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultatean. Donostiatik mezua jasotzen dutenek, gonbidapena jaso ez dutenek edo lehen aldiz eman gura dutenek aurrez deitu behar dute eta ordua hartu, 08:30etik 13:30era, telefono-zenbaki honetara: 943 00 78 84.



Hileko bigarren zapatuan Hotz Oñatik plazan jartzen duen postua. HOTZ OÑATI

Migrazioaren eskubidea landuko du Hotz Oñatik

Zapatuan plazan egingo duen azoka txikian banatuko du elkarteak kanpainaren inguruko informazioa herritarren artean, eta ekintza artistikoak, film emanaldiak eta hitzaldiak antolatu ditu, migrazioa guztion eskubidea dela aldarrikatzeko

Goiena komunitatea

Hotz Oñati / OÑATI

Migrazioa guztion eskubidea izeneko kanpaina egingo du Hotz Oñatik apirilean eta maiatzean. Migranteen egoera ikusaraztea da kanpaina horren helburua, eta haien eskubideak aldarrikatzea, migrantea edonor izan daitekeela gogoraraztearekin batera.

Zapatuko azokan

Bihar goizean plazan jarriko duen postuan banatuko du Hotz Oñatik kanpainaren informazioa. Ohikoa den moduan, hainbat produktu egongo dira salgai: eskuz egindako poltsak, belarrikakoak, gozoak –bizkotxoak,

madalenak...-. Boluntarioek egindakoak izango dira denak, eta, norbaitek zerbait eramanda lagundu nahi izanez gero, aukera egongo da horretarako ere, hark egindako hori 10:30erako plazara eramanda.

Kanpainari buruzko informazioa banatuko dute azokara joaten diren herritarren artean, eta datorren astean ekintza berezi bat egingo dute kanpainari hasiera emateko. Apirilaren 29an izango da hori. *Kantu eta kolorez migrazioaren alde* izeneko ekintza artistiko kulturala egingo dute, festa giroan, plazan. Pintura, mosaikoak, bertsoak, musika eta elkartasuna egongo dira, besteak beste.

Maiatzerako hitzorduak

Apirilako ekintza artistikoaz gain, hitzordu hauek ditu antolatuta Hotz Oñatik datorren hilabeterako, maiatzerako: Ane Irazabalen *Awlad*. *Hesiak Gainditu* dokumentala 3an; animaziozko *Ehiza* film laburra 10ean; *Haizearen egia* filma 17an; eta Yemengo egoerari eta Frontera Sur-i buruzko hitzaldiak 23an eta 31n.



NIRE USTEZ

MANU EGAÑA

Gutariko azkena

Max Richter-en *On the Nature of Daylight* entzunez irakurri.

Etxean telesail-zaleak gara. Astean pare bat aldiz saiatzen gara etxeko laurok telesail bat elkarrekin ikusten. Horrek, jakina, Yolanda eta Pabloren harremanarekin lehian dauden tentsio-uneak dakartzat –kasuren batean, Eba eta Maiorgarengana hurbilduz-. Baina auzitegietatik pasatu beharrik gabe, akordioetara iristen gara. *The last of us* izan da azkenurrena. Zonbi gaia duen bideojokoan oinarritutako telesaila. Lana, umeak jaso, eskolaz kanpokoen entropia, kirol pittin bat, afaria, eta etxea pixka bat jaso ondoren, nahiko apokalipsi zonbi da nire burua. Baina astean zehar laurok elkarrekin egiten dugun gauza bakarretakoa da. Eta eszenario postapokaliptiko batean odol-uholdeak aurkitzea espero dugunean, kutxa tontoak lore eder bat erakutsi digu. Hirugarren kapitulua pantaila batean inoiz ikusi dudana maitasun-istorio politenetako bat da. Negar egin dugu elkarrekin, eta hori beti ederra da. Maitasun eta Itxaropen istorio baten aurrean. Itxaropena Zerbait edo Norbait horretan, aurrera egitera animatzen gaituena, egunero.



GOIENA

Sara Alonso elkarrizketatu dute

Nhil musika taldeko abeslari eta Gazteako irrati esatari Sara Alonso elkarrizketatu dute Elkar Heziko ikasleek Goiena telebistako *Galdegazte* saioan. Ane Goitia, Mariana Vasconcelos eta Sara Zubia ikasleek egin dizkiete galderak platoon, eta errealizazio-gelan izan dira saioa jarraitzen Lukene Sanchez, Yesenia Elyane eta Estefani Curay.

Gualbi
aholkularitza

ZERGA, KONTABILITATE ETA
LAN ARLOKO AHOLOKULARITZA

ABOKATUAK
KONTU IKUSKARIAK

Bezero guztien beharrei erantzuteko prest!

Euskadi Etorbidea, 6 (OÑATI) • 943 78 16 48 • onati@gualbiasesores.com • www.gualbiasesores.com

Gorabeheren denboraldia ez da oraindik amaitu

Aloña Mendiko eskubaloiko senior mailako mutilen taldeak jaitsiera fasea jokatu du aurten, eta laugarren postuan amaitu du. Orain, beste emaitza batzuen zain dago, hurrengo denboraldian Euskadiko Txapelketan jarraituko duen edo ez jakiteko

Iñigo Barrena Kortabarria OÑATI Fagor Professional Aloña Mendik Aste Santua iritsi aurretik amaitu zuen jokatzeko ari zen jaitsiera fasea, Urdaneta taldeari 25-37 irabazita. Garaipen horrekin, laugarren tokian amaitu dute txantxikuarrek; hasiera batean, maila mantentzeko balio beharko zuen postua. Denboraldia, ordea, ez da amaitu Aloña Mendikoentzat, hurrengo asteetan adi jarraitu beharko dute eta igoera fasean gertatzen dena eta Lehen Maila Nazionalean gertatzen dena; askotariko aukerak daude zabalik.

Alde batetik, Maila Nazionaltetik Euskal Autonomia Erki-



Aloña Mendiko jokalaririk bat jaurtiketa egiteko unean. IMANOL SORIANO

degoko talderen batek maila galduz gero, horrek Aloña Mendiri maila galtzea ekarriko lioke. Hain zuzen ere, hiru jardunaldi gelditzen dira Maila Nazionaleko liga amaitzeko eta Elgoibar da azken sailkatua, salbazioa sei puntura duela; beraz, kontrakorik ezean, gipuzkoarrek maila galduko dute, Aloñari zuzenean eraginda. Hala ere, ez da automatikoki jaitsiko, mailari eusteko beste ate bat zabalik dago eta; Aloñaren kategoriako lehen bi sailkatuek lortuko duten emaitzek baldintzatuta.

Txantxikuarren kategorian, jaitsiera fasea bezala, igoera fasea jokatu dute gainontzeko taldeek. Hala, Zarautz eta Basauri izan dira lehen biak, eta haiek datorren denboraldian Maila Nazionalean izateko txartela izango dute jokoan hurrengo asteetan jokatu diren kanporaketetan. Bietako batek igotzea lortuz gero, Aloñak maila mantenduko luke, azken horiek EAEko taldeak direla kontuan hartuta. Bietako inork ez badu igoera lortzen eta horri Elgoibarren maila galtzea batuz

gero, Aloña Mendi datorren denboraldian Gipuzkoako senior mailan arituko litzateke, urte askoren ostean.

Denboraldi zaila aurtengoa

Egiari zor, aurtengoa ez da denboraldi erraza izaten ari Aloña Mendiko eskubaloiko taldearentzat, eta halaxe izango da denboraldi amaierara arte. Gogoratu behar da taldeak entrenatzaile gabe ekin ziola aurtengo lehiaketari, horrek ekarri ditzakeen ondorioez jakitun zirela. Azkenean, Jon Ander Osinagak eta Iñaki Zabartek hartu zuten taldea zuzentzeko ardura, eta, egindako lana handia izan arren, hasierako arazoak denboraldi osoan izan dituzte.

Emaitzek ez diete bereziki lagundu eta lehenengo fase erregularrean ez zuten igoera fase-rako sailkatzerik lortu, non aurreko denboraldian hirugarren izan ziren. Jaitsiera fasean ere lehia estua izan dute eta gogotik egin behar izan dute lan laugarren tokian amaitzeko. Horrek, ordea, ez die lasaitasunik ekarri; izan ere, kantxetan ez bada ere, lehia izango dira oraindik.

Finalerako txartelak jokoan bihar Herriko Futbol Txapelketan

Lau talde izango dira nor baino nor gehiago biharko finalerdietan, eta guztiek dute helburu bera: hurrengo asteburuko finalean izatea. Denboraldi osoan lehian ibili ostean, zirt edo zart egiteko unea iritsi zaie. Lehen finalerdian (13:00) Albok eta Weinguter taldeek neurtuko dituzte indarrak. Lehenak beterranoak dira txapelketan; biga-

rrenek, osterar, lehen urtea dute Herriko Futbol Txapelketan. Hasiberrien ilusioari kontra egin beharko diote Albok taldeko jokalariek, finalean izan nahi badute.

Bigarren finalerdian, berriz, txapelketako bi klasikoren arteko neurketa ikusi ahal da. Mazedonia eta Sasquatch aski ezagunak dira HFTn, eta aurten ere liga titulua eskuratzea, ez dute beste helbururik. Neurketa hori arratsaldean jokatu da, 18:30ean hasita.

Jose Antonio Mur omendu dute Arantzazuko Igoeran

Arantzazuko Igoera irabazi zuen azken oñatiarra izan zen Jose Antonio Mur, 1969. urtean. Joan den otsailean hil zen Mur, eta, hain zuzen ere, Aloña Mendiko txirrindularitza sailak omenaldia egin dio, aurtengo igoeraren karteletako ikur jarritan; duela hiru urte sari bana-ketara gonbidatu zuten, 50. edizioaren harira.

53. edizioaren lasterketa datorren asteburuan jokatu da, hilaren 29an, ohiko data berreskuratuz. Arratsaldeko laurutan hasiko da, Trianan, eta txirrindulariek 70 kilometroko ibilbidea osatu beharko dute, amaierako Sindikako aldapa gogorrean amaitu aurretik. Mende erdi igaro dira azkeneko etxeko batek Arantzazuko besoak altza zituela, eta, nahiz eta azken urteetan batzuk geratu izan diren, momentuz, Murrek du lorpen hori.



DEBAGOIENEN GREMIOAK



ARROZTEGIAK
AZKARATE ARROZTEGIA
BERGARA
Telleria 19 B02-B03
Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20
blogak.goiena.net/azkarate

LOREZAINZTA
MAKAI KOOP. ELKARTEA
ARETXABALETAKO
Basabe poligonoa D-2-1
Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98
Faxa: 943 79 78 45

ITURGINTZA
EGIA ITURGINTZA
ARRASATE
Gipuzkoa etorbidea 39, behea
Tel.: 943 77 01 85

URKO MANTENIMIENTO SL
ARETXABALETAKO
Basabe industrialdea B-3
Tel.: 943 77 19 88
Faxa: 943 79 59 97

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu 943 25 05 05 zenbakira.



Txuleton's taldeko sei kideak Garate estudioan. TXULETON'S

Txuleton's, betiko patxadan eta erritmoan

Puntaik Punta jaialdiaren barruan joko du Txuleton's taldeak zapatu iluntzean plazan eta mimoz prestatutako kontzertua egingo dutela aurreratu dute, jarraitzaileek ondo ezagutzen dituzten katuak izango dira batzuk eta zuzenean inoiz jo barikoak beste batzuk

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

"Sorpresaz" hartu zuten Txuleton's taldeko kideek Puntaik Punta jaialdian kontzertua eskaintzeko gonbidapena, "sorpresa atsegina". Ez ditu kontzertu askorik egiten taldeak, eta 25 urte baino gehiago daramatza musika egiten. Patxadan lantzen duten erritmoarekin egingo dute biharko emanaldia.

Kantu desberdin asko

Taldearen jarraitzaileendako eta ingurukoendako ezagunak diren abestiak izango dira joko dituzten batzuk, baina baita inoiz zuzenean jo gabeak ere. Denak eurek sortutakoak.

Eltzian egiten dituzte entsegua taldekideek. Hamabostean behin elkartzen saiatzen dira, arratsaldeetan orain, eta hantxe hartzen dute tartea musikaz gozatzeko. Urte hauetan guztietan egindako entseguen %90 inguru grabatuta dute eta egindakoa entzuten ere gozaten dutela diote, kantu berarekin

bertsio asko dituztelako. "Ez dugu kantu bat behin eta berriz jotzen perfekziora heldu arte. Behin eta berriz jotzen dugu, baina aldiro pieza ezberdina da, musikagatik edo letragatik". Izan ere, inprobisazioa maite dute taldekideek eta esperientzia berria izaten da kantu bat jotzen duten aldiro.

Estudioan egon berri

Oraingo, disko bakarra dute grabatuta, 2001. urtekoa. Duela gutxi, baina, hamar bat abesti grabatu dituzte Garate estudioan. Lan hori diskoan jasoko duten, beste euskarri baten entzungo den edo kaleratuko duten ere ez dute oraindik pentsatu. "Baina oso sentsazio onekin buelta

HAMAR BAT KANTU GRABATU DITUZTE GARATE ESTUDIOAN, ETA OSTEKO LANEKIN DABILTA ORAIN

tu gara estudiantik, gustura". Grabazioaren osteko lanak ari dira orain egiten, eta kantu gehiago grabatzea ere beste aukera bat da.

Zuzenean plazan

Patxadaz aritzen dira, baina erritmoa galdu barik, rock doinuekin gehienetan, baina blueusa edo reggaea, adibidez, baztertu barik. Denen artean sortzen dituzte abestiak eta ehunka egin dituzte hasi zirenetik hona.

Jabi Egañak (abeslaria eta saxoa), Karmelo Alberdik (gitarra), Roberto Zabartek (gitarra), Fernando Mugartzak (baxua), Xabier Arregik (bateria) eta azkeneko sei bat urteetan kide duten Sven Linnenbruggerrek (teklatura) osatzen dute Txuleton's taldea, eta mimoz prestatutako kontzertua egingo dute bihar, zapatua, 20:30ean, plazan. Ez dituzte zuzeneko asko eskaintzen, Inozente Eguneke emanaldiari eusteaz gain, baina gonbidapenak hartzeko prest daude.

Ekintzak ugari liburutegian Liburuaren Eguna ospatzeko

Literatura izango da protagonista, baina musikak eta zinemak ere izango dute euren lekua datorren astean

I.B.K. OÑATI

Apirila hilabete berezia izaten da liburutegientzako, liburuaren hilabetea izaki era guztietako ekintzak antolatzen baitituzte; aurten ere halaxe izaten ari da. Irakurketa taldeak eta idazketa tailerrak zabalik jarraitzen dute, baina eskaintza zabala antolatu dute liburutegitik Haur Liburuaren eta Liburuaren nazioarteko egunak ospatzeko.

Hasteko, hilaren 25ean, *Lerro tunelak* izeneko emanaldia egingo dute, elkarrekin, bi oñatiarrek: poesiak errezitatu dituzte Itziar

Ugartek eta zuzeneko musika jarriko du Iban Yanizek.

Hilaren 27an, berriz, 1 eta 3 urte bitarteko umeendako ipuin kontaketa egingo du Glu Glu taldeak: *Colectivo Humo*. Proposamen bisual poetikoa da. Ia testurik gabe, ura da protagonista. Emanaldia 18:00etan izango da, haur liburutegian.

Azkenik, hileko azken asteko zineklubeko filma ere liburuari lotutakoa izango da. Maria Elorza egilearen *A los libros y a las mujeres canto* dokumentala emango dute, 20:00etan.

Artixena Eguna ospatuko dute bihar, Arte Jardunaldien bueltan

Egun osoko egitaraua prestatu dute antolatzaileek; arte jardunaldiak, ordea, hilaren 26an amaituko dira

I.B.K. OÑATI

Hilaren 12az geroztik Arte Jardunaldiak ospatzen ari dira Antixena gaztetxean, hango kideek antolatuta, eta datorren eguaztenean emango zaie amaiera. Gaur, grafiti tailerra egingo dute; eta datorren asteartean, Photoshop ikastaroaren bigarren tailerra izango dute. Bien bitartean, ordea, Artixena Eguna ospatzeko aprobeztatu dute, bihar bertan.

Egun osorako egitaraua prestatu dute antolatzaileek. Goizeko hamaiketan emango zaio

hasiera egun bereziari, ate irekiekin, eta sortzaile eta artisten azoka, erakusketak eta topalekua egingo dira han. Printzipioz, Antixenako parkean egitea dute aurreikusita, baina eguraldi txarra balego, barruan egingo dute.

Hori amaitzean, bazkaria egingo dute gaztetxean bertan, eta jarraian, bingo *drag-eatua*, Garazi La Fantasy eta Alicia Kisekin. Eguna borobiltzeko, Silitia taldeak kontzertua eskainiko du; hura ere gaztetxean, arratsaldeko zortzietan.

AUTLAN
EMD

Azken belaunaldiko pila alkalinoetarako
Manganeso Dioxido Elektrolitiko ekoizpena.



Malen Osa, iaz, helmugara sartzen. Iaz baino 13 minutu azkarragoa izan beharko du Maioraren errekorra ontzeko. IMANOL SORIANO

Maioraren errekorra begiz jota du Osak

MENDI LASTERKETAK Malen Osa Aloñako Igoeran hirugarren txapela janzteko lehiatuko da domekan. Oñatikoak azken orduko egutegi aldaketa bati esker hartuko du esku etxeko proban. Maite Maiorak 2018an ezarritako marka ondu nahi du Salomonekoak

Xabier Urzelai OÑATI

Azaroan *Harmailatik* saioan egindako elkarrizketan Malen Osak garbi esan zuen 2023an ez zela Aloñako Igoeran egongo. Ez zen erraza izango etxeko lasterketa kuttuna baztertu behar izatea, baina egutegia nazioarteko lasterketetara bideratzearen ordaina da hori. Domekan, baina (09:00), Oñatiko plazan batuko

diren 350 korrikalarietako bat izango da txantxikuarra. "Berez, joan den astean Lloret-en (Girona) izan behar nuen, Espainiako Txapelketan. Ekainaren 9tik 11ra bitartean Innsbrucken (Austria) egingo duten Munduko Txapelketan egotea da helburu nagusia, eta helburu horretara begira Espainiako Txapelketan lan ona egitea zen asmoa".

Baina Salomoneko taldekideekin hamaika eguneko *training camp* edo egonaldi batetik itzuli berri da Osa, eta Lloretara atsedean hartu barik joango zen. "Annecyn (Suitza) eta Portugalen egon naiz, elite mailako kirolari onentsuenekin, eta sekulako esperientzia izan da. Halako egonaldiak taldea egiteko erabiltzen dira, denok elkar

ezagutzeko, eta, horrekin batera, baita gogor entrenatzeko ere. Eta handik bueltan atsedenerako beharra nuen. Horregatik, hautatzailearekin berba egin eta esan zidan lasai egoteko; egutegian moldaketak egin ditugu, eta horri esker egongo naiz domekan Oñatin".

Gozatu, iaz ez bezala

Askotan, garaipenak ez dira lasterketan gozatu izanaren ondorio. Osak iaz ikusi zuen hori, hain zuzen, Aloñako Igoerako bigarren txapela irabazi zuenean. "Ez nintzen gustura ibili, eta aurten gozatzera noa; hori nahi dut. Beste batzuetan, ibiltzen zara ikusten ze lasterkari izango dituzun ondoan, zeintzuk ez... Aurten nire lasterketa egitera noa, neure buruaren kontra lehiatzera. Hasiara batean, Salomoneko taldekideekin egindako entrenamendu-saioek fruituak eman beharko lituzkete". Eta lehia hori erlojuaren kontra izan nahi du. "Lasterketako errekorra ondu nahi dut. Maite Maiorak 2018ko lasterketan 2.20.40 egin zuen, eta uste dut saiakera egiteko moduan nagoela".

Hala, emakumezkoetan faborito nagusia Malen Osa da, eta gizezkoetan Aitor Ajuria gaztagarra nabarmendu daiteke. Oñatiko lasterketako erreferenteetako batek, berriz, huts egingo du: Aloñan sei alditan nagusitu den Walter Becerra ez da lasterketan egongo. Haiez gain, maila handiko beste hainbat korrikalarik parte hartuko dute emakumezkoetan zein gizezkoetan; besteak beste, Ane Zabala, Maddi Mujika, Saioa Arkonada, Xabier Lete, Beñat Etxabe eta Jokin Etxabe anaiak, baita Aner Iñarra ere.

Bi berrikuntza

Ibilbideak aldaketarik izango ez duen arren -22,6 kilometro eta 1.800 metroko desnibel positibo-, bi berrikuntza "txiki" sartu dituzte edizio berrirako: alde batetik, korrikalarietako lasterketa dohainik egiteko aukera izango dute. Horretarako izen-ematea berbera izan da eta ordaindu ere egin dute, baina lasterketa amaitu ostean dirua itzuli egingo zaie eta ez dute oparirik jasoko; hain zuzen ere, hogei pertsona izan dira aukera hori aprobetxatu nahi izan dutenak.

Bestalde, bigarren berrikuntza ikusleei zuzendutakoa izango da, lasterketa *streaming* bidez jarraitu ahal izango da eta. Herriko plazan pantaila handi bat jarriko dute lasterketa zuzenean jarraitu ahal izateko, eta etxetik ikusi nahi duenak ere Aloñako Igoeraren Youtubeko kanalean izango du aukera.

Egun osoko jai

Lasterketa ez da soilik nagusientzat izango: etxeko txikienendako zazpigarren urtez Aloña Txiki ere antolatu dute. Baina aurtengoan bada beste gehigarri bat: Aloñako Igoera Puntaik Punta jaialdiaren barruan sartu dute eta egun osoko egitaraua antolatu dute. Esaterako, lehen korrikalaria iristerako elektrotzaranga bat hasiko da kaleak girotzen, azken korrikalariarekin batera amaitu arte.

2018AN MAITE MAIORAK EZARRI ZUEN PROBAKO ERREKORRA: 2.20.40 EGIN ZUEN

Puntu beharrak baldintzatutako derbia domekan Azkoagainen

FUTBOLA Jaitziera postuetan dagoen Aloña Mendik etxeko lanak ia amaitu dituen Bergara hartuko du

X.U. ARRASATE

Aste Santuko oporraldiaren ondoren, liga jardunaldia bueltatu da asteburuan. Sei jardunaldi falta dira, eta beheko postuetan dauden taldeek asko dute jokoan; tartean, Aloña Men-


dik (29 puntu). Bada, oñatiarrak azkenaurreko lekuan daude, Mondraren (17) aurretik, eta domekan lehia garrantzitsua izango dute (16:30, Azkoagainen), sailkapenean askoz lasaiago dagoen Bergararen (39) kontra.

UDAk ere 39 puntu ditu; haiek ere lasaiago egoteko azken garaipena behar dute, eta erdialdean dagoen Urolaren (41) zelaian jokatu dute domekan, Argixaon (16:30). Eta Mondrak ere etxetik kanpora jokatu du, ligan hirugarren dagoen Oiartzunen zelaian (12:00, Karla Lekuona).

Emakumezkoen ligan, berriz, Leintz Arizmendik eta Bergarak kanpoan jokatu dute. Leintzekoek Hernanin zapatuan (16:30) eta mahoneroek Errenterian (16:00).

PILOTA Bergara eta Aloña Mendi izango dira Herri Herrikoan

Herri Arteko txapelketa aurkeztu dute aste barruan, eta aurtengo ediziora begira Debagoienak bi ordezkari izango ditu: Bergara eta Aloña Mendi. Mahoneroek final-hamaseirenetako kanporaketa jokatu beharko dute, eta Altzoko pilotariak izango dituzte aurrean. Oñatikoek amezketarren kontra izango dute lehenengo kanporaketa.



Iazko Herri Herrikoa. I.S.

"Talde moduan jardutea oso motibagarria da"

ARANTXA ANDUAGA ETA ITXASO PLAZA, IGAMO PACKAGING TALDEKO ZIKLISTAK TXIRRINDULARITZA Debagoieneko emakumezkoen taldea hasi da lasterketetan nabarmentzen; asteburuan egin zuten Lea Artibai Challengean Plaza bigarren izan zen

Xabier Urzelai ARRASATE

Hilabete pasa da Igamo Packaging taldea jendaurrean aurkeztu zutenetik. Ordutik, debagoienearrez osatutako bederatzikoa errepidean dabil lehian. Proiektuaren helburu nagusia ez da lasterketak irabaztea, eta bai bailarako emakumezko ziklisten formakuntzan sakontzea. Baina podiumaren bueltan ibiltzeko lagundu egiten du, eta zelan, gainera. Asteburuan, Anduaga (Oñati,) eta Plaza (Arrasate,) Leonen izango dira, taldekideekin batera, Espainiako Kopan.

Lea Artibai Challengean izan zarete asteburuan. Hasteko, Itxaso, zorianak! Bigarren etapako irabazle izan zinen juniorretan, eta hiru etaparen ondoren Challengean bigarren sailkatu zara.

Itxaso Plaza: Eskerrik asko! Konfiantza hartzeko baliagarria izan da, ikusi ahal izan dudalako nire kategorian onenekin batera egon naitekeela. Lehenengo etapako erlojupekoa ez nuen nahi moduan egin. Lekeitioko kaleetan barrena antolatutako zirkuitua zen, eta, neurri batean, etxean lehiatu nintzen, aita lekeitiarra delako. Ibilbidea ondo ezagutzen nuen, baina ez nintzen ondo moldatu. Gero, ondorengo bi etapetan aurrealdekoren taldean ibili ahal izan naiz, bigarren etapa irabaztea lortu nuen eta pozik amaitu nuen challengea, bai.

Gainera, elite mailakoekin ere lehiatu zara, eta bigarren etapa bederatzigarren izan zinen. UCI kategoriako ziklistak ondoan zenuela jakinda, bada zerbait.

"LASTERKETA BATERA JOAN ETA TALDEKIDEAK EZ EZAGUTZEA... ONDO LANDU DUGU HORI"



Arantxa Anduaga eta Itxaso Plaza. GOIENA



Plaza, Lekeitioko erlojupekoan. LOKATZA

I.P.: Bai, halako emaitzak motibagarriak dira, bai. Etapa azkarretara baino gogorretara hobeto egokitzen naiz, eta bigarren etapen lau mendate izan genituen. Aurrekoen taldean ibili ahal izan nintzen, eta pozik nago, bai.

Arantxa, zu kadete mailan lehiatu zinen. Ez da gauza bera egun bateko lasterketa izan edo hiru etapa jarraian egin.

Arantxa Anduaga: Ez da gauza bera, ez. Ni kadete mailako lehenengo urteko ziklista naiz, eta orain arte ez dut halako

lasterketarik egin. Eta, alde horretatik, esperientzia aberasgarria izan da.

Egin dezagun berba Igamo Packaging taldeaz. Zer aurkitu duzue bertan?

A.A.: Ni Aloña Mendiko harrobikoa naiz, eta lortu duguna da neska gutxi geunden talde batetik emakumezko osatutako talde batera pasatzea. Eta hori oso motibagarria da.

I.P.: Eta nabarmenduko nuke bailarako hiru txirrindulari-klubek indarrak batu dituztela proiektu hori gauzatu ahal izateko.

Elkarrekin entrenatzen zarete?

A.A.: Denboraldiaurrean egin izan ditugu saio batzuk denok elkarrekin. Baina txirrindulari bakoitzak egutegi propioa dauka eta horren arabera entrenamendu saio ezberdinak ditu egiteko.

I.P.: Neguan elkarrekin ibili izana oso positiboa izan da. Bestela, lasterketa batera joan eta konturatzan zara ondokoarekin ez duzula harremanik. Hori denboraldiaurrean landu dugu; kilometro askotako entrenamendu-saioetan ondokoarekin berba egiteko tartea izaten da, eta garrantzitsua da.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

GIZ. OHOR. ERREG.

Oiartzun-Mondra

Dom. 12:00. Karla L.

Aloña M.-Bergara

Dom. 16:30. Azkoagain.

Urola-Aretxabaleta

Dom. 16:30. Argixao.

EMAK. OHOR. ERREG.

Touring-Bergara

Zap. 16:00. Fanderia.

Hernani-Leintz Arizm.

Zap. 16:30. Zubipe.

GAZTEAK, EUSKAL LIGA

Bergara-Danok Bat

Zap. 12:00. Agorrosin.

Galdakao-Aretxabale.

Zap. 15:30. Galdakao.

GORENGOEN MAILA

Mondra B-Ordizia

Zap. 16:30. Mojategi.

Aretx. UDA B-Billabona

Dom. 16:30. Ibarra.

Bergara B-Antzuola

Dom. 18:00. Agorros.

ARETO FUTBOLA

MAILA NAZIONALA

Eskoriatza-Mondrate

Zap. 18:30. M.Muñoz.

GIPUZKOAKO TXAP.

Mondrate-Gaintxu

Zap. 16:30. Musakola.

SASKIBALOIA

EBA

MU-Grupo Inmapa

Zap. 19:00. Iturripe.

EMAK. LEHEN MAILA

San Ignacio-MU

Zap. 20:00. Iruñea.

GIZON. LEHEN MAILA

La Salle-MU

Zap. 18:030. Bilbo.

GIPUZK. LEHEN MAILA.

Astigarr.-Soraluce BKE

Zap. 17:00. Astigarraga.

Axular-Mekalki Aloña

Zap. 18:00. Donostia.

ESKUBALOIA

GIPUZKOAKO GAZTEAK

Amenabar-Lana Aloña

Zap. 13:00. Zarautz.

Zuazo-Cons.-Aloña

Zap. 20:00. Barakaldo.

EMAK. EUSKAD. TXAP.

Zuazo-Cons.-Aloña

Zap. 20:00. Barakaldo.

GIZ. GIPUZK. TXAP.

Mugarri Ingou-Egia

Zap. 18:00. Iturripe.

Leizaran-Soraluce BKE

Zap. 17:45. Andoain.

PILOTA

Bergaran: Gaur (19:00)

alebinen, infantilen eta

seniorren lau partidu.

Antzuolan: Gaur (18:30),

bi partidu. Infantilak eta

emakumezkoak.

Aretxabaletan: Gaur

(19:00) lau partidu.

Infantil eta kadete

mailakoak.

Arrasaten: Zapatuan

(16:30) benjaminen

partidu bat.

Oñatin: Domekan (11:00)

alebinen, infantilen eta

kadeteen hiru partidu.

MENDI LASTERKETAK

Aloñako 18. Igoera

Domekan. 09:00. Oñatiko

plazan.

Eskoriatzaren eta Mondrateren arteko derbia, egun osoko jaiari

ARETO FUTBOLA Bihar, zapatua, zale eskoriatzarrak eguerdian hasiko dira iluntzeko partidua girotzen

X.U. ESKORIATZA

Kantxako azken emaitzek lagun du ez badute ere, eskoriatzarrak behar den moduan ospatu nahi dute bihar Eskoriatzak eta Mondratek maila nazionalen jokatuko duten derbia: 18:30ean, Manuel Muñozen. Eta horretarako, egun osoko jaiari antolatuta dute. Esaterako, 12:00etan txorizo- eta gazta-pintxoak egongo dira, arku tiraketa saioa, bigarren eskuko azoka, eta derbi ostan (20:00) parrillada.

Bi taldeek azken hilabeteotan beherakada izan dute. Iaz oso indartsu amaitu zuten denboraldia, ligako oilarretako bi izan ziren, eta, hain zuzen, azken jardunaldira arte biek ala biek izan zuten igoera fasera sailkatzeko aukera –eskoriatzarrak sailkatu ziren–. Orain, berriz, Eskoriatzak (33 puntu) azken bi partidua galdu egin ditu, eta



lazgo derbia. GOIENA

hamabigarrena da sailkapenean. Mondrate (43 puntu) bosgarren dago sailkapenean, baina eurek ere azken jardunaldietan ez dute aparteko emaitzarik batu: bi berdinketa eta porrot bat. Hala ere, biendako derbia irabaztea bada urteko helburuetako bat.



Badon* proiektuko kideak —Ines Osinaga eskuman—, Korrikaren koordinatzaile Ane Elordiren inguruan. AEK KORRIKA

'Badon*' opera garaikidea, 23. Korrikaren osagarri

AEK-k aurreko edizioan aurreratu zuen 23. Korrikak ekarriko duen berrikuntzetako bat kultur lan baten ekoizpena izango zela. Bada, asteon iragarri dute Ines Osinaga arrasatearra tartean den proiektuak irabazi duela Kultur Sorkuntzarako I. Beka

Hasier Larrea DEBAGOIENA

Sormen-lan kolektiboa da *Badon**, euskal literatura, musika, arte plastikoak eta irudizkoak, antzerkia, dantza eta bestelako adierazpenen inguruan gorpuztuko dena. Oholtzetan eskarmentua duten bidelagun ugari daude proiektuan murgilduta —tartean, Ines Osinaga—, eta guztien artean dabilta emakume euskaldunen kontakizun propioa eraikitzen, askotariko arte diziplina garaikideak baliatuta.

Taldeak deskribatzen duenez, "belaunaldi arteko transmisioa, genealogia kulturala eta kanona kuestionatzea" da proposatzen dutena: "Euskal kultura deri-

tzogun hori josi dutenen artean galdu diren hari muturrak identifikatu eta beraietatik tiratzeko".

Hiru topaketatan batuta, "ariketa utopiko bat eginez" hasi ziren, "2070. urtera bidaiatu eta, ibilbide zoro horretan, hainbat ideia eta sinbologia aterata". Horiek erabili dituzte proiektuari forma ematen joateko.

Azarotik aurrera gertu

Asteon iragarri du AEK-k proiektu hori izan dela hautatua 23. Korrikaren kultur ekitaldi nagusi izateko. Azpeitiko Dinamo sormen-gunean eman dute albistearren berri, eta han izan dira *Badon** obrako kide Xanti Agirrezabala, Ane Abarrategi

eta Osinaga bera. Sorkuntzarako bekari esker AEK-k Euskal Herriari "kalitate handiko kultur eskaintza" egin gura dio, eta horretara dator *Badon**. Proiektuaren sustatzaileek Dinamoan azaldu zuten bi zatitan banatu dutela, "espekulazio fasean eta prototipazio fasean". Hilabeteotan jarraituko dute obra lantzen, eta aurtengo azarotik aurrera egongo da ikusgai Euskal Herri osoan, 23. Korrika aurkeztu eta gutxira.

II. bekarako deialdia

Bestalde, dagoeneko zabalik dago Kultur Sorkuntzarako II. Bekarako lanak aurkezteko epea. Datu gehiago, korrika.eus-en.



Madriren egindako ikuskizunetako bat. ANA MAÑEZ

Mississippitik Manhattanera, musika beltzaren erritmoan

Silvia Marsok eta Danny del Torok 'Blues & Roots' ikuskizuna eroango dute Amaia antzokira domekan

H.L. DEBAGOIENA

Ozenki elkarteak antolatuta, Arrasateko Amaia antzokian etzi, 19:00etan hasita, zuzeneko musika eta antzerkia nahasten dituen *Blues & Roots* egitasmoa jarraitu ahal da. Del Toro Blues Band taldea eta Silvia Marso aktorea dira gidariak; azken hori antzerkian, zineman eta telebistan sendotutako aktorea izanda, musika arloan murgiltzera ere animatu da, haren ahots eta interpretazio ezaugarriak lagun.

Proposatuko dutena, Ozenkitik azaldu moduan, "ibilbide emozional eta zirraragarria" izango da, 1929ko *Harlem Renaissance* kultur mugimenduan oinarritutakoa: "Mississippi ibaiaren ertzean kokatzen den bluesaren sorreratik hasita, Manhattango Harlemgo ezteandara bidaia egingo dugu, jazz eta country abestiak ere jorratuta".

"Edertasun handikoa"

Askatasunaren, justiziaren eta edertasunaren aldeko borroka islatu zuen *Harlem Renaissance*-k, eta Federico Garcia Lorca eta halako artistengan eragin. Ikur nagusia musika beltza izanik, Nina Simone bera ere gogora ekarriko dute, gai klasiko asko zeharkatu eta horiek espazioan eta denboran narrazio batekin kokatzeaz bat. Gainera, agertokia "ederki atonduta" egongo da, argiztapenak eta proiektio batzuek oholta gaineko intentsitate dramatikoak areagotu eta amerikar kutsu argiko jantziek ikuskizunaren girotze orokorrari lagunduko diotelako.

Ibai-arte merkatari elkartearen eta Arrasateko Udalaren laguntza izan du Ozenkik *Blues & Roots* ekartzeko. Hala, sarrerak salgai daude Amaia ohiko kanaletan, Kutxabanken eta Altuna lurrindegian, 20 eurotan.

GOIENA
TELEBISTA
SASOI
BERRIA

KANTARI

DEBAGOIENEN GAZTETXOAK
KANTUAN ETA DANTZAN
ZAPATUAN, 16:00ETAN
DOMEKAN, 09:00ETAN

DESCARGA TU
GOIENA
APLIKAZIOA

goiena

Zu hemen zaudete.

Max saria, 40 urte ospatzeko opari handia

Mireia Gabilondo bergarra kide den Tanttaka Teatro taldeak Espainiako Autore eta Editoreen Elkarteak astelehen iluntzean Cadizen egin zuen Max sarien galan Ekoizpen Onenaren Saria eskuratu zuen, 'Sexberdinak' izeneko antzezlanarengatik

Aitziber Aranburuzabala Juldain BERGARA

Garun paralisia duen mutil baten eta emakume baten arteko harreman sexu-afektiboa jorrazten du Aitziber Garmendiak eta Telmo Iruretak antzeztu eta Mireia Gabilondok zuzendu duen *Sexberdinak* lanak. "Hunkituta" jaso zuen bergararrak saria. "Galara iritsita sarituak sentitzen ginen eta Ekoizpen Onenaren Saria jasotzea sekulako oparia da; ikuskizuna egin aurretik, zer, norekin eta nola kontatu nahi duzun lantzeko orduan hartutako erabakiak egokiak izan direla adierazten du eta atzean dagoen lan guztiari balioa ematen dio. Aurten, gainera, 40 urte dira Tanttaka abiatu genuenetik; beraz, opari polita da. Harrera ona izan du aretoetan estreinatuta genuenetik, aurrera begira ere emanaldi batzuk baditugu lotuta eta sariak, seguru asko, ekarriko ditu beste eskaintza batzuk", dio zuzendariak.

Gabilondoz gainera, Kepa Errasti aretxabaletarrak ere parte hartu du proiektuan, Telmo Iruretarekin batera jardun zuen-eta gidoia idazten. "Merezitako saria da, ez da kasualitatea ekoizpena txalotzea; bereziki, arlo horretan lan handia du-eta antzezlanak. Esperientzia



Fernando Bernues eta Mireia Gabilondo saria jasotzen. G. / SGAE FUNDAZIOA

politza izan zen Telmorekin batera gidoia idaztea. Elkarlanean ibili ginen hark zituen pasarteei forma ematen eta Aitziberren pertsonaiaren istorioa asmatzen. Eta taularen gainean oso modu geniotsoan zuzenduta dago".

Euskal antzerkiak, lau sari

Tanttakarenaz gainera, beste hiru euskal ekoizpen saritu zituzten: Maria Goiricelayak Egoitzapen Onenaren Saria jaso zuen, *Yerma* lanarengatik; Pascal Gaignek, Konposizio Musikal Onenarena, *Eta orain zer?* lana-

gatik; eta Iñaki Rikartek, Eszena Zuzendaritza Onenarena, *Supernormales* izenekoarekin. "Aurten inoiz baino sari gehiago, eta gertukoak, gainera; elkarrekin lan asko egindakoak gara denak. Politza izan zen elkarrekin kopa bat hartuz ospatzea. Bolada ona bizi du euskal antzerkiak", dio Gabilondok.

Errestirentzako ere gertuko lankideak eta lagunak dira Max saridunak. "Ez nuen osorik ikusi, baina jarraitu nuen gala, lagun asko nituen han. Asko poztu nintzen sari guztiekin".

Gorlako kantuan askotariko musika proposamenak biharko

Turtukiña DJ, Joni Txintxes & Bili Ladillas eta Arrasateko Erromintxelak taldeen kontzertuak izango dira gozagarri

A. A. J BERGARA

Mokadutxo bat egiteko aukera emateaz harago, askotariko kultura eskaintza egiten dute Gorlako kantuan arduradunek. Bertso saio "arrakastatsua" egin zuten martxoan, eta bihar, za-

patua, musika emanaldiak izango dira aukeran, baita artisau-lanak erosteko bidea ere.

Bergarako Turtukiña kolektiboko DJekin poteo musikatua izango da, 12:00etan hasita, eta arratsaldean, besteak beste, blues,

jazz eta bestelako doinu dantzarrekin gozatzeko aukera izango da, 17:00etan abiatuko duten emanaldian. Joni Txintxes & Bili Ladillas taldea izango da taularen gainean lehenengo, eta Arrasateko eta Bergarako musikari profesionalak batzen dituen Erromintxelak boskoteak borobilduko du emanaldia –Jon Garcia (gitarra eta ahotsa), Aitor Moreno (kontrabaxua), Iñigo Zubizarreta (gitarra), Mikel Maniega (tronpeteta-jolea) eta Jokin Vitoria (perkusion-jolea)–.

Goienakideen txokoa

APIRILEKO SARIAK

Liburua eta DVDa

BiziPOZA elkarteari esker, 'Mundu berri bat guztiontzat' liburua eta DVDa

Parte hartzeko sariaren izena: Liburua



Sarrerak

Arrikutz kobak bisitatzeko, sarrerak.

Parte hartzeko sariaren izena: Arrikutz

ARRIKUTZ
ORATILKO OBAR

Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak.

Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

www.harreremandenda.org
Merkataritza produktuak

PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: goienakide@goiena.eus Whatsapp: GOIENAKIDE

'sariaren izena' [buzkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

'goiena app'-a / zozketa atalean. Parte-hartzearen ordeen egingo da zozketa. Inoizdik ezin izango da zozketa aldatu. Zozketaren emaitza zozketaren egunaren ondoren iragarriko da. Zozketaren emaitza zozketaren egunaren ondoren iragarriko da. Zozketaren emaitza zozketaren egunaren ondoren iragarriko da. Zozketaren emaitza zozketaren egunaren ondoren iragarriko da.

Realaren eta Real Madrilaren arteko partidarako sarrerak futbol zelaiko tokirik onenean

GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA

Realo-Real Madrid norgehiagoka beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuzuk eta zuzuk aukeratzeko beste lagun batek: Reale Arena futbol zelaiko premium gunetik. Partida malatzaren 2an, martitzena, 22:00etan izango da.

Parte hartzeko azken eguna: apirilaren 25a

Irabazi bi lagunendako otordua

MAUXKA JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkari Otorduan atala eta hartu partel!

Parte hartzeko azken eguna: apirilak 25

☎ 943 25 05 05 ✉ goienakide@goiena.eus 📱 'Goiena app'-a / zozketa atalean.

📱 GOIENAKIDE Jotetxea [buzkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailaz gozatzeko...



BAZKIDETZA KUOTA: 65 €
Deitu: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus



DESKARGATU GOIENA APP BERRIA!

goiena
kide

Okm: batzen gaituen distantzia

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

103. ERRENTAN EMAN

Calpe (Alacant). Oporretarako apartamentua ematen da errentan. Hondartzatik 100 metrora. Bi logela, egongela, sukaldaria, bainugela osoa eta balkoi ederra. Interesatuok deitu edo jarri harremanetan Whatsapp bidez: 655 74 57 97 (Txaro) edo 615 75 98 32 (Jesus)

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Hiru logelako etxebizitza bat errentan hartuko nuke. Telefonoa: 663 48 05 25

Arrasate. Hiru logelako etxebizitza baten bila nabili errentan hartzeko. 663 46 66 73

4. LANA

402. ESKAERA

Arrasate edo inguruan. Emakume arduratsua nagusiak zaintzeko gertu. 621 08 42 81

Arrasate eta inguruan. Nagusiak zaintzen eta garbiketan esperientzia duen neska gertu, astean zehar, goizetan, orduka lan egiteko. Soziosanitario ikaslea naiz. Telefonoa: 631 25 26 67

Arrasate. Emakume arduratsua gertu goizetan orduka zaintza eta garbiketara lan egiteko. Telefonoa: 651 96 78 69

Arrasate. Goizetan orduka lana egingo nuke. Nagusiak zaintzen eta hauek pasiatzera atezare. 631 25 26 67

Bergara eta inguruak. Haur Hezkuntzako teknikaria eta graduatua naiz. Haurrak zaintzen esperientzia daukat. Haurrak zaintzeko zein etxeko lanak egiteko prest nago. 634 42 85 11

Bergara edo Antzuola. Emakume euskalduna gertu astegunetan, arratsaldetan lau orduz, zaintza lanak egiteko. Soziosanitario ikasketak ditut. 637 52 89 83

Bergara. Etxez-etxeko laguntzan lan egingo nuke, orduka edo etxean bizi izaten. Legezko agiriak eta soziosanitario titulazioa. 695 12 06 79

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Prestasun osoa. 631 46 07 33

Debagoiena. 50 urteko emakumea nagusiak zaintzeko gertu. Esperientziarekin. 631 79 87 75

Debagoiena. 50 urteko emakumea nagusiak zaintzeko gertu. Sei urteko esperientzia nagusiekin. 722 89 60 36

Debagoiena. Arrasate, Eskoriatza eta Arexabaletan nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Orduka. Soziosanitario ikasketak eta erizain laguntzaile ikasketak ditut. Telefonoa: 604 23 92 64

Debagoiena. Asteburuetan edo astean zehar gauez zaintza lanak egingo nituzke. 602 80 15 38

Debagoiena. Asteburuetan eta jaiegunetan zaintza eta garbiketa lanak egingo nituzke, baita orduka ere. 642 49 94 09

Debagoiena. Egunean zeharrek jardunaldian, orduka edota gauetan zaintza lanak egingo nituzke. Soziosanitario titulazioa eta legezko agiri guztiak. 612 53 92 72

Debagoiena. Emakume heldua, arduratsua eta esperientzia duena, adinekoak zaintzeko eskaintzen da, ahal dela etxean bertan bizi izaten. 642 66 14 74 (Esmeralda)

Debagoiena. Emakumea eberako lanetarako prest. Esperientzia eta erreferentzia handiduna. Telefonoa: 608 64 33 73

Debagoiena. Emakumezkoa gertu, haurrak edo nagusiak zaintzeko, orduka edo etxean bertan bizi izaten. Zerbitzari lanetarako ere prest. Arrasaten edo autobusez heltzeko moduan. 632 12 42 80

Debagoiena. Erizain laguntzaile naiz eta orduka lan egingo nuke nagusiak eta umeak zaintzen edota garbiketan. Telefonoa: 620 23 58 15

Debagoiena. Esperientzia duen mutila nagusiak zaintzeko gertu. Prestasun osoa. 624 95 05 40

Debagoiena. Esperientzia duen neska orduka nagusiak zaintzeko eta garbiketan aritzeko gertu. Telefonoa: 697 86 49 00

Debagoiena. Esperientzia eta erreferentzia onak dituen mutila nagusiak eta umeak zaintzeko edota garbiketarako egiteko gertu. 642 37 95 87

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten pertsona nagusiak zainduko nituzke. 613 78 22 56

Debagoiena. Etxeko langile moduan, garbiketan edota nagusiak zaintzen

lan egingo nuke. Orduka zein etxean bertan bizi izaten. Soziosanitario ikasketekin. 643 73 62 36 edo 643 73 62 83

Debagoiena. Garbiketa edo zaintza lanetan jarduteko gertu nago. Telefonoa: 612 27 68 33

Debagoiena. Garbiketan eta nagusiak zaintzen lan egingo nuke, goizetan edo gauetan. Baita asteburuan ere. 624 95 05 40

Debagoiena. Garbiketan, apal-betetzaile moduan edo antzeko lanetan aritzeko gertu nago. Telefonoa: 611 23 83 65

Debagoiena. Garbiketan, nagusiak eta umeak zaintzen edo sukaldarlanetan aritzeko gertu nago. Telefonoa: 654 58 58 69

Debagoiena. Garbiketan, nagusiak eta umeak zaintzen edo sukaldarlanetan aritzeko gertu nago. Telefonoa: 641 24 61 95

Debagoiena. Garbiketan, nagusiak eta umeak zaintzen edo sukaldarlanetan aritzeko gertu nago. Telefonoa: 656 76 18 70

Debagoiena. Geriatriako laguntzaile izandakoa naiz eta pertsona nagusiak zaintzeko gertu nago. Telefonoa: 602 10 19 11

Debagoiena. Gertu nago orduka zein asteburuetan zainduko edo garbiketara lan egiteko. Telefonoa: 672 78 04 30

Debagoiena. Gizon zintzoa lan bila dabil adinekoak zaintzen. Telefonoa: 647 21 03 07 (Raul)

Debagoiena. Gizonezkoa zainduko lanak egiteko gertu. 672 55 67 35

Debagoiena. Goizetan garbiketa lanak egingo nituzke. 602 68 40 89

Debagoiena. Lana egingo nuke nagusiak zaintzen edo garbitasun lanetan. 651 81 63 91

Debagoiena. Lana egingo nuke nagusiak zaintzen edo garbitasun lanetan. 691 03 25 02

Debagoiena. Lanean hasteko gertu nago; zerbitzari lanetan, pertsona nagusiak zaintzen edota garbiketa lanetan. Deitu: 611 22 91 37

Debagoiena. Lanean hasteko prest nago; pertsona nagusi edo umeak zaintzen, garbiketa lanean. 641 68 87 85

Debagoiena. Orduka edo asteburuetan lan egingo nuke. 634 94 30 78

Debagoiena. Margolari-tza, garbiketa edo mantenu lanetarako prest nago. 640 66 24 99

Debagoiena. Mutil arduratsua naiz eta lanean hasteko gertu nago; zaindu lanetan, garbiketan edo tabernari bezala. Telefonoa: 642 37 95 87

Debagoiena. Mutila gertu taberna, atari edota elkarteak garbitzeko, zerbitzari lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. 612 49 66 57

Debagoiena. Mutila lanean hasteko prest: zaindu, garbiketa, ostalaritza eta abar. 643 08 15 23

Debagoiena. Mutila nagusiak zaintzen eta garbiketan aritzeko gertu. 603 46 73 95

Debagoiena. Mutila prest garbiketa lanak, nagusiak zaindu edo eta tabernari zerbitzari lanak egiteko. Asteazken edota asteburuetan prest. 624 07 86 36 (Alejandro)

Debagoiena. Nagusiak eta umeak zaintzen eta garbiketan lan egingo nuke. Esperientzia dut zaindu. Orduka, egunerari edo etxean bertan bizi izaten. 632 43 16 05

Debagoiena. Nagusiak zaindu eta garbiketara lan egiteko emakumezkoa

prest. Asteleheneretik ostiralerara eta asteburuak barne. 631 72 60 44 (Nelsy)

Debagoiena. Neska nagusiak zainduko gertu, 14:00etatik 18:00etara eta 22:00etatik 09:00etara bitartean. Telefonoa: 655 45 30 64

Debagoiena. Orduka, garbiketa lanetan edo pertsona nagusiak zaindu lan egingo nuke. Baita asteburuetan ere. 612 56 12 39

Debagoiena. Orduka, jardun osoz edota gau ezin asteburuetan lan egingo nuke. Zaintzan, baita baserrietan ere, eta estetikako lanetan. Autoa daukat eta erabateko prestasuna. 631 98 15 50

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaindu edo etxek garbitzen lan egingo nuke. 605 73 81 33

Debagoiena. Prestasun osoa lanean hasteko; garbiketa lanetan, dendan saltzaile, zerbitzari, kristalari edo eraikuntza lanetan. 645 72 92 87

Debagoiena. Soziosanitario titulurako ikasten ari naiz eta lanean hastea nahiko nuke. Orduka edo etxean bertan bizi izaten, baita asteburuetan ere. 632 21 99 06

Debagoiena. Taberna edo jatetxetan zerbitzari bezala jarduteko prest nago. 688 69 59 62

Debagoiena. Tabernari orduka lan egingo nuke. Baita umeak zaintzen ere. 627 62 91 16

Debagoiena. Umeak edo pertsona nagusiak zaindu lan egingo nuke orduka edo etxean bertan bizi izaten. 612 45 38 68

Debagoiena. Umeak edo pertsona nagusiak zaindu lan egingo nuke. Deitu telefono zenbaki honetara: 687 04 09 62

Debagoiena. Zaintza edota zerbitzari lanetan jarduteko gertu nago. Deitu telefono zenbaki honetara: 612 52 49 21

8. DENETARIK

802. EROSI

Lursaila Arexabaleta-Eskoriatzan. Arexabaletan edo Eskoriatzan, ortua eta fruta arbolak jartzeko lursail baten bila nabil. Erosi edo errentan hartuko nuke. 688 61 87 86

807. AURKITU

Jertsea. Udalaizten jertse bat aurkitu dut, apirilaren 5ean. Zurea bada, deitu edo idatzi zenbaki honetara: 670 31 40 31

ZORION AGURRAK



ARAMAIO Libe Reguero Osinaga Apirilaren 27an, 9 urte. Zorionak, maitia! Segi orain arte bezain jator eta alai! Askok maite zaitzugu!



BERGARA Paul Erdozia Barrenetxea-Arando Apirilaren 26an, 7 urte. Zorionak, Paultxo, etxeko danon partetik. Segi horren alai. Askok maite zaitzugu!




BERGARA Ane Arregi Gantxegi Apirilaren 24an, 11 urte. Zorionak, Ane! Orain arte bezelako kuriosa eta alai izaten jarraitu. Egun ederra pasatu zure egunian. Patxo handi bat etxekeun partetik.



ARRASATE Unax Andres Lopez Apirilaren 23an, 8 urte. Zorionak, maitia! Disfrutatu zure urtebetetze eguna. Muxu handi bat zure familiarren partetik. Askok maite zaitzugu!




ELGETA June Askasibar Zabala Apirilaren 20an, 6 urte. Zorionak, June! Ondo-ondo pasatu zure eguna! Muxu eta besarkada potolo bat, familia osoaren partetik!



ONATI Aiala Velasco Juan Apirilaren 19an, 4 urte. Zorionak, bihotza! Ondo pasa zure eguna! Muxu pilo bat!



ONATI Helene Fuente Garcia Apirilaren 14an, 11 urte. Zorionak eta urte askotarako! Oso-oso ondo pasa zure egunian. Muxu handi bat etxekeun partetik!



ARRASATE Enara Martin Ramos Apirilaren 14an, 14 urte. Zorionak, Enara! Zure familia osoak asko maite zaitzugu. Muxu asko eta ospatu super ondo!



ONATI Magali Igartua Ugarte Apirilaren 14an, 9 urte. Zorionak, bihotz-bihotzez, gure etxeko printzesa! Muxu erraldoi bat etxeko danon partetik. Pila bat maite zaitzugu, pitxin!



ARRASATE Laia Ezkurra Iturbe Apirilaren 12an, 11 urte. Zorionak, Laia! Aurtengo ospakizuna berezia izango da. Oporretan ospatuko dugul! Primeran pasa eta jaso muxu pila bat!



ARRASATE Izadi Bragado Alvarez Apirilaren 12an, 12 urte. Zorionak, neska handi! Segi orain arte bezain jator ta alai! Pilo bat disfrutatu zure eguna! Muxu handi bat etxekeun partetik!



ELGETA Xare Zabala Sarasketa Apirilaren 12an, 5 urte. Zorionak, printzesa! Ondo pasatu zure egunian eta topera disfrutatu, familia guztixaren partetik.



ARRASATE Irene Iturbe Ceme Apirilaren 9an, 11 urte. Ondo ospatu zure eguna eta segi beti bezain jator ta alai! Zure familiar asko maite zaitu, preziosa!



ANTZUOLA Lantz Aizkorbe Jauregi Apirilaren 5ean, 7 urte. Zorionak, Lantz! Ondo-ondo hasi zure urte eta etapa berriak! Patxo bat danon partetik!



ARRASATE Markel Errasti Canales Apirilaren 4an, 8 urte. Zorionak, Markel! Ondo pasatu zure egunian. Muxu potolo asko familia osoaren partetik.

IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

- Eguaztenuko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkiaren ondorioz sar daitezkeen operazioen erantzukizunik.



Burgospar 3 - BERGARA
Tel. / Fax: 643 76 97 97
www.inmoko.com

BERGARA:

- Zubizuri, 95 m², 3 logela, ipogailu, bihotza sartzea, 150.000€
- Zubizuri, 65 m², 3 logela, trasterikoa, bihotza sartzea, 130.000€
- Eskoriatza, bi etxebizitza: 79 m² eta 78 m², 3 logela, ipogailu, garaje, trasterikoa, bi botak,
- Basaketa, 65 m², 2 logela, ipogailu, trasterikoa, bihotza sartzea, 175.000€
- Lizaso, 79 m², 3 logela, trasterikoa, garaje itxi, bihotza sartzea, 220.000€
- Arasateko, 85 m², 3 logela, trasterikoa, 150.000€
- Artikako, 90 m², 3 logela, bihotza sartzea, 150.000€
- Aizkorbe, 60 m², 2 logela, trasterikoa, bihotza sartzea, 100.000€
- Berraketa, bi etxebizitza: 85 m², 88.830€ eta 46 m², 48.630€. Erreklamazio gaitza.
- Bazarra, 72 m², 3 logela, apartekoak, lur zaku, sportamendua (bata barne), 185.000€
- Enea, 60 m², gela, 4 logela, ipogailu, trasterikoa, bihotza sartzea, 144.000€
- Frankazuri, 102 m², 4 logela, ipogailu, eguzkitua, 179.000€
- Itxar pasaketa, 71 m², 2 logela, ipogailu, bihotza sartzea, 260.000€
- Marinka, 60 m², 2 logela, ipogailu, bihotza sartzea, 117.000€ PREZIO JETISERA.
- Mosterola, 53 m², 2 logela, bihotza sartzea, 148.000€
- Mosterola, 75 m², 2 logela, bihotza sartzea, 149.000€ PREZIO JETISERA.
- Mosterola, 75 m², 2 logela, berriketa, bihotza sartzea, 150.000€ Negozioerria.
- Mosterola, 75 m², 2 logela, bihotza sartzea, 105.000€
- Mosterola, 86 m², 3 logela, bihotza, 150.000€ PREZIO JETISERA.
- Mosterola, 86 m², 3 logela, berriketa, bihotza sartzea, 150.000€ Negozioerria.
- Montibelo, 96 m², 4 logela, trasterikoa, ipogailu, 139.500€ PREZIO JETISERA.
- Somorrostro, 75 m², 2 logela, 2 apartekoak, bihotza sartzea, 175.000€
- Zubizuri, 60 m², 2 logela, bihotza sartzea, 75.000€
- Zubizuri, 72 m², 3 logela, garajea nuklear, 100.000€

LOKALAK:

- Bidekurritza, 364 m², 3 lokal batzuk, bi sarrera, boneto daiteke, 95.000€
- Mosterola, 114 m², Bidekurritza sarrera, Otxoko enklaketan kanp gela, 80.000€

GARAJAK:

- Bala, 16,47 m², Garaje itxi, 25.000€

ONBIZITZA:

- Oñate, 61 m², 3 logela, trasterikoa, bihotza, 55.000€
- Oñate, 75 m², 3 logela, trasterikoa hondaketa, 40.000€ PREZIO JETISERA.

BARRERIAK:

- Angiano, Parkeko osua, bezeria eta 3 hektoreko lursaila, 175.000€
- Oñate, bezeria eta 15 hektoreko lursaila 320.000€ PREZIO JETISERA.

ANTZUOLA:

- Kalegorri, 126 m², duplex, 3 logela, garaje, bihotza sartzea, 290.000€
- Beldosua, 56 m², 2 logela berriketa, bihotza sartzea, 120.000€
- Beldosua, 96 m², 3 logela, trasterikoa eta garajea barne, bihotza sartzea 198.000€
- Bidekurritza osua, bezeria sarga, hektoreko bezeria lursailarekin 295.000€
- Bidekurritza osua, bezeria sarga, hektoreko bezeria lursailarekin 120.000€
- Kalegorri, 77 m², bihotza, 51.000€
- Kalegorri, etxe oso, bi etxebizitza eta trasterikoa, 120.000€

HEGIA:

- Andra Mari plaza, 80 m², 3 logela, terraza ederra, trasterikoa, 158.000€

BERRI-ZAKUA



OÑATI
Ekain Leibar Zumalde
Apirilaren 23an, 10 urte. Zorionak eta urte askotarako, Ekain! Segi orain arte bezala, maitagarria eta jatorra izaten. Asko maite zaitugu!



BERGARA
Aiora Unamuno Lete
Apirilaren 23an, 10 urte. Zorionak, maitia! Disfrutau topera zure urtebetzea. Muxu potolo bat danon partetik.



ARAMAIO
Uxue Ezkurra Errasti
Apirilaren 16an, 9 urte. Zorionak, pittin! 9 urte; ze haundi itten zabitzen! Oso ondo pasau. Asko maite zaitugu!



OÑATI
Julen Isasti Azkoitia
Apirilaren 13an, 10 urte. Zorionak, txapeldun, urte askotarako! Asko-asko maite zaitugun etxeko danon partetik, patxo pila bat, artista! Bi eskuak bete urte ja!



ESKORIAITZA
Beñat Arana Romero
Apirilaren 13an, 10 urte. Zorionak, txapeldun! Ilargiraino eta buelta maite zaitugu. Unai, aitaxo eta amatxo.



ARETXABALETA
Abel Saez Bilbao
Apirilaren 13an, 75 urte. Zorionak, aitona! Jarraitu daukazun energia eta martxa horrekin. Asko maite zaitugu. Muxu handi handi bat. Izaro eta Aitzol.



OÑATI
Unai Sanchez Arroia
Apirilaren 11n, 7 urte. Zorionak, txapeldun! Azkenian allau da zeure eguna. Disfrutau topera! Patxo haundi bat maite dun danon partetik!



OÑATI
Ani Idigoras Garcia
Apirilaren 10ean, 5 urte. Zorionak, Ani! Primeran pasatu zure urtebetetze egunean. Musu handi bat etxekoan partetik!



ARRASATE
Aratz Sanzberro Iria
Apirilaren 4an, 9 urte. Zorionak, pirata! Ederto ospatu zure urtebetetze eguna. Aurten bai ezberdina izango dala! Patxo potolo bat etxekoan partetik!



OÑATI
Ibai Aramburu Gende
Apirilaren 3an, 2 urte. Zorionak, Ibai! Ondo pasau zure egunian! Patxo bat familia danaren partetik.



Dokean onenak
Txalaparta elkarteko bikotea izan zen onena Egubakoitz Santuan Arrasaten jokatu zen txapelketan. Juan Ramon Mendieta eta Victoriano Fuentes izan ziren udal ordezkariak.



Peñiscolan
Basotxo erretiratuen elkarteak antolatuta, 35 bat aretxabaletar Peñiscola eta inguruko parajeak ezagutzen ibili dira. Turismoa egiteaz gain, hondartzan ere egon dira.



Alebin mailakoak
Begarako Burdinola Irristaketa klubak antolatuta, Espainiako Txapelketako aurre-kanporaketak jokatu zituzten Labegarietan. Mallorcako, Tenerifeko, Elxeko eta Albaceteko taldeak egon ziren.



Urrezko ezteiak
Jesus Mari Herrasti eta Espe Perez aretxabaletarrek zorioneko daude. "Zorionak eta eskerrik asko, bihotzez, beti gure ondoan egoteagatik".

ASTEAGA GOIENA TELEBISTAN

**ETXEKALTE TALDEA**

Bermeoko laukoteak Kooltur Ostegunetan eskainitako zuzeneko osorik ikusteko aukera.

'Kooltur Ostegunak' Egubakoitza, 21:00 eta 23:00

**OIER OSA EZAGUTZEN**

Aloña Mendi igerilari taldeko kidea udako denboraldia prestatzen dabil buru-belarri.

'Luzapena' Egubakoitza, 18:00, 20:00 eta 22:00

**EKOUDALATX MINTEGI EKOLOGIKORA BISITA**

Txomin Madinak bisita egingo die Nerea Altunari eta Idurre Arangurenari, mintegiko jarduna ezagutzeko.

'Landara' Astelehena, 18:00, 20:00 eta 22:00

**ALOÑAKO IGOERAREN LABURPENA**

Domekako probak emandakoarekin saio berezia egingo dute, irudiak eta protagonisten berbak jasota.

'Harmailatik' Astelehena, 21.30 eta 23:30

**AGURNE GAUBEKARI ELKARRIZKETA**

Hizkuntz Eskubideen Behatokiko zuzendaria elkarrizketatuko du Goiatz Aranek.

'Harira' Martitzena, 21:30 eta 23:30



GOIENA TELEBISTA NAHIERAN:
goiena.eus/telebista

Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

URTEURRENA

Jesus Fernandez de Arroiabe Beitia

2022ko apirilaren 7an hil zen, 77 urte zituela.

Urteurreneko meza zapatuan izango da, apirilaren 22an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokan.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Oñatin, 2023ko apirilaren 21ean.

URTEURRENA

Karmen Ituarte Elorza

Manolo Urzelaireren alarguna

2022ko apirilaren 18an hil zen, 86 urte zituela.

Urteurreneko meza zapatuan izango da, apirilaren 22an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokan.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Oñatin, 2023ko apirilaren 21ean.

HILDAKOAK

Joaquin Merino Pavo. Arrasaten, apirilaren 14an. 72 urte.

Antonio De La Torre Hurtado. Eskoriatzan, apirilaren 15ean. 69 urte.

Josefina Ziardegi Larrañaga. Arrasaten, apirilaren 16an. 86 urte.

Esperanza Aranzabal Guruzeta. Arrasaten, apirilaren 16an. 96 urte.

Luis Rezola Etxezarreta. Bergaran, apirilaren 17an. 76 urte.

Jose Granados Alferex. Bergaran, apirilaren 17an. 71 urte.

Jabier Maskariano Ibabe. Goianen, apirilaren 17an. 68 urte.

Anai Jose Luis Zurutuza Arregi. Oñatin, apirilaren 18an.

Severiano Larrañaga Gallastegi. Bergaran, apirilaren 18an. 89 urte.

Arantza Elkoro Azkarretazabal. Aretxabaletan, apirilaren 19an. 85 urte.

Maria Angeles Ayastuy Lizarralde. Bergaran, apirilaren 19an. 88 urte.

OROIGARRIA

Pablo Fernandez Marin

2023ko apirilaren 10ean hil zen, lekoran.

Ikasle eta langileok bat egiten dugu familiaren saminarekin.



Arrasaten, 2023ko apirilaren 21ean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE EGUNEZ

Egubakoitza, 21 IRIZAR: Erguin 11 / 943 79 12 39

Zapatua, 22 SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74

Domeka, 23 SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74

Astelehena, 24 RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09

Martitzena, 25 ETXEBERRIA: Zarugalde 38 / 943 77 16 30

Eguaztena, 26 AZKOAGA: Ferrerías 1 / 943 79 15 15

Eguena, 27 JUNCAY: Kontzeziño 12 / 943 79 79 99

BERGARA EGUNEZ

Egubakoitza, 21 URRITIKOETXEA: Oxirondo plaza 4 / 943 76 11 74

Zapatua, 22 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 78 16 87

Domeka, 23 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 78 16 87

Astelehena, 24 OIARBIDE: San Antonio 3 / 943 76 11 05

Martitzena, 25 ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63

Eguaztena, 26 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15

Eguena, 27 URRITIKOETXEA: Oxirondo plaza 4 / 943 76 11 74

OÑATI EGUNEZ BAKARRIK

Egubakoitza, 21 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58

Zapatua, 22 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58

Domeka, 23 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58

Astelehena, 24 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28

Martitzena, 25 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28

Eguaztena, 26 ANDUAGA: San Lorentzo 3 / 943 78 21 16

Eguena, 27 ANDUAGA: San Lorentzo 3 / 943 78 21 16

ARRASATE GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)

2023 osoan: JUNCAY: Kontzeziño 12 / 943 79 79 99

BERGARA GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)

2023 osoan: MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:

COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.

ESKER ONA

**Ceferina Erostarbe Lazcano**

Ricardo Ibabe Elorzaren alarguna

2023ko apirilaren 10ean hil zen, 89 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana familiaren izenean.

Ondra meza zapatuan izango da, apirilaren 22an, 19:30ean, Oñatiko agustindarren elizan. Bertaratuko zaretenoi, alde zuretik, eskerrik asko.

Oñatin, 2023ko apirilaren 21ean.

ESKER ONA


Irene Castelo Martin

2023ko apirilaren 6an hil zen, 90 urte zituela.


Eskerrik asko bidelagun izan zareten guztioi eta azken momentura arte ondoan egon zaretenoi. Berezi, Antzuolako gizarte zerbitzuak, medikua, erizaina, eguneko zentzoko lantaldea eta etxeko laguntza zerbitzuko laguntzaileak. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Antzuolan, 2023ko apirilaren 21ean.

OROIGARRIA



**Jabier
Maskariano Ibabe**




2023ko apirilaren 17an hil zen, Goianen, 68 urte zituela.


Gogoan izango zaitugu.

1955eko kintada.
Aramaion, 2023ko apirilaren 21ean.

OROIGARRIA



**Alfonso
Carmona Rodriguez**



2023ko apirilaren 6an hil zen, 64 urte zituela.

*Ostadar ederrean zabilta
guri begira zaindari.
Guk laztantxo handi bat
bidaliko dizugu egunero zuri.
Asko maite zaitugu, abuelo.*

Bego, Uxue, Jon Ander eta Malen.
Bergaran, 2023ko apirilaren 21ean.

OROIGARRIA



**Alfonso
Carmona Rodriguez**



2023ko apirilaren 6an hil zen, 64 urte zituela.

*Zu gure artean bizitzean
aberastasuna sendian,
igarotako une guztiak
maitasunez bihotzean.*

Zure koinatu-koinatak eta ilobak, bihotz- bihotzez.
Bergaran, 2023ko apirilaren 21ean.

OROIGARRIA



**Cayetano
Rivas Barbero**

'Tano'



2023ko apirilaren 13an hil zen, 70 urte zituela.


*Euskal Herriko lur maiteak har zaitzala goxo-goxo bere besoetan.
Ez adiorik, Tano... egun handira arte baizik.*

Musakolako preso eta iheslarien askatasunaren
aldeko elkarretaratze lagunak.

Arrasaten, 2023ko apirilaren 21ean.

OROIGARRIA

**Alfonso
Carmona Rodriguez**




2023ko apirilaren 6an hil zen.

*Oso erraza izan da zure laguna izatea.
Eskerrik asko, Alfonso!*

La cuadri.
Bergaran, 2023ko apirilaren 21ean.

OROIGARRIA

**Alfonso
Carmona Rodriguez**



2023ko apirilaren 6an hil zen, 64 urte zituela.

*Zenbat barre algara egin ditugun zurekin
Une horiek gogoratzean zutaz oroituko gara
Eta berriro aterako zaigu irribarrea
Maitasunez,*

Primiko kuadrilla.
Bergaran, 2023ko apirilaren 21ean.

ESKER ONA



**Cayetano
Rivas Barbero**

'Tano'



2023ko apirilaren 13an hil zen, 70 urte zituela.

*Zure bidean, gure bidean goaz elkarrekin.
Aurrera egingo dugu, heldu eskutik.*


Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi,
eta gurekin egon zareten guztiok.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2023ko apirilaren 21ean.

ESKER ONA

**Fernando
Etxaniz Unzueta**

Kontxi Arrietaren alarguna



2023ko apirilaren 4an hil zen, 83 urte zituela.

*Osaba maitea: gure artetik ustekabean joan zara,
baina beti izango zaitugu gure bihotzean.*


Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali
zenizkigutenoiei eskerrik asko, sendikoen izenean.

Etxaniz-Arrieta ilobak.
Arrasaten, 2023ko apirilaren 21ean.

ESKER ONA

**Josefina
Ziardegi Larrañaga**

Ramon Muruamendiaren alarguna



2023ko apirilaren 16an hil zen.

*Umorea eta bizi poza
Kantari ahotsa
Familia zure ardatza
Handia bihotza
Hauxe gure eskertza eta aitortza*

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi eta gurekin
egon zareten guztiok.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana familiaren izenean.

Arrasaten, 2023ko apirilaren 21ean.

ESKER ONA



**Luis
Rezola Etxezarreta**




2023ko apirilaren 17an hil zen, 76 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi,
hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztiok.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2023ko apirilaren 21ean.

ESKER ONA

**Juanmari
Altuna Sagastigutxia**



2023ko martxoaren 31n hil zen, 88 urte zituela.

Azken egunera arte irribarretsu, beti umore eta aldarde onarekin...

Eskerrik asko egun hauetan gure ondoan egon zaretenoi;
jaso dugun maitasun eta babesa eskertu nahi dizuegu.
Bihotz-bihotzez besarkada estu bana senideon izenean.

Bergaran, 2023ko apirilaren 21ean.

BABESLEA

Oroilore
Maitasunez bizi,
maitasunez agurtu

*Gari deitu zuzenean edo, nahizgo
barkatu; jakinarazi zuen asaguru-
kompainari gurekin nahi dituzela agurtu
maite dituzena.*



*Marioren, Ibanen eta Maribiren
partetik, besarkada magikoak
zuzentzeko, bihotz sendatzeko bala
duten horietakoak. Guk badinagu gorleku
zuzentzeko, gure behar dituzenerako.*

Mario, Iban eta Maribi

Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA
Moyua OÑATI • Tel.: 943 71 66 37

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 21

ESKORIATZA Bigarren eskuko liburu azoka

Ordutegia: 10:30-13:00 eta 16:15-20:00.
Liburutegian.

ELGETA 'Liburutegia plazara!' ekimena

Tartean, *Otsoak maite* ipuin kontaketa perkusioarekin, Zugame taldearen eskutik.
Mendizaleen plazan, 16:00etan.

OÑATI Odol ematea

Ordua, aurrez: 943-00 78 84.
Enpresagintzan, 16:30ean.

ARAMAIO Ohiko batzar nagusia

Itur-Zuri elkarteko kideendako.
Kultura etxean, 17:00etan.

OÑATI Puntaik Punta

Egitaraua osorik 2. orrian.
Oñatin, 17:30ean.

BERGARA Apirilean Musika ekimena

18:00etan, *Baltasar sagutxo* eta *pentagrama enea*, eta 19:00etan, suzuki eta biolin ikasleak.
Seminarixoan.

BERGARA 'The social dilemma' dokumentala

Sare sozialen gaineko jardunaldien baitan.
Zubitxako eskolan, 18:00etan.

ARRASATE 'Escuchando a mi alma' liburuaren aurkezpena

Jose Antonio Villar egilearekin.
Kulturaten, 18:30ean.

ESKORIATZA 'Ezagutuz ulertu eta ulertuz maitatu' sari banaketa

Aurretik, Beheko Errota Musika Eskolako haurren emanaldia.
Zaldibar antzokian, 18:30ean.

ARRASATE Altamirako jaiak

18:30ean, jai ei ongi torria Altamirako lgoerarekin; 19:00etan, auzo-tabernaren irekiera; 20:00etan, gaztetxoendako zinema-emanaldia; eta 22:30ean, musika emanaldia.
Altamiran.

ELGETA 'Elbira' dokumentala

Elbira Zipitriari eskainitako dokumentala.
Udaletxean, 19:00etan.

ARETXABALETA 'Pirata garrapata' antzeziana

Antzerkia, magia eta txotxongiloak bateratzen dituen ikuskizuna.
Ilargi plazan, 19:00etan.

ARRASATE 'Ipuina engainua da' irakurraldi musikatua

Iban Zalduarekin eta Miren Narbaizarekin.
Kulturaten, 19:00etan.

ARETXABALETA 'Kolpatuz' diskoaren aurkezpena

Roberto Etxeberriak eta alaba Mirenek aurkeztuko dute diskoa, hainbat musikariren laguntzarekin.
Arkupen, 20:00etan.

ARETXABALETA Bertso afaria

Maider Arregi eta Xabi Igoa bertsolariekin. Aurretik, 19:00etan, kantu-poteoa.
Hibai Gain elkartean, 21:00etan.

BERGARA Desgaraian taldearen kontzertua

*Gauden aldi*an diskoa aurkeztuko dute. Sarrerak, bost euro.
Kartzela zaharrea, 22:00etan.

ZAPATUA 22

OÑATI Puntaik Punta

Egitaraua osorik 2. orrian.
Oñatin.

BERGARA Apirilean Musika ekimena

09:30ean, pandero ikastaroa musika eskolan; 11:00etan, peñaparda ikastaroa, musika eskolan; eta 17:30ean, *Arratsalde bat operan*, Seminarixoan.
Bergaran.

ARRASATE Altamirako jaiak

10:00etan, etxafuegoak eta yoga; 11:00etan, atartearen arteko tortilla lehiaketa eta umeendako jolasak; 13:15ean, euskal dantzak; 15:00etan, auzo-bazkaria; 17:30ean, etxafuegoak eta marrazki lehiaketa; 18:00etan, txantxiku-jolas txapelketa, txokolate-jana eta

gaztetxoendako tailerrak; eta, 22:30ean, musika saioa DJ Goikolearekin.
Altamiran.

OÑATI Antixena Eguna

Azoka, kontzertuak, bazkaria...
Gaztetxean, 10:00etan.

ELGETA Bisita gidatua lubakietara eta gazte poteoa

Lehena 10:00etan, Mendizaleen plazatik, eta bigarrena, 13:00etan, Haizea tabernatik.
Elgetan.

OÑATI Espeleotxiki abentura

Euskaraz. Izena emateko: 943-08 20 00 edo *arrikruz@onati.eus*.
Arrikruzten, 10:30ean.

OÑATI Espeleo-Arrikruz abentura

Izena emateko: 943-08 20 00 edo *arrikruz@onati.eus*. 18 urtetik gorakoendako.
Arrikruzten, 10:30ean.

ARRASATE Ludoteka ibiltaria

3 eta 12 urte artekoendako.
Ordutegia: 11:30-13:30.
Erguingo gazte txokoan.

BERGARA Musika Gorlako Kantinan

12:00etan, poteo musikatua; eta, 17:00etan, Joni Txintxes & Billi Ladiillas eta Erromintxelak taldeak. Egun osoan, artisau lanak erosteko aukera.
Gorlako kantinan.

ESKORIATZA Derbi Eguna

12:00etan, arku tiroketa erakustaldia, txorizo- eta gazta-pintxoak eta bigarren eskuko azoka; 16:15ean, areto futbola; 18:30ean, Eskoriatza-Mondrate derbia; eta 20:00etan, parrilla-jana.
Intxaurtxueta plazan.

ARAMAIO Kantu-bazkaria

Itur-Zuri emakume elkartearen eskutik.
Añai tabernan, 14:00etan.

ARRASATE 'Bat irabazteko' lehiaketa

Gaztetxoendako.
Tren geltokiko gaztelekuan, 18:00etan.

DOMEKA 23

OÑATI Puntaik Punta

Egitaraua osorik 2. orria. 09:00etan, Aloñako Igoera.
Oñatin.

ARETXABALETA Herriko idazleen aurkezpenak

Jon Sarasua, Josune Murgoitio eta Judit Ruiz de Munain egongo dira. Bestalde, Karmelegartuaren obra jasotzen duen liburuaren azalpenak emango ditu Tere Irastorzak.
Arkupen, 12:00etan.

ELGETA Omenaldia

Langile batailoietan eta preso egondako 71 elgetar omenduko dituzte.
Mendizaleen plazan, 12:00etan.

ESKORIATZA Liburuaren Nazioarteko Eguna

Dorleta Kortazarrek gidatuta eta Beñat Arrietaren eta Gari Barandiaranen musikarekin testuak irakurriko dituzte Iñigo Beitiak, Ainara Zubizarretak, Mari Jose Hernandezek eta Loli Iñurrategik. Debalde.
Zaldibar antzokian, 12:30ean.

BERGARA Musika Bandaren kontzertu didaktikoa

Irekia.
Pilotalekuan, 12:30ean.

BERGARA Apirilean Musika ekimena

12:30ean, Bergarako eta musika eskolako banden kontzertu didaktikoa, pilotalekuan; eta, 16:00etan, *Izaro* ipuin musikatuaren entsegua, Seminarixoan.
Bergaran.

ARETXABALETA 'Peru krokodiloa' antzeziana

Kantu Kolore konpainiaren eskutik. Elkartasuna, errespetua eta adiskidetasuna dira ikuskizuneari sakontzen diren balioak.
Arkupen, 17:00etan.

ARRASATE 'Auzoa ezagutzera goaz' irteera

Gaztetxoendako.
Tren geltokiko gaztelekuan, 18:00etan.

ESKORIATZA 'Kantuen kontuak' emanaldia

Joseba Sarrionaindiarekin eta Ines Osinagarekin. Sarrerak, bost eurotan, *Bibe.me* atarian.
Zaldibar antzokian, 19:00etan.

ARRASATE 'Silvia Marso, Blues & Roots' ikuskizuna

Aktorearekin batera, Del Toro Blues Bandak parte hartuko du zuzenekoan.
Amaia antzokian, 19:00etan.

ASTELEHENA 24

OÑATI Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko.
Foruen plazan, 12:00etan.

ARRASATE Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko.
Herriko Plazan, 12:00etan.

ANTZUOLA Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko.
Herriko Plazan, 12:00etan.

BERGARA Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko.
San Martin plazan, 12:00etan.

BERGARA Apirilean Musika ekimena

14:00etan eta 17:45ean, *Zure instrumentuen bila*, musika eskolan; 18:30ean, piano ikasleen emanaldia, Seminarixoan; 19:30ean, helduen talde instrumentala, Seminarixoan; eta, 19:30ean, Idoia Asurmendiarekin solasaldia, musika eskolan.
Bergaran.

ESKORIATZA 'Piense, reflexione...' hitzaldia

Susana Diaz de Durana erizainak eta Jesus Millas medikuak egingo dute berba.
Kultura etxean, 18:00etan.

OÑATI 'Bomb it' dokumentala eta solasaldia Lian Monserraterekin

Arte Jardunaldien baitan.
Gaztetxean, 18:00etan.

MARTITZENA 25

BERGARA Apirilean Musika ekimena

14:00etan eta 17:15ean, *Zure instrumentuen bila*; 18:30ean, piano, gitarra eta dantza ikasleak; 19:00etan, flauta ikasleak; eta ,19:30ean, klarinete eta saxofoi ikasleak.

Bergaran.

OÑATI 'Emakumion Etxia errotzen' solasaldia

Zertaz ari gara Emakumion Etxiak feminista, ahalduntzailea, komunitarioa eta interseksionala izan behar duena diogunear? galderari erantzuten ahaleginduko dira. *Eltzian, 18:00etan.*

OÑATI Poesia eta musika emanaldia

Lerro tunelak saioa, Itziar Ugarte eta Iban Yaniz oñatiarrek. *Zinema aretoan, 19:00etan.*

EGUAZTENA 26

ANTZUOLA Apirilean Musika ekimena

15:00etan, piano eta gitarra ikasleen emanaldiak; eta 18:00etan, piano ikasleen emanaldiak. *Olaran etxean.*

ESKORIATZA Jolas kooperatiboak

16:45ean, HHkoak; eta 18:00etan, LHkoak. *Santa Marina plazan.*

ARETXABAETA 'Liburu magikoa' ipuin kontaketa

Leire Catala Alonsoren eskutik, 4-7 urte artekoendako. *Txiki Txokoan, 18:00etan.*

ARRASATE Pantalei eta Interneti buruzko hitzaldia

Rakel Gamitok egingo du berba. Irekia. *Kulturaten, 18:00etan.*

BERGARA Apirilean Musika ekimena

18:30ean, dantza, perkusio, trikiti eta piano ikasleen emanaldiak;



KANTU KOLORE

ARETXABAETA 'Peru krokodiloa' antzezlan

Kantu Kolore konpainiaren eskutik. Elkartasuna, errespetua eta adiskidetasuna dira ikuskizunean sakontzen diren balioak. Musika eta koreografiak. Sarrerak, hiru euro. *Etzi, domeka, Amaia antzokian, 17:00etan.*

eta, 19:30ean, biolontxelo ikasleen emanaldia.

Seminarixean.

OÑATI 'Irunberri 1990, arroiaren negarra' liburuaran aurkezpena

Gertaeren gaineko liburua, Gure Bazterrak taldearen eta Pako Aristi idazlearen eskutik. *Santa Ana antzokian, 19:00etan.*

ANTZUOLA 'Atalak' antzezlanaren aurrerapena

Eider Sanz eta Amaia Santamaria artistek egingo dute. *Olaran etxean, 19:00etan.*

EGUENA 27

ELGETA Ipuin tailerra umeendako

Maidar Galarzaren eskutik. *Liburutegian, 17:00etan.*

ELGETA Erretiratuendako bingo saioa

Bazkide guztiak daude gonbidatuta. *Ozkarbi elkarteak, 17:00etan.*

ESKORIATZA Haurrentzat ipuin kontaketa

Pello Añorgaren eskutik, 4 urtetik gorakoendako. *Liburutegian, 18:00etan.*

ESKORIATZA Irakurketa kluba

Nik kantatu eta dantza egiten dut mendian liburuaran gaineko saioa, Mikel Antzak gidatuta. *Kultura etxean, 18:00etan.*

OÑATI Ostegun Kontalariak

Glu Glu konpainiaren eskutik, 1-3 urte artekoendako. *Haurren liburutegian, 18:00etan.*

BERGARA Apirilean Musika ekimena

18:00etan, *Musika kalera*, San Martin plazan eta frontoian. *Bergaran.*

BERGARA 'Haurrak eta pantailak: gidaritza digitalaren beharra azaleratzen' tailerra

Amaia Arroyok gidatuta. Izenak: *angiozargurasozuzendaritza@gmail.com.* *Angiozarko Arbiaska aretoan, 18:00etan.*

ARRASATE Literatura solasaldia
Carson McCullers idazlearen *Kafe tristearen balada* liburuaran gaineko saioa, Alex Gurrutxagak gidatuta. *Kulturaten, 18:30ean.*

ARETXABAETA '20.000 especies de abejas' filma

Estibaliz Urresolaren lana. Sarrerak, bost euro. *Arkupen, 19:30ean.*

OÑATI 'A los libros y a las mujeres canto' dokumentala

Maria Elorzaren lana, zineklubean. Sarrerak, bost euro. *Zinema aretoan, 20:00etan.*

ARRASATE Kooltur Ostegunak: Kokein

Sarrerak, zazpi euro. *Gaztetxean, 22:00etan.*

ZINEMA

ARRASATE

AMAIA ANTZOKIA

Los Fabelman
Zapatua eta astelehena: 19:30.

Lokatx deabruak (euskaraz)
Zapatua: 17:00.

OÑATI

KULTURA ETXEA

20.000 especies de abejas
Egubakoitza eta zapatua: 19:30.
Domeka: 19:30, 22:00.
Astelehena: 19:30.

Super Mario Bros
Zapatua eta domeka: 17:00.

GASTEIZ

FLORIDA

20.000 especies de abejas

Egubakoitza: 17:00, 18:45, 19:30, 21:15.
Zapatua eta domeka: 11:30, 17:00, 18:45, 19:30, 21:15.
Astelehena eta eguaztena: 17:00, 20:00.
Martitzena eta eguena: 17:00.

Air

Egubakoitza eta domeka: 17:15, 22:00.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 19:15.

Conspiracion en El Cairo
Egubakoitza eta domeka: 19:30, 22:00.
Astelehenetik eguenera: 20:00.

El hotel de los lios

Egubakoitza eta astelehenetik eguenera: 17:30.
Zapatua eta domeka: 12:00, 17:30.

Empieza el baile

Egubakoitza eta domeka: 19:30, 21:30.
Astelehenetik eguenera: 19:45.

Hanna y los monstruos

Egubakoitza: 17:00.
Zapatua eta domeka: 12:00, 17:00.

KRITIKA

El inocente

Zuz.: Louis Garrel. **Herr.:** Frantzia (2022). **Aktoreak:** Louis Garrel, Noemie Merland, Roschdy Zem. **Iraupena:** 100 minutu. ★★★★★

Konplikazioak sortuz

ANTONIO ZABALA

Louis Garrel, aktorea izateaz gain, zuzendaria ere bada: lau pelikula zuzendu ditu orain arte. Duela urte batzuk Donostiako Zinemaldiko Sail Ofizialean *Un hombre fiel* filma aurkeztu zuen, gidoi onenari ematen zaion saria eskuratu zuen, eta iazko Zinemaldiko Perlak atalean *El inocente* filma ekarri zuen. Bi lanek komediara jotzen dute, baino misterio eta zinema beltzaren osagarriak ere badituzte. Lehenengo filmak, komedia erromantikoa izanik, heriotza bati buruzko intriga mantentzen zuen. *El inocente* gehiago hurbiltzen da zinema beltzera eta thrillerrera, baina hori ere komediaren barnean. Eta genero zinematografiko desberdinen nahasketa trebean datza filmaren lorpenik handiena.

Irati (euskaraz)

Egubakoitza eta martitzenetik eguenera: 17:15.
Zapatua eta domeka: 11:30, 17:15.

La habitacion de las maravillas

Egubakoitza eta domeka: 17:15, 19:30.
Astelehenetik eguenera: 17:15.

La mujer de Tchaikovsky

Egubakoitza eta domeka: 19:15, 22:00.
Astelehenetik eguenera: 19:30.

Libres

Egubakoitza eta domeka: 21:30.
Astelehenetik eguenera: 19:30.

Los tres mosqueteros: D'Artagnan

Egubakoitza eta domeka: 21:30.
Astelehenetik eguaztena: 20:00.

Momias

Zapatua eta domeka: 12:00.

Scarlet

Egubakoitza eta domeka: 17:00.
Astelehenetik eguaztena: 17:15.
Eguena: 17:30.

Super Mario Bros

Egubakoitza: 17:30, 19:30.
Zapatua eta domeka: 11:45, 17:30, 19:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30.

Vaya vacaciones

Egubakoitza: 19:30, 21:30.
Zapatua eta domeka: 11:45, 19:30, 21:30.
Astelehena: 17:00.
Martitzenetik eguenera: 17:00, 20:00.

Munch y sus criaturas fantasticas

Astelehena: 17:00, 19:00.

Los silencios del bosque

Zapatua eta domeka: 11:30.

Mi crimen

Eguena: 19:30.

Abelen ama kartzelatik irteko dagoen gizon batekin ezkontzen da. Harreman horrek mesfidantza sortzen du Abelen. Hala, lagun baten laguntzarekin gizonaren mugimenduak kontrolatzen eta ikertzen ahaleginduko da. Abelen izaera nahiko zentzugabea da, baina filmak izaera hori dibertigarri eta atsegin egiten du. Haren susmoak eta abenturak jarraituko ditugu: nola arazoak saihestu nahian horietan inplikata ikusten duen bere burua eta horiek handitzen dituen. Komedia beltz horren azken emaitzan, zuzendariaren trebeziarekin batera, zerikusi handia du aktoreen interpretazioak. Horien arteko konplizitateak filmaren ukitu dibertigarria areagotzen dute.



AZKEN BERBA

AINZANE OIARBIDE

Burujabetzaren defentsan

Pandemia garaian ikusi genituen Estatuaren aldetik Euskadiren eskumenen aurkako erabakiak eta orduan larrialdi egoera zen aitzakia. Azken boladan, botere judizialak eraso ugari egin dizkigu euskal administrazioen euskararen eskakizunak bertan behera utziz. Zenbait alderdi politiko erabat zentzugabekeriak ari dira hainbeste kosta zaigun gure eskumenei inolako babesik eman gabe Madrilgo gobernuari gure gain jartzeko debalde eskainiz. Adibidez, Andoaingo errepede proiektu baterako EH Bilduk Madrili eskatu dio laguntza, errepedearen eskumena erabat Aldundiarena denean; oraintsu, Espainiako etxebizitza legea negoziatu du, eskumena erabat Euskadirena denean.

PSE-EE horrelako jokoetan sartzeak ez nau harritzen, baina EH Bilduk bere burua independentista aitortzea eta gure burujabetzaren aurka horrelako negoziaketak egitea ez dut ulertzen. Gure eskumenak eskubide historikoak dira eta hauek estatutuan eta Konstituzioan jasota daude. Eskumena edukitzeak esan nahi du gu garela gure buruaren jabe eta guk bakarrik hartu ditzakegula guri dagozkigun erabakiak. Independentzia aldarrikatzea ez dator bat gure konpetentzien aurka egitearekin.

BUKATZEKO



Aitor Garitano bergararra, ezkerretik hasita hirugarrena, Madrilgo Auditorio Nazionalean. MUSEO UNIVERSIDAD DE NAVARRA

Ametsetan egin nahi du, baina lorik hartu gabe

Aitor Garitano abeslari bergararra Madrilen izan zen Aste Santuan, Auditorium Nazionalean abesten. Borja Quintasen gidaritzapean 'Carmina Burana' obra interpretatu zuen, tenore. Sekulako esperientzia izan dela dio, "opari" hutsa

Mikel Zumalde Etxabe BERGARA
Azkenaldian olatu-aparretan dabil Aitor Garitano abeslari debagoiendarra. Aste Santuko oporrak ederki asko aprobetxatu zituen gehien gustatzen zaion gauza egiteko: abestea. Gainera, plaza garrantzitsu batean abestu zuen, Madrilgo Auditorium Nazionalean, 2.300 pertsonaren aurrean. Carl Off konpositorea-

ren *Carmina Burana* obra interpretatzeko aukera izan zuen, tenore. Aukera hori nola sortu zen azaldu nahi izan du: "Nafarroako Orkestra Gazteak antolatu zuen ekitaldia eta obran solista gazteak nahi zituzten, eta solista ikasle eta gazteen bila jo zuten. Hori dela eta, Musikenen jo zuten atea, eta, horregatik, nik ikasten dudan

zentrotik irtendako kolaborazio bat izan da". Nafarroako Orkestra Gazteaz gain, Nafarroako Unibertsitateko Orkestra, Nafarroako Unibertsitateko abesbatza, Madrilgo Gazte Abesbatza eta Iruñeko Orfeoiko Gazte Abesbatza igo ziren oholtza gainera. Guztira, hirurehun lagunek parte hartu zuten proiektuan. Kontzertuan parte hartzea se-

kulako "oparia" izan zela azpimarratu du Garitanok, eta publikoari "izugarri" gustatu zitziola nabarmendu du. Madrilen abestu baino lehen, Iruñean ere interpretatu zuten *Carmina Burana* obra. Ezustekorik ezean, Madrilen abestu ondoren proiektu horri amaiera emango diote.

Ibilbide oparoa

Aitor Garitanok ogibide eta pasio du abestea. Bergarako Musika Eskolan egin zituen lehen urratsak, Gasteizko Kontserbatorioan ahotsa fintzen jarraitu zuen, eta orain Donostiako Musikene musika zentroan ari da, Kantuko Goi Mailako hirugarren mailan. Ikasketak hainbat abesbatzaren zuzendaritzarekin uztartzen ditu. Oñatiko Ganbara kantu eskolaren, Bergarako Orfeoi Gaztearen, Soraluzeko Abesbatzaren eta Gasteizko Abesbatza Sinfonikoaren zuzendaritza darama Garitanok. Hori gutxi ez eta, abesbatzaz gain, operan ere jarri izan du aletxo: Donostiako Opus Lirika elkarteak sortutako *Plagiacci*-n izan zen protagonista.

Epe laburreko erronkak

Aitor Garitanok amets egiten jarraitu nahi du, baina lorik hartu gabe. Proiektu asko ditu esku artean, eta, bereziki, hitzordu garrantzitsu batek egiten du zoriontsu: udan, abuztuaren 24an, Donostiako Musika Hamabostaldian parte hartuko du. Stravinski konpositorearen *Edipo Rey* operan tenorra izango da. Bilboko Orkestra Sinfonikoarekin batera Kursaalako Auditoriumean egongo da. Udako oporrei amaiera emateko modu ezin hobea.



Realaren eta Real Madrilen arteko partidarako sarrerak
futbol zelaiko tokirik onenean

GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA

Reala-Real Madril norgehiagoka beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuek eta zuek aukeratutako beste lagun batek:

Reale Arena futbol zelaiko premium gunetik.

Partida malatzaren 2an, martitzena, 22:00etan izango da.

Parte hartzeko azken eguna: apirilaren 25a

Ezin errazagoa da
zozketan
parte hartzea!



1.
Aplikazioa
deskargatu.

2.
Zozketak atalean sartu
eta parte hartu.

Gertu.
Zorte on!



Egin
Goienakide
eta Real
ikusteko aukera
izango duzue!

goiena
kide

Okm:
batzen gaituen
distantzia